



OSASUNGINTZA

Oinarrizko Curriculum Diseinua

**OSASUN DOKUMENTAZIOKO ETA
ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**



AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2. LANBIDE-PROFILA ETA LANBIDE-INGURUNEA	4. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIK	5. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Pazienteak kudeatzea	
2. Terminologia klinikoa eta patologia	
3. Diagnostikoak egitea eta prozedurak	
4. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa	
5. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan	
6. Bulegotika eta informazioaren prozesua	
7. Osasun-kodetzea	
8. Laguntza psikosoziala paziente-erabiltzaileari	
9. Datuak balidatzea eta ustiatzea	
10. Osasun arloko administrazio-kudeaketa	
11. Osasun-dokumentazioaren eta -administrazioaren proiektua	
12. Ingeles teknikoa	
13. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
14. Enpresa eta ekimen ekintzailea	
15. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	132. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
5. IRAKASLEAK	133. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	134 or.
7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE- ETA EGOKITASUN-LOTURAK	135. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Osasun Dokumentazioko eta Administraziooko goi-mailako teknikari-titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Osasungintza.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE-PROFILA ETA LANBIDE-INGURUNEA

2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra honako hau da: informazio eta dokumentazio kliniko tratatzeko prozesuak zehaztu eta antolatzea, datuak bildu, erregistratu eta kodetzea eta informazioa balioztatzea, araudia betetzen dela bermatuz eta, orobat, pazienteen arreta- eta kudeaketa-prozesuetan eta osasun-zentroen administrazio-kudeaketan esku hartzea.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioa:

- a. Osasun-dokumentazioa SAN626_3 (887/2011 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Osasungintzako lanbide-arloko hiru lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC2072_3: Dokumentuen eta historia klinikoen fitxategiak kudeatzea.
 - UC2073_3: Dokumentu-tratamendua eta informazio kliniko eta asistentzialeko sistema garatzea eta normalizatzea.
 - UC2074_3: Termino klinikoak eta prozedura diagnostikoei eta/edo terapeutikoei buruzkoak dokumentu klinikoetatik eraztea.
 - UC2075_3: Osasun-dokumentaziotik erazutako datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea.
 - UC2076_3: Prozedura administratibo-klinikoak egitea lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko pazienteen kudeaketan.
 - UC2077_3: Datu klinikoak eta ez-klinikoak ustiatzea informazio kliniko eta asistentzialeko sistemarako, kalitate-kontrolerako eta ikerketarako.

2.3 Lanbide-ingurunea

1. Titulu hau eskuratzen dutenek osasun-sektorean egin dezakete lan, esparru publikoko organismoetan zein erakundeetan eta enpresa pribatuan, hala lehen mailako arretan nola arreta espezializatuan, baita ospitaletan eta ikerketa-zentroetan ere. Dagokion fakultatiboak edo kasuko administrazio-kudeatzaileak gainbegiratzen du haien lana.

Estatuko osasun-administrazioak arautzen du haien lanbide-jarduera.



2. Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

- Osasun-dokumentazioko goi-mailako teknikaria.
- Osasun-dokumentazioa kodetzeko arduradun teknikoa.
- Historia klinikoen artxiboen arduradun teknikoa.
- Osasun-dokumentazioaren tratamenduaren eta diseinuaren arduradun teknikoa.
- Osasun-laguntzako informazio-sistemen arduradun teknikoa.
- Osasun-prestazioaren ebaluazioaren eta kalitate-kontrolaren arduradun teknikoa.
- Prozesu administratibo eta klinikoen kudeaketaren arduradun teknikoa.
- Unitate, sail edo osasun-zentroyen administrazio-arduraduna.
- Ikerketa biomedikoko taldeen laguntzailea.
- Osasun-zerbitzuen idazkaria.

3. HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Osasun-zentroetako bitartekoak, funtzionamendu-politikak eta izapideak aztertzea, sarrerek, altak, ohe-esleipena eta eskainitako gainerako zerbitzuak kudeatzeko.
2. Anatomofisiologiaren eta patologiaren ezaugarriak hautematea, hala nola azterketa diagnostikoak eta aukera terapeutikoak, osasun-dokumentazioan terminologia klinikoa bereizteko.
3. Askotariko arreta-egoerak aztertzea, dagozkion diagnostikoak eta prozedurak hautatzeko.
4. Dokumentuen beharrak eta eginkizunak zehaztea, hala nola eraginkortasunaren, kalitatearen eta konfidentzialtasunaren gaineko ezaugarriak, osasun-dokumentazioa osatzeko eta izapidetzeko.
5. Historia klinikoen eta gainerako dokumentuen antolaketa eta mantentze-lanak aztertzea eta planifikatzea, fitxategia euskarri arruntean eta informatikoak kudeatzeko.
6. Datu klinikoak eta ez-klinikoak arau-irizpideekin lotzea, gaixotasunak sailkatzeko sistemak erabiltzeko.
7. Diagnostikoak eta prozedurak sailkatzea, hala nola horien elementuak eta kodeak, kodetze-prozesuak egin ahal izateko.
8. Tresna estatistikoak aplikatzea, datu-basea ustiatzeko eta balidatzeko.
9. Datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren egitura ezagutzea, erabilgarritasuna eta ustiapen-modua hautemanda, osasun-dokumentazioa kudeatzeko.
10. Laguntza psikosozialeko eta komunikazioko teknikak hautatzea pazienteei eta senideei arreta eta orientabideak emateko.
11. Kexak eta erreklamazioak ebazteko teknikak aplikatzea, arretaren kalitatea eta arretaren gaineko gogobetetzea hobetzeko.
12. Antolaketa- eta kudeaketa-irizpideak, -prozesuak eta -prozedurak aplikatzea arreta-eremuetan eta arretazkoak ez direnetan, administrazio-lanak egiteko.
13. Giza baliabideak, hornikuntza eta proiektuak kudeatzeko aplikazio informatiko orokorrak eta espezifikoak erabiltzea, administrazio-lanak egiteko.
14. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko

- eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
15. Sormena eta berrikuntzako espiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
 16. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.
 17. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
 18. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
 19. Laneko arriskuen prebentzioko egoerak, laneko jazarpena, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena barne, eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
 20. Irisgarritasun unibertsalari eta «guztiontzako diseinua»ri erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
 21. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
 22. Ekintzailetzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
 23. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.



3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE-MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
1515. Pazienteak kudeatzea	99	1
1516. Terminologia klinikoa eta patologia	165	1
1517. Diagnostikoak egitea eta prozedurak	165	1
1518. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa	132	1
1519. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan	165	1
0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua	165	1
1520. Osasun-kodetzea	180	2
1521. Laguntza psikosoziala paziente-erabiltzaileari	80	2
1522. Datuak balidatzea eta ustiatzea	120	2
1523. Osasun arloko administrazio-kudeaketa	120	2
1524. Osasun-dokumentazioaren eta - administrazioaren proiektua	50	2
E-200. Ingeles teknikoa	40	2
1525. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1526. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1527. Lantokiko prestakuntza	360	2
Zikloa, guztira	2.000	

3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

1. lanbide-modulua PAZIENTEAK KUDEATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Pazienteak kudeatzea
Kodea:	1515
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	99
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Prozedura sanitario eta asistentzialak (Irakasle tekniko edo Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC2076_3: Prozedura administratibo-klinikoak egitea lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko pazienteen kudeaketan.
Helburu orokorrak:	1 / 3 / 20

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ospitale-zentroko oheak kudeatzen ditu, ezarritako esleipen- eta koordinazio-prozedurei jarraiki.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ospitaleratze-politikak aztertu ditu.
- Ospitaleratze-araudia identifikatu du.
- Ospitale-zentroko oheen egoeraren erregistroa eguneratzeko aplikazio informatikoa erabili du.
- Ohe-baliabideak esleitzeko eta koordinatzeko prozedurak adierazi ditu.
- Ohe-baliabideak esleitzeko zuzendaritzak ezarritako irizpideak zehaztu ditu.
- Programatutako ebakuntza kirurgikoak, larrialdi-zerbitzuetatik eratorritako ospitaleratzeak eta ohe erabilgarriak koordinatzeko prozedurak ezarri ditu.
- Ospitaleko oheen okupazioari eta esleipenari buruzko datuen ustiaketan lortutako emaitzen gaineko txostenak egin ditu.

2. Ospitaleratze-eremuko eta larrialdietako pazienteen sarrerak eta altak kudeatzen ditu, kudeaketa kliniko-administratiborako aplikazio informatikoak erabilia.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ospitaleratze-eremuan pazienteak ospitaleraten direnean egin beharreko izapideak zerrendatu ditu.
- b) Pazientearen filiazio-datuak identifikatu ditu.
- c) Dokumentazio klinikoa irekitzeko prozedura zehaztu du.
- d) Pazienteen filiazioaren eta, hala badagokio, historia klinikoaren irekieraren datuak sartu ditu aplikazio informatikoan.
- e) Ospitale-alta ematean egin beharreko izapideak deskribatu ditu.
- f) Ospitaleratze-solairuak koordinatzeko prozesua zehaztu du.
- g) Beste osasun-zentro batzuetarako paziente-bidalketak edo beste ospitale batzuetatik bidalitako pazienteen harrerak aztertu ditu.
- h) Larrialdi-zerbitzuan ospitaleratzeko eta alta emateko egin behar diren izapideen ezaugarriak zehaztu ditu.
- i) Larrialdietako gertakarien fakturazioa egiteko erregistroak bete ditu.
- j) Prozesu osoan datuak babesteko araudiaren aplikazioa bermatu du.

3. Probak eta tratamenduak osasun-zentroaz kanpora deribatzeko izapideak egiten ditu, eta kanpoko harrera egiten du, eskabideak eta erreferentzia-zentroak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zerbitzuek probak eta tratamenduak beste zentro batzuetara deribatzeko egindako eskabideen harrera-izapideak aztertu ditu.
- b) Erregistro informatikoa osatu eta eguneratu du.
- c) Eskabideen kudeaketan ezarritako araudia zehaztu du.
- d) Erreferentziatzko osasun-zentroen mapa identifikatu du.
- e) Hitzorduak koordinatzeko prozesua ezarri du.
- f) Eman beharreko dokumentazio klinikoa bereizi du.
- g) Hartutako deribazioak zerbitzu klinikoekin eta hitzorduen kudeaketarekin erlazionatu ditu.
- h) Erregistroak ustiatzearen bitartez emaitzak lortu ditu.

4. Osasun-garraioa eta bestelako prestazio asistentzial osagarriak kudeatzen ditu, arreta-eskariak eta bitarteko erabilgarriak erlazionatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-garraiorako bitarteko erabilgarriak eta eskatzaileen behar klinikoak erlazionatu ditu.
- b) Osasun-garraiorako bitarteko erabilgarriak eta eskatzaileen behar klinikoak koordinatzeko izapideak deskribatu ditu.
- c) Pazienteak osasun-garraioan lekualdatzeko edo hartzeko dokumentazio administratibo-kliniko egokia bete du.
- d) Prestazio asistentzial osagarriak sailkatu ditu.
- e) Prestazioak-kudeatzeko protokoloak identifikatu ditu.
- f) Prestazio asistentzial osagarrietan ezarritako araudia aztertu du.

5. Anbulatorio-jarduera eta proba diagnostikoetarako hitzorduak ematen ditu, agendak kudeatzeko aplikazio informatikoak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Anbulatorio-konsulten ezaugarriak, eguneko ospitaleko arreta eta proba diagnostikoak egiteko modua zehaztu ditu.
- b) Hitzorduak kudeatzeko izapide administratibo-klinikoak zehaztu ditu.
- c) Hitzorduak emateari buruz osasun-zentroan ezarritako irizpideak aztertu ditu, zerbitzuaren programazioaren arabera.
- d) Zerbitzu medikoen agenden eginbideak deskribatu ditu.
- e) Osasun-zentroan erabilgarri dauden baliabideak koordinatzeko irizpideak ezarri ditu.
- f) Pazienteak bideratzeko ezarritako protokoloak bete ditu, proba diagnostikoak edo ospitalez kanpoko proba terapeutikoak egiteko.
- g) Osasun-zentroko informazio-sistemaren bidez bete ditu erregistro administratibo-klinikoak eta estatistikoak.
- h) Anbulatorio-jardueraren gaineko txostenak eta estatistikak egin ditu, ezarritako metodologiari jarraiki.
- i) Pazienteei eskainitako arretaren kalitatean eta sistemaren eraginkortasunean agenda-kudeaketak duen garrantzia balioetsi du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. 1.- OSPITALEKO OHEEN KUDEAKETA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ospitaleko baliabideak identifikatzea. - Oheak kudeatzeko prozesuak gauzatzea, paziente motaren arabera, eta aplikazio informatikoak erabiliz. - Ospitaleratze programaturako edo larrialdi-zerbitzuetatik, eguneko ospitaletik, etxeko ospitaleratzetik zein kanpo-zerbitzuetatik bideratutako pazientei oheak esleitzeko teknikak aplikatzea. - Ebakuntza kirurgiko programatu eta urgenterako ospitale-oheak esleitzeko teknikak aplikatzea. - Pazienteak beste zentro batzuetara bideratzeko prozesu mota guztiak gauzatzea. - Ospitale-adierazleak kalkulatzeko eta ospitaleko oheen okupazioari zein esleipenari eta kirurgia-jarduerei buruzko datuen ustiaketan lortutako emaitzen gaineko txostenak egitea. - Ospitaleko oheen erabilera kudeatzeko araudia aztertzea eta interpretatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko osasun-antolaketa. Osasun-zentro motak. Osasun-zentroetako baliabideak. Ospitaleratze tradizionala. Eguneko ospitalea (medikoa, kirurgikoa). Etxeko ospitaleratzea. Kanpo-zerbitzuak (erradioterapia, hemodialisia, medikuntza nuklearra, etab.). Zerbitzu-zorua. - Ohe-baliabidea. Definizioak. Ohe motak (instalatuta, erabilgarri eta bestelakoak). - Oheak kudeatzeko sistemak. Definizioak. Zentroko oheak banatzeko sistemak. Oheak esleitzeko eta koordinatzeko prozedurak. Ebakuntza kirurgikoak, ospitaleratzeak eta ohe erabilgarriak koordinatzeko prozedurak. - Pazienteak bideratzeko sistemak. - Ohe erabilgarrien kudeaketari buruzko ospitale-adierazleak. Ospitale-okupazioaren adierazlea. Oheen errotazioaren adierazlea. Batez besteko egonaldia. Larrialdietako lan-karga. Beste adierazle batzuk. - Kirurgia-jarduerei buruzko ospitale-adierazleak. Operazio-gelaren erabilera-orduak. Operazio-gelaren erabilerari buruzko adierazlea.



	<p>Beste adierazle batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ospitaleko oheen erabilera kudeatzeko araudia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna inplikaturako pertsonetikiko tratuan. - Norberaren itxuraren eta higienezaren gaineko interesa. - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta zehaztasuna zaintzea datuen lanketan eta erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.

2. 2.- PAZIENTEEN OSPITALERATZEA ETA ALTAK KUDEATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Historia klinikoak irekitzea, protokoloaren arabera. - Pazienteak ospitaleratzeko, lekualdatzeko edo alta emateko izapideak ezartzea ospitaleratze-eremuan eta larrialdi-zerbitzuen harreran, berariazko aplikazio informatikoak erabiliz. - Ospitale-gertakariak eta dokumentazio-mugimendua erregistratzeko eta kontrolatzeko teknikak aplikatzea. - Zerbitzuaren fakturazioari buruzko izapideak betetzea. - Pazienteen fitxategi nagusiko filiazioari buruzko araudia aztertzea eta interpretatzea. - Ospitaleko eta larrialdietako ospitaleratzei eta altei buruzko araudia aztertzea eta interpretatzea. - Ospitaleratzei eta altei aplikagarri zaien datuak babesteari buruzko araudia aztertzea eta interpretatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pazienteen harrera-zerbitzua. Eginkizunak. - Osasun-txartel indibiduala Definizioak, ezaugarriak eta eginbideak. Osasun-txartel indibidualaren datu-basea. - Pazienteen fitxategi nagusia. Erregistro eta datu demografikoak. Historia klinikoak irekitzeko protokoloak. - Ospitaleratze-, alta- eta lekualdatze-sistemak. Motak. - Itxaron zerrendak. - Pazienteen fitxategi nagusiko filiazioari buruzko araudia. - Ospitaleratzei eta ospitaleko zein larrialdietako altei buruzko araudia. - Ospitaleratzei eta altei aplikagarri zaien datuak babesteko araudia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna inplikaturako pertsonetikiko tratuan. - Norberaren itxuraren eta higienezaren gaineko interesa. - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta zehaztasuna zaintzea datuen lanketan eta erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.

3. PROBA- ETA TRATAMENDU-BIDERATZEAK IZAPIDETZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziazko osasun-zentroak, horien kokapena eta emandako arreta identifikatzea. - Zerbitzu-katalogoak interpretatzea. - Zerbitzuetatik bideratutako proba- eta tratamendu-eskabideen harrera egitea. - Probak eta tratamenduak beste ospitale batzuetara bideratzeko eskabideak izapidetzea. - Zentro hartzaileetara bideratzeko beharrezkoa den dokumentazio klinikoa prestatzea eta betetzea. - Egindako bideratzeen eta jardueren erregistro informatikoa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziazko osasun-zentroen mapa. - Osasun-proben eta -zerbitzuen katalogoak. - Hitzorduak koordinatzeko eta beharrezkoa den dokumentazio klinikoa eskaintzeko izapideak. - Bideratzeak kudeatzeko araudia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna inplikaturako pertsonetikiko tratuan. - Norberaren itxuraren eta higienezaren gaineko interesa. - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta zehaztasuna zaintzea datuen lanketan eta erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa.

4. OSASUN-GARRAIOA ETA BESTELAKO PRESTAZIO ASISTENTZIAL OSAGARRIAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia-erkidegoetako prestazio asistentzial osagarriak identifikatzea. - Prestazio osagarriak eta osasun-garraioa kudeatzea, aplikazio informatikoak erabiliz. - Egoeran egoerako osasun-garraiorako dokumentazioa, erregistroa eta izapideak betetzea. - Egindako jarduerak erregistratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kudeatu beharreko prestazio asistentzial osagarriak. Ezaugarriak eta motak (errehabilitazioa, oxigenoterapia, aerosolterapia, dialisia edo eguneko ospitaleak, besteak beste). Prestazio horiek kudeatzeko protokoloak. Legedia eta araudia. - Osasun-garraioa. Motak. Indikazioak. - Osasun-garraioa kudeatzea. Pazienteak osasun-garraioan lekualdatzeko edo hartzeko dokumentazio administratibo-klinikoa. Osasun-garraioa eta eskatzaileen behar klinikoak kudeatzeko protokoloak. Osasun-garraiorako baliabide erabilgarriak koordinatzea. Legedia eta araudia.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna inplikaturako pertsonetikotratuan. - Norberaren itxuraren eta higienearen gaineko interesa. - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta zehaztasuna zaintzea datuen lanketan eta erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.
--------------	---

5 ANBULATORIO-JARDUERA ETA PROBA DIAGNOSTIKOETARAKO HITZORDUAK EMATEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Agendak betetzeko teknikak aplikatzea. - Bideratzeko beharrezkoa den dokumentazio klinikoa prestatzea. - Pazienteei hitzordua ematea, ambulatorio-hitzorduekudeatzeko berriazko aplikazioen bat erabiliz, eta lehen mailako arretarako, eguneko ospitalerako eta proba-diagnostikoetarako hitzordua ematea. - Ambulatorio-jardueraren txostenak eta estatistikak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen mailako arretako kontsulta eta kontsulta espezializatua. Eguneko ospitalea. Kanpo-kontsultak eta proba diagnostikoak. Definizioak eta motak. - Hitzorduek emateko sistemak eta pazienteak bideratzeko sistemak. - Agendak. Motak. Agendak diseinatzea. Funtsezko datuak. Katalogoak. Hitzorduen ereduak. - Dokumentuak. Motak (bideratzeko, hitzorduetarako eta bestelakoetarako beharrezkoa den dokumentazioa). - Hitzorduek zentroko bertako ambulatorio-jarduerarekin eta beste zentro batzuekin koordinatzeko prozesuak. - Beste zentro ambulatorio batzuetatik bideratutako pazienteei ospitalean harrera egitea koordinatzeko prozesuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna inplikaturako pertsonetikotratuan. - Norberaren itxuraren eta higienearen gaineko interesa. - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta zehaztasuna zaintzea datuen lanketan eta erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau osasun-antolaketari buruzko sarrera labur batekin has liteke (1. blokea), ikasleek modulu honetan zein heziketa-zikloko beste modulu batzuetan ikasgai izango dituztenak uler ditzaten (osasun-zerbitzuak, zentro motak, ospitale baten egitura, harrera-zerbitzua, dokumentuak eta abar).

Ondoren, ospitaleratzeen eta pazienteen alden kudeaketa lan liteke (2. blokea), harrera-zerbitzutik hasita, paziente batek ospitalean egiten duen arreta-ibilbideko fase guztiakin zuzenean edo zeharka lotuta dagoelako. Ondorioz, datuei eta datuok integratzeari dagokienez, zentroko punturik aberatsena da. Zerbitzu horren eginkizunak (ospitaleratzeak, kanpo-kontsultak, larrialdiak eta abar) sakon aztertzea garrantzitsua da, ikasleek moduluaren edukien ikuspegi orokorra izan dezaten.

Ondoren, ospitaleratze-, alta- eta lekualdatze-sistemei ekin ahal zaie, historia klinikoak irekitzeko protokoloa aipatuta, 4. moduluan sakon ikasiko dena: *Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa*. Ondoren, pazienteen erregistroari, osasun-txartel indibidualari, erregistroei eta demografia-datuei zein pazienteen fitxategi nagusiko filiazioaren gaineko araudiari buruzko gaiak ikasiko dira; gero pazienteak ospitaleratze, lekualdatze edo alta emateko beharrezkoak diren izapideak, ospitaleratzeen eta ospitaleko zein larrialdietako alden araudia eta datuak babesteko araudi aplikagarria barne.

Pazienteak ospitaleratzea kudeatzeari loturiko gaiak ikasita, oheen kudeaketari ekin ahal izango zaio (1. blokea), berriz ere osasun-antolaketarekin hasita: zentro motak, lehen mailako arreta eta arreta espezializatua, osasun-zentroko baliabideen azterketa, ohe-baliabidea, oheak kudeatzeko sistemak eta araudiak, oheak esleitzeko eta koordinatzeko prozedurak, ebakuntza kirurgikoak, ospitaleratzeak eta ohe erabilgarriak koordinatzeko prozedurak, pazienteak bideratzea eta ospitale-adierazleak, 1. blokean ere azaldu direnak.

Ondoren, probak eta tratamenduak bideratzeko izapideak ikasiko dira (3. blokea), osasun-proben eta -zerbitzuen katalogoekin eta erreferentziazko osasun-zentroyen maparekin hasita. Jarraian, bideratzeak kudeatzeko araudia aztertuko da, prozeduren alderdiei heltzeko gero. Segidan, erregistro informatikoak, beste zerbitzu batzuek eta beste zerbitzu batzuei egindako proba- eta tratamendu-eskaeren gaineko izapideak eta hitzordua koordinatzeko eta beharrezkoa den dokumentazio kliniko guztia eskaintzeko izapideak landuko dira.

Jarraian, osasun-garraioaren kudeaketari eta bestelako prestazio asistentzial osagarriari heldu ahal izango zaie (4. blokea), Euskadiko eta gainerako autonomia-erkidegoetako prestazio asistentzial osagarriak aztertuta. Nabarmenenak azpimarratuko dira (errehabilitazioa, oxigenoterapia eta aerosolterapia eta abar), prestazio horiei dagokien indarreko legediari eta protokoloari ekiteko gero. Ondoren, osasun-garraioaren kudeaketa aztertuko da; kontzeptu nagusiak, motak, argibideak, garraioko araudia eta osasun-garraiorako baliabide baliagarrien koordinazioa. Jarraian, garraioa kudeatzeko protokoloak eta pazienteak lekualdatzeko edo hartzeko beharrezkoa den dokumentazio administrazio-klinikoa ikasiko dira.

Moduluaren amaieran landuko da lehen mailako arretako pazienteen kudeaketa (5. blokea: *Anbulatorio-jarduera eta proba diagnostikoetarako hitzorduak ematea*). Hasteko, alderdi orokorrenak landuko dira: lehen mailako arretako kontsulta, eguneko ospitalea, kanpo-kontsultak, proba diagnostikoak eta abar. Ondoren, hitzordu-ereduak eta agenda osatzekoak ikasiko dira, hala nola bideratzeak egiteko beharrezkoa den dokumentazio klinikoa eta zentroan bertan eta beste batzuekin koordinatuta jarduteko prozedurak.



Azkenik, jarduera anbulatorioaren gaineko estatistikak eta txostena egiteari ekingo zaio azaletik; izan ere, baliteke ikasleak oraindik ez izatea gai datuen tratamendu estatistikorako beharrezkoak diren tresnak menderatzeko, 9. moduluan landuko dira-eta (*Datuak balidatzea eta ustiatzea*).

Irakasleak ikasleen ezaugarrien arabera balioetsi beharko du unitate didaktikoen sekuentzia, baina, edonola ere, nahitaez jardun beharko da lankidetzan 6. modulua irakaslearekin: *Bulegotika eta informazioaren prozesua*.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek beharrezkoa den informazioa eskaintzen du lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko pazienteak kudeatzeko prozesu administratibo-klinikoak gauzatzeko. Gauzatu ahal izateko, irakasleak hautatuko lan-metodoa edozein dela ere, honako orientabide hauek kontuan hartzea komeni da:

Modulua ikasten hastean, hura aurkezten eta informazioa batzen eta ikasleen interesa jasotzen denbora bat emateaz gainera, eduki horiek lanbide-profilarekin duten lotura eta horiek lanbide-etorkizunean duten erabilgarritasuna azal daiteke.

Irakasteko eta ikasteko jardura horietan, funtsezkoa da ingurunera eta tituluak adierazten dituen lanbide-jardueretara egokitzea. Zehazki, hipotesien datuek eta ezaugarriek, garatu beharreko prozesuek, erabili beharreko dokumentuek, simulatutako egoerek eta abarrek esanguratsuak eta «ezagunak» izan beharko dute ikasleentzat.

Programa informatikoak eta bulegotika-paketeak ezinbestean erabili behar direnez, komeni da pazienteak erregistratzeko, oheak kudeatzeko, hitzorduak emateko, osasun-garraioa kudeatzeko eta abarrerako berariazko aplikazioak erabiltzea.

Lanbide-modulu hau izaera praktikokoa da, baina unitate didaktikoetako batzuek kontzeptu-eduki gehiago dituzte, oinarrizko osasun-antolaketari, osasun-zentro motei, osasun-zentroko baliabideei, osasun-garraioko araudiari eta abarrei buruzkoek kasu. Horrenbestez, horiek guztiak konplexutasun txikienektatik handienektora lantzea komeni da, eta ikasleen parte-hartzea eragiteko metodoak erabiltzea, azalpenak ematen gehiegi luzatzea ekiditeko.

Horretarako, hainbat jardura egin daitezke taldean nahiz banaka. Adibidez, honako hauek: informazioa euskarri desberdinetan bilatzea (liburuak, aldizkariak, Internet eta abar); ospitale-zerbitzuen katalogoei edo Euskal Autonomia Erkidegoko, beste autonomia-erkidego batzuetako edota beste herrialde batzuetako osasun-prestazioei buruzko informazioa biltzea; ikasgela-kideei konparaketak edo ondorioak aurkeztea; eztabaidak, iritzi-trukeak eta irakurraldi iruzkinduak egitea; dokumentuak, txostenak eta ikasmateriala osatzea; jardura anbulatorioaren estatistikei eta datu-aurkezpenari loturiko ariketa errazak egitea; eta osasun-arloen hormako planoak egitea, eremuen eta eskualdeen arabekoak, osasun-zentroen eta erreferentziazko zentroen arabekoak eta abar.

Modulu osoan zehar, eta 6. modulua irakaslearekin batera, («*Bulegotika eta informazioaren prozesua*») datu-base txiki bat osa daiteke Excel edo Access erabiliz, pazienteen fitxategi nagusi gisa erabiliko dena eta beharrezkoak diren datu kliniko-asistentzialetarako eremuak edukiko dituen. Ikasleek fikziozko pazienteak

erregistratuko dituzte modulu honetan, pazienteen fitxategi nagusiaren filiazio-araudia betez.

Modulu osoaren edukia laburbilduko duten ariketak egitea garrantzitsua da, hala nola osasun-zentrorra egoera desberdinean iristen diren asmatutako pazienteen kasu praktikoak lantzea, ikasleek dagokien arreta eman diezaieten protokolo zuzena abiaraziz (ospitaleratzeko pazientea, lekualdatzeko pazientea, alta emateko pazientea, proba diagnostikoetara bideratzea, osasun-garraioaren eskabidea eta abar). Gainera, kasu horretan, rolak (paziente, teknikaria) esleitzeko teknikak erabili ditzakete ikasleek, eta txandakatu, pazienteari eman beharreko tratuz gain, pazientearen egiaztapenari eta dokumentazioari loturiko alderdiak ere lantzeko (osasun-txarten indibiduala, kontsulta arteko dokumentuak, osasun-garraioaren eskabidea eta abar).

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Oheak, pazienteen ospitaleratzeak eta altak, proba- eta tratamendu-bideratzeak, garraioa eta osasun-prestazio osagarriak eta anbulatorio-jardueretarako nahiz proba diagnostikoetarako hitzorduak kudeatzeko teknikak ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Oheak kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Pazienteen ospitaleratzea eta altak kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Proben eta tratamenduen eskabideak bideratzeko eta hartzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Erreferentziako zentroak eta horien zerbitzu-zorroak identifikatzea eta ezaugarriak adieraztea.
- ✓ Osasun-garraioa kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Prestazio asistentzial osagarriak kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Anbulatorio-jardueren eta proba diagnostikoen hitzorduak emateko teknikak aplikatzea.
- ✓ Zerbitzuen agendak antolatzea.
- ✓ Loturiko informatika-aplikazioak erabiltzea.
- ✓ Araudiak, erreferentziako zerbitzu-katalogoak, dokumentazioa eta lan-protokoloak hautatzea eta aplikatzea.
- ✓ Jardueraren txostenak eta estatistikak egitea.



2. lanbide-modulua TERMINOLOGIA KLINIKOA ETA PATOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Terminologia klinikoa eta patologia
Kodea:	1516
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	165
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	2 / 21

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Termino klinikoen egitura eta eraketa zehazten ditu, unitate etimologikoak eta erlazioak azalduta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Medikuntza-terminologiaren ezaugarriak eta eginbideak zehaztu ditu.
- Termino medikoen mota semantikoak eta funtzionaltasunak deskribatu ditu.
- Termino medikoen osagaiak identifikatu ditu.
- Termino klinikoak eratzeko arau orokorrak azaldu ditu.
- Terminoak eraikitze arauak aplikatu ditu hiztegi medikoan.
- Terminologia kliniko egokia erabili du.

2. Giza organismoaren egitura eta antolaera orokorra ezagutzen du, osagaiak, erlazioak eta nahasmenduak azalduta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Organismoaren sistemak eta beren osaera adierazi ditu.
- Aparatuen eta sistemen eginbideak zehaztu ditu.
- Gorputzeko eremuak eta barrunbeak kokatu ditu.

- d) Jarrera eta norabidearen terminologia aplikatu du.
- e) Prozesu fisiopatologikoak sailkatu ditu.
- f) Nahasmenduak eta gaixotasunak eta dagozkien medikuntza- eta kirurgia-espezialitateak zerrendatu ditu.

3. Sistema kardiobaskularraren nahasmenduen ezaugarriak azaltzen ditu, horien eta bihotzaren, odol-hodien eta odolaren prozesu fisiopatologikoen arteko lotura azalduz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotzaren eta zirkulazioaren parametro funtzionalak zehaztu ditu.
- b) Bihotzeko patologien eta patologia baskularren zeinuak zehaztu ditu.
- c) Bihotzeko nahasmendu ohikoenak definitu ditu.
- d) Nahasmendu baskular ohikoenak sailkatu ditu.
- e) Odoleko nahasmenduak zehaztu ditu.
- f) Sistema kardiobaskularreko nahasmenduen prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak zerrendatu ditu.
- g) Terminologia kliniko egokia erabili du.

4. Arnas aparatuen nahasmenduen ezaugarriak eta horiek biriketako zein arnasbideetako prozesu fisiopatologikoekin duten lotura zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arnasaren mekanika eta gas-trukea deskribatu ditu.
- b) Arnas zeinuak zehaztu ditu.
- c) Arnasbideetako patologia azaldu du.
- d) Biriketako gaixotasunak sailkatu ditu.
- e) Pleurako patologia identifikatu du.
- f) Arnas aparatuko nahasmenduen prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak zerrendatu ditu.
- g) Terminologia kliniko egokia erabili du.

5. Digestio aparatuen nahasmenduen ezaugarriak eta horiek digestio-hodiarekin eta glandula osagarriekin duten lotura zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Digestio- eta xurgatze-prozesuak zehaztu ditu.
- b) Jakien metabolismoa eskematizatu du.
- c) Elikadurako nahasmenduak identifikatu ditu.
- d) Digestioaren zeinuak sailkatu ditu.
- e) Digestio-gaixotasunak zehaztu ditu.
- f) Gibel-behazuneko patologia identifikatu du.
- g) Gaixotasun pankreatikoak deskribatu ditu.
- h) Gernu-sistemako nahasmenduen prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak zerrendatu ditu.
- i) Terminologia kliniko egokia erabili du.

6. Genital- eta gernu-aparatuen nahasmenduen ezaugarriak eta horiek giltzurruneko zein gernu-bideetako prozesu fisiopatologikoekin duten lotura zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Gernua osatzeko prozesua aztertu du.
- b) Gernu-zeinuak deskribatu ditu.
- c) Giltzurruneko patologia sailkatu du.
- d) Gernu-bideetako patologia zehaztu du.
- e) Emakumezkoaren edo gizonezkoaren organo genitaletako gaixotasunak identifikatu ditu.
- f) Gernu-sistemako nahasmenduen prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak zerrendatu ditu.
- g) Terminologia kliniko egokia erabili du.

7. Beste aparatu eta sistema batzuen nahasmenduen ezaugarriak eta horiek inplikatutako prozesu fisiopatologikoekin duten lotura zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aparatu edo sistema bakoitzaren organoak eta osagaiak identifikatu ditu.
- b) Inplikatutako prozesu fisiologikoak deskribatu ditu.
- c) Loturiko zeinu klinikoak deskribatu ditu.
- d) Dagokion patologia sailkatu du.
- e) Gaixotasun adierazgarrienak identifikatu ditu.
- f) Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak sailkatu ditu.
- g) Terminologia zehatza erabili du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. TERMINO KLINIKOEN EGITURA ETA ERAKETA IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Terminologia klinikoa interpretatzea. - Termino medikoak eratzeko teknikak aplikatzea. - Termino medikoen osagaiak eta alderdiak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Terminologia klinikoa. Jatorria. Eginkizunak. Termino medikoen ezaugarri nagusiak. - Termino medikoen mota semantikoak. - Termino medikoen egitura eta eraketa. Baliabide nagusiak. Siglak eta akronimoak. Terminologia medikoaren erroak, aurrizkiak, atzizkiak eta partikulak. - Normalizazioa terminologia klinikoan. - Laburdurak osasun-dokumentazioan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.

2. GIZA ORGANISMOAREN EGITURA ETA ANTOLAKETA OROKORRA EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza organismoaren egitura garrantzitsuenak identifikatzea. - Egiturak eta organoak lokalizatzea. - Espazioak izendatzea. - Organoen eta egituren arteko harremanak deskribatzea.

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Organismoaren sistemak eta aparatuak. Saillapenak. Osagaiak. Eginkizunak. - Aparatuen eta sistemen arteko lotura anatomikoak eta funtzionalak. - Prozesu fisiopatologikoak (infekziosoak, hanturazkoak, tumoreak, hemodinamikoak, elikadurarenak eta metabolismoarenak, besteak beste). - Gorputzeko topografia. Gorputz-atalak eta -barrunbeak. Norabidearen eta jarreraren terminologia. Ardatzak. Planoak. - Espezialitate medikoak eta kirurgikoak. Lan-eginkizunak eta -eremuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.

3. SISTEMA KARDIOBASKULARREKO NAHASMENDUAK EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea. - Sistema honekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenen ezaugarriak ematea. - Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea. - Pultsua, tentsio arteriala eta bihotzeko erritmoa. - Proba diagnostiko arruntak eta bestelako dokumentuak interpretatzea. - Terminologia espezifikoa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bihotz-hodietako sistema. Oroitzapen anatomofisiologikoa. Parametro funtzionalak. Tentsio arteriala, pultsua eta bihotzeko erritmoa. - Bihotzeko eta hodietako zeinuak (palpitazioak, oinazea eta abar). - Bihotzeko gaixotasunak. Saillapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (kardiopatia iskemikoa, balbulopatiak, gutxiegitasunak eta abar). - Patologia baskularra. Saillapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (hipertentsio arteriala, patologia arteriala eta benosoa, gaixotasun zerebrobaskularra eta abar). - Odola eta organo hematopoietikokoak. Oroitzapen anatomofisiologikoa. - Odoleko patologia. Saillapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (anemiak, koagulazioaren nahasmenduak eta abar). - Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak, sistema kardiobaskularrean erabili ohi direnak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea. - Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.



4. ARNAS APARATUKO NAHASMENDUAK EZAGUTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea. - Aparatu honekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenen ezaugarriak ematea. - Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea. - Proba diagnostiko arruntak eta bestelako dokumentuak interpretatzea. - Terminologia espezifikoa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arnas aparatua. Oroitzapen anatomikoa. Arnasketaren fisiologia. - Arnas zeinuak (arnasestua, eztula, kerrua eta abar). - Arnas patologia. Sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa –BGBK–, arnas gutxiegitasuna, pleurako nahasmenduak eta abar). - Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak, arnas sisteman erabili ohi direnak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea. - Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.

5. DIGESTIO-APARATUKO NAHASMENDUAK EZAGUTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea. - Aparatu honekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenen ezaugarriak ematea. - Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea. - Proba diagnostiko arruntak eta bestelako dokumentuak interpretatzea. - Terminologia espezifikoa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Digestio-aparatua. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Digestio-eta xurgapen-prozesua. Elikagaien metabolismoa. - Digestio-zeinuak (oinazea, goragalea eta abar). - Digestio-patologia. Sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (urdaileko eta duodenoko ultzera, koloneko minbizia, sabelaldeko barrunbeko hernia, gibelego eta behazuneko patologia, pankreatitisa eta abar). - Elikaduraren nahasmenduak (malnutrizioa, defizitak, elikaduraren nahasmenduak eta abar). - Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak, digestio-sisteman erabili ohi direnak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.
--	---

6. GENITAL- ETA GERNU-APARATUAREN NAHASMENDUAK EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea. - Aparatu honekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenen ezaugarriak ematea. - Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea. - Proba diagnostiko arruntak eta bestelako dokumentuak interpretatzea. - Terminologia espezifiko erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gernu-aparatua. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Gernua osatzeko prozesua. - Gernu-zeinuak (disuria, tenesmoa eta abar). - Giltzurruneko eta gernu-bideetako patologia. Sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (infekzioak, giltzurruneko gutxiegitasuna, giltzurruneko kolikoa eta abar). - Aparatu genital femeninoa eta maskulinoa. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. - Aparatu genitalaren zeinuak. - Genital femeninoetako eta maskulinoetako patologia. Sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak (prostata-nahasmenduak, minbizia, infekzioak eta abar). - Aparatu horiei loturiko prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea. - Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.

7. BESTE APARATU ETA SISTEMA BATZUETAKO NAHASMENDUAK EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementuak eta egiturak identifikatzea eta aurkitzea. - Aparatu eta sistema hauekin lotutako prozesu fisiopatologiko garrantzitsuenen ezaugarriak zehaztea. - Zantzu eta sintoma batzuk identifikatzea. - Proba diagnostiko arruntak eta bestelako dokumentuak interpretatzea. - Terminologia espezifiko erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larruazala. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Oinarrizko patologia. Sintomatologia. Prozesu-sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak. - Nerbio-sistema eta zentzumenak. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Patologia-sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak. - Lokomozio-aparatua. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Patologia-sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak.



	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema endokrinoa. Oroitzapen anatomikoa eta fisiologikoa. Patologia-sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak. - Beste sistema batzuk, oroitzapen anatomofisiologikoa. Patologia-sailkapena. Nahasmendu batzuen ezaugarriak. - Prozesu horiei loturiko prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna hizkuntza eta terminologia erabiltzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Gaixorik dauden eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak errespetatzea. - Erantzukizunez jardutea bere osasuna eta besteena zaintzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeke eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziak

Modulua hasteko, 2. blokea landuko da: *Giza organismoaren egitura eta antolera orokorra ezagutzeko*. Hori izango da abiapuntua gainerako edukiei ekiteko. Ondoren, 1. blokea landuko da: *Termino klinikoaren egitura eta eraketa identifikatzea*. Hala, moduluan erabiliko den terminologia klinikoaren oinarriak ezarriko dira.

Ondoren, gainerako blokeak ikasiko dira, organismoa osatzen duten sistemei eta aparatuei buruzkoak (kardiobaskularra, arnasarena, gernu- eta genital-aparatua eta abar). Horretarako, blokeetan ezarritako sekuentzia bera baliatu daiteke.

Nolanahi ere, irakasle bakoitzak edukien sekuentzia balioetsi beharko du, ikasleen ezaugarrien eta heziketa-zikloko gainerako moduluekin koordinatzeko beharren arabera.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honek emandako prestakuntza oinarrikoa eta orokor antzekoa denez, modulua ikasten hastean, aurkezpena egiteaz eta ikasleen informazioa eta interesak biltzeaz gain, eduki horien eta lanbide-profilaren eta horiek jardun profesionalan duten erabilgarritasunaren arteko lotura azaldu daiteke.

Edukiak asko eta askotarikoak izan daitezke, eta errealizazio profesionalaren eta ebaluazio-irizpideen deskribapenak mugatzen dituzte. Hala ere, gogorarazi behar da fisiopatologiaren ikuspegi globala eta ez zehatza ematea dela helburua, eta garrantzitsuagoa dela oro har ulertzea ñabardurari erreparatzea baino. Hori horrela, esan beharra dago atal bakoitzeko gaixotasunen katalogoa ikastea baino garrantzitsuagoa dela ikasleek alderdi jakin batzuk aztertzea, gaixotasun horiek eta horien zeinuak zein esparru profesionalan izan ditzaketen ondorioak ulertu, eta gai izan daitezkeen horiek modu autonomoan ikasteko gerora.

Kasu batzuetan, izendapena lauso eta zehaztasunik gabea da: halakoren «zeinuak», bestekoren «gaixotasunak eta nahasmenduak» eta zer edo zeren «fisiopatologia»

esamoldeak erabili ohi dira, baina ez da zehazten zein prozesu ikasi behar den, moduluaren ardura duen irakasleak finkatu behar dituelako ikasi beharreko edukiak, horien hautaketa taldearen arabera eginda.

Modulu honetan, kontzeptu-edukien pisua garrantzitsua da. Komeni da edukiak ulermen-zailtasun txikienektik handienekora antolatzea; ahal den neurrian, ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabilia. Komeni da, beraz, azalpenetan gehiegi ez luzatzea eta apunteak edo diapositibak proiektatzeko aplikazio informatikoen erabilera sistematizatua ekiditea. Horien ordean, hobe da jarduerak prestatzea, banaka edota taldean egitekoak, ikasleek irakaskuntza-prozesuan parte har dezaten.

Esaterako, euskarri desberdinetan informazio-bilaketak egitea proposatu dakieke (liburuak, aldizkariak, Internet eta abar), hala nola irudiak biltzea, ikasmaterialak prestatzea, ikaskideen aurreko aurkezpenak egitea, ikasitako eduki teorikoak aplikatzeko galderak erantzutea eta ariketak egitea, kasu klinikoak aztertzea, terminologia medikoko hiztegia osatzea, eta abar. Jarduera horietan guztietan ikasleek modu aktiboan eta arduratsuan parte hartu behar dute.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduera horietan, funtsezkoa da ingurunera eta tituluak adierazten dituen lanbide-jardueretara egokitzea. Zehazki, hipotesien datuek eta ezaugarriek, garatu beharreko prozesuek, erabili beharreko dokumentuek, simulatutako egoerek eta abarrek esanguratsuak eta «ezagunak» izan beharko dute ikasleentzat.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak identifikatzea eta ezagutzea.
- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak deskribatzea; organoen eta egituren arteko harremanak deskribatzea; kokalekuak deskribatzea; alboko egiturekiko harremanak deskribatzea eta abar.
- ✓ Organoak, egiturak eta elementuak kokatzea.
- ✓ Oinarrizko eta ohiko patologietan inplikaturako prozesuak ezaugarritzea.
- ✓ Diagnostiko-, prebentzio- eta tratamendu-prozesu ohikoenak ezaugarritzea.
- ✓ Aparatuen eta sistemen funtzionamenduaren zeinuak identifikatzea, eta gaixotasunen zeinuak eta sintomak.
- ✓ Parametroak neurtzea, hala nola pultsua, temperatura, arteria-tentsioa edo gorputzeko diametroak.
- ✓ Fisiologia eta patologiarekin lotutako ariketak edo problemak ebatzea.
- ✓ Terminologia mediko-klinikoa erabiltzea.
- ✓ Dokumentuak eta testuak interpretatzea.



3. lanbide-modulua DIAGNOSTIKOAK EGITEA ETA PROZEDURAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Diagnostikoak egitea eta prozedurak
Kodea:	1517
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	165
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC2074_3: Termino klinikoak eta prozedura diagnostikoei eta/edo terapeutikoei buruzkoak dokumentu klinikoetatik erauztea.
Helburu orokorrak:	3 / 7 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Diagnostiko medikoak hautatzen ditu dokumentazio klinikoan, arreta-gertakariekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasunaren prozesu dinamikoa deskribatu du.
- b) Patologiaren eta klinikaren osagaiak zehaztu ditu.
- c) Dokumentazio klinikoko datuak ulertu ditu.
- d) Gaixotasun-taldeak zehaztu ditu.
- e) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- f) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoia balioetsi du.
- g) Familiaren eta norberaren aurrekari interesgarrien ezaugarriak zehaztu ditu.
- h) Gaixotasunaren ibilbidea edo bilakaera zehaztu du.
- i) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoan.
- j) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

2. Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak hautatzen ditu dokumentazio klinikoan, eta arreta-gertakariekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozedura diagnostikoak sailkatu ditu.
- b) Gaixotasunari aurre egiteko aukera terapeutikoak zehaztu ditu.
- c) Alta-txostenekeo eta gainerako dokumentazio klinikoko deskribapena ulertu du.
- d) Arreta-prozeduren sekuentzia ikuskatu du.
- e) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- f) Azterketa orokorrean deskribatutako datuak hauteman ditu.
- g) Azterketa osagarrietan deskribatutako datuak hauteman ditu.
- h) Arreta-gertakarian egindako prozedura kirurgikoak hauteman ditu.
- i) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoa.
- j) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

3. Diagnostiko eta prozedura onkologikoak hautematen ditu, neoplasien tratamenduko arreta-gertakariekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tumore motak sailkatu ditu.
- b) Onkologiako nomenklatura identifikatu du.
- c) Tumoreen termino histologikoak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoa.
- d) Neoplasiaren izaera primarioa edo sekundarioa eta gaiztotasun-portaera deskribatu ditu.
- e) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- f) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- g) Azterketa diagnostiko osagarriak identifikatu ditu.
- h) Egindako prozedura terapeutikoak identifikatu ditu.
- i) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoa.
- j) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

4. Diagnostiko eta prozedura obstetrikokoak ondorioztatzen ditu, haurdunaldiko, erditzeko eta erdiberriaroko arreta-gertakariekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurdunaldiko, erditzeko eta erdiberriaroko faseak sailkatu ditu.
- b) Haurdunaldiko, erditzeko eta erdiberriaroko balizko gertakariak sailkatu ditu.
- c) Alta-txostenekeo eta gainerako dokumentazio klinikoko gertakarien deskribapena ezagutu du.
- d) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- e) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- f) Azterketa diagnostiko osagarriak identifikatu ditu.
- g) Egindako prozedura obstetrikokoak identifikatu ditu.
- h) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoa.
- i) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.



5. Diagnostiko eta prozedura terapeutikoak identifikatzen ditu, lesioen eta traumatismoen arreta-gertakariekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haustura eta lokadura motak sailkatu ditu.
- b) Zauriak, lesioak eta erredurak deskribatu ditu.
- c) Alta-txosteneko eta gainerako dokumentazio klinikoko deskribapena ulertu du.
- d) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- e) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- f) Azterketa diagnostiko osagarriak identifikatu ditu.
- g) Egindako prozedura terapeutiko kirurgikoak eta ez-kirurgikoak identifikatu ditu.
- h) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoan.
- i) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

6. Diagnostiko eta prozedura terapeutikoak identifikatzen ditu, intoxikazioen arreta-gertakariekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontrako erreakzioen eta intoxikazioaren arteko desberdintasunak deskribatu ditu.
- b) Intoxikazioaren baldintzak sailkatu ditu.
- c) Alta-txosteneko eta gainerako dokumentazio klinikoko deskribapena ulertu du.
- d) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- e) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- f) Azterketa diagnostiko osagarriak identifikatu ditu.
- g) Egindako prozedurak identifikatu ditu.
- h) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoan.
- i) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

7. Diagnostiko eta prozedura terapeutikoak identifikatzen ditu, bestelako berariazko patologien arreta-gertakariekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasun endokrino adierazgarrienak zehaztu ditu.
- b) Nahasmendu oftalmologiko eta otorrinolaringologiko adierazgarrienak deskribatu ditu.
- c) Jaioberriaren patologia identifikatu du.
- d) Buruko nahasmenduak sailkatu ditu.
- e) Alta-txosteneko eta gainerako dokumentazio klinikoko deskribapena ulertu du.
- f) Arreta-sekuentzia ikuskatu du.
- g) Kontsultaren edo ospitaleratzearen arrazoiak zehaztu ditu eta egindako prozedura diagnostikoekin eta terapeutikoekin lotu ditu.
- h) Azterketa diagnostiko osagarriak identifikatu ditu.
- i) Egindako prozedurak identifikatu ditu.
- j) Terminologia- eta koherentzia-akatsak hauteman ditu alta-txostenean eta gainerako dokumentazio klinikoan.
- k) Datu mediko interesgarrien gidoia osatu du.

8. Diagnostikoen eta prozeduren gaineko terminoak erauzten ditu dokumentazio klinikotik, indexazio- eta kodetze-betekizunekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Terminoen bilaketa egiteko dokumentazioa hautatu du.
- Diagnostikoekin eta prozedurekin loturiko terminoak identifikatu ditu.
- Dokumentazio klinikoan erabili ohi diren siglak eta laburdurak ezagutu ditu.
- Dokumentazio klinikoko siglen eta laburduren esanahia azaldu du.
- Diagnostikoak eta prozedurak taldekatu ditu.
- Diagnostikoak eta prozedurak osorik erauzi ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. DIAGNOSTIKO MEDIKOAK HAUTATZEA DOKUMENTAZIO KLINIKOAN	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio klinikoko datu medikoak interpretatzea. - Dokumentazioaren zatiak eta osagaiak identifikatzea. - Agiri-sekuentzia identifikatzea, alta-txostenen gainekoa kasu. - Terminologia-akatsak hautematea. - Datu-mediko interesgarrien gidoia osatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuna eta gaixotasuna. Terminologia. Gaixotasunaren faseak. - Patologiaren iturriak. Etiologia. Fisiopatologia. Zantzuak eta sintomak. - Gaixotasun-taldeak. Saikapenak aztertzea. - Gaixotasunaren bilakaera. Faseak. Gorabeherak. - Osasun-dokumentazioko datu klinikoak. Asistentziak. Ospitaleratzeko arrazoiak. Aurrekari pertsonalak eta familiarak. Gaixotasunaren ibilbidea. Terminologia-akats ohikoenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentziasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetzaren lankideekin. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

2. PROZEDURA DIAGNOSTIKOAK ETA TERAPEUTIKOAK HAUTATZEA DOKUMENTAZIO KLINIKOAN	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prozedura diagnostikoak sailkatzea. - Erabilitako prozedura diagnostikoak sailkatzea. - Proba diagnostikoak hautatzea eta interpretatzea. - Erabilitako prozedura terapeutikoak identifikatzea eta interpretatzea. - Dokumentuak interpretatzea, alta-txostenak kasu. - Datu mediko interesgarrien gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan.



kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostikoa. Diagnostiko-baliabideak. - Anamnesi-teknikak. - Azterketa fisikorako teknikak. Behaketa, haztapena, perkusioa eta auskultazioa. - Azterketa osagarriak. Anlisi klinikoak. Irudi bidezko diagnostiko-teknikak. Pultsu elektrikoan neurketa: EKG, EEG, EMG. Endoskopiak. Azterketa zitologikoak eta anatomopatologikoak. - Tratamendua. Botikak. Ebakuntza kirurgikoak. Errehabilitazio-teknikak. Beste eragile terapeutiko batzuk.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

3. DIAGNOSTIKO ETA PROZEDURA ONKOLOGIKOAK IDENTIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Onkologian erabilitako terminologia ezagutzea. - Diagnostiko onkologikoa hautatzea dokumentazio klinikoan. - Egindako prozedura terapeutikoen bilduma. - Datu mediko onkologiko interesgarrien gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Neoplasiak. Sailkapena. Neoplasia onberak eta gaiztoak. Neoplasiak, kokapenaren arabera. Neoplasiak, histologiaren arabera. Beste batzuk. - Minbiziaren epidemiologia. - Onkologiako nomenklatura. - Tumoreen gaineko termino histologikoak. - Tumorearen hazkuntzaren biologia. Hazkuntza eta sakabanaketa. Neoplasia primarioak eta metastasia. - Tumore-zeinuak. Zeinu lokalak. Zeinu orokorrak. - Tumorearen mailaketa eta estadifikazioa. TNM sailkapena. - Onkologiako diagnostikoa. Teknikak eta ekipoak. - Onkologiako prozedura terapeutikoak. Erradioterapia. Kimioterapia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetzaren lankidetzekin. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

4. DIAGNOSTIKO ETA PROZEDURA OBSTETRIKOAK ONDORIOZTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Obstetrizian erabilitako terminologia ezagutzea. - Diagnostiko obstetrikoa hautatzea dokumentazio klinikoan. - Egindako prozedura obstetrikoen bilduma. - Datu mediko obstetrikiko interesgarrien gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurdunaldia. Faseak. Fetuaren hazkuntza (enbrioi-aroa eta fetu-aroa). - Proba diagnostikoak eta kontrol medikoak. Jaio aurreko diagnostiko-teknikak. - Erditzea. Faseak. Erditze-aurrea. Dilatazioa. Amniorrexia. Egozpena. - Erditze-ostea. Erdiberriaroa. - Haurdunaldiko gorabeherak. Haurdunaldi ektopikoa. Abortua. Haurdunaldiari eta erditzeari loturiko konplikazioak. - Erditzeko gorabeherak. Berezko erditzea eta erditze distozikoa. Erditze-aurreko nahasmenduak. Erditzeko konplikazioak. - Erditze-osteko eta erdiberriaroko konplikazioak. - Diagnostiko eta prozedura obstetrikokoak. Tresna bidezko erditzea. Zesarea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentziasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetzaren lankidetzekin. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

5. PROZEDURA DIAGNOSTIKOAK ETA TERAPEUTIKOAK IDENTIFIKATZEA LESIOETAN ETA TRAUMATISMOETAN	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Traumatologian erabilitako terminologia ezagutzea. - Traumatologiako dokumentazio klinikoaren arabera diagnostikoa hautatzea eta erazteak. - Egindako prozedura diagnostikoak hautatzea eta erazteak. - Lesio eta traumatismo interesgarrien datu medikoen gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan. - Egin ez diren prozedura terapeutiko kirurgikoak eta ez-kirurgikoak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hausturak eta lokadurak. Haustura patologikoak. Haustura traumatikoak. Motak. Ohiko kokapenak. Haustura irekiak eta itxiak. - Traumatologiako terminologia klinikoa. - Zauriak. Sailkapena. Tratamendua. - Lesioak. Mota ohikoenak. - Erredurak. Kausak. Mailak. Kaltetutako gorputz-zatiaren hedadura. - Traumatologiako diagnostikoak eta prozedurak.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetzeta lankideekin. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.
---------------------	---

6. PROZEDURA DIAGNOSTIKOAK ETA TERAPEUTIKOAK IDENTIFIKATZEA INTOXIKAZIOETAN

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Terminologia espezifikoa erabiltzea. - Intoxikazioen dokumentazio klinikoaren arabera diagnostikoa hautatzea eta erauzte. - Intoxikazioetan egindako prozedura terapeutikoak hautatzea eta erauzte. - Datu mediko interesgarrien gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Farmakologia. Ekintza terapeutikoak. Ekintza gaitzesgarriak. Kontrako ekintzak. - Botika-taldeak. Antibiotikoak eta bestelako infekzio-kontrakoak. Antikoagulatzaileak. Analgesikoak, sukar-kontrakoak eta hantura-kontrakoak. Lasaigarriak eta hipnotikoak. Diuretikoak. Beste batzuk. - Sendagaien aurkako erreakzioak. Alergiak. - Botiken eta produktu biologikoen ondoriozko intoxikazioak. - Sendagaiak ez diren beste substantzia batzuen ondorio toxikoak. - Intoxikazioaren baldintzak. Sailkapena.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

7. PROZEDURA DIAGNOSTIKOAK ETA TERAPEUTIKOAK IDENTIFIKATZEA BESTE PATOLOGIA BATZUETAN

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Patologia endokrinoan erabilitako terminologia ezagutzea. - Patologia oftalmologikoan erabilitako terminologia ezagutzea. - Patologia otorrinolaringologikoan erabilitako terminologia ezagutzea. - Patologia neonatologikoan erabilitako terminologia ezagutzea.
-----------------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Patologia psikiatrikoan erabilitako terminologia ezagutzea. - Berariazko diagnostikoak hautatzea dokumentazio klinikoan. - Egindako prozedurak hautatzea. - Datu mediko interesgarrien gidoia osatzea. - Terminologia-akatsak hautematea dokumentazio klinikoan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasun endokrinoak. Guruin endokrinoen fisiopatologia. Patologia endokrinoaren sailkapen orokorra. Hiperfuntzioa eta hipofuntzioa. - Azido-base orekaren nahasmenduak. - Nahasmendu oftalmologikoak. Patologia ohikoenak. - Nahasmendu otorrinolaringologikoak. Patologia ohikoenak. - Jaioberriaren patologia. Sortzetiko patologiak eta sindrome ohikoenak. - Buruko nahasmenduak. Patologia psikiatrikoaren sailkapena. Kanpo-eragileekiko mendekotasuna eta horien abusua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasunari eustea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetza lankideekin. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.

8. DIAGNOSTIKOEN ETA PROZEDUREN GAINKO TERMINOAK ERAUZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasunak kokatzea. - Proba diagnostikoak identifikatzea. - Prozedura terapeutikoak ezagutzea. - Siglak eta laburdurak identifikatzea. - Diagnostikoak hautatzea eta taldekatzea. - Prozedurak hautatzea eta taldekatzea. - Terminologia kliniko espezifiko erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kodetzeko dokumentu klinikoak. - Dokumentuetako terminologia klinikoa. Siglak eta laburdurak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna terminologiaren erabileran. - Zehaztasuna datuak interpretatzean eta erregistratzean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Zehaztasuna eta ordena datuak biltzean. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Araudia betetzea. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Lankidetza lankideekin. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Erantzukizunez jardutea laneko dokumentazioa eta materiala erabiltzean. - Balizko arazoak konpontzeko ekimena.



d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulua hasteko, 1. blokea landuko da: *Diagnostiko medikoak hautatzea*. Baita 2.a ere: *Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak hautatzea dokumentazio klinikoan*. Bi horiek alderdi orokorrak dituzte aipagai eta eduki zehatzagoei ekiteko abiapuntu gisa erabiliko dira.

Ondoren, orokortasun-irizpideen arabera, 8. blokea, *Diagnostikoen eta prozeduren gaineko terminoak erazte*a, landu daiteke, aurrez ikasitakoa osatzeko.

Azkenik, gainerako blokeak landuko dira, zehatzago erreparatzeko honakoak identifikatzeari: diagnostiko eta prozedura onkologikoak (3. blokea), obstetrikokoak (4. blokea), lesioen eta traumatismoen gainekoak (5. blokea), intoxikazioen gainekoak (6. blokea) eta beste patologia batzuen gainekoak (7. blokea). Horretarako, eduki-blokeetan proposatutako sekuentzia bera baliatu daiteke.

Nolanahi ere, irakasle bakoitzak edukien sekuentzia balioetsi beharko du, ikasleen ezaugarrien eta modulu honetako edukiek beste batzuetakoekin dituzten loturen arabera. Zehazki, modulu honek lotura handia du 2. moduluarekin, *Terminologia kliniko eta patologia*, eta elkarren osagarri dira; izan ere, honako modulu hau ulertzeko oinarritzko informazioa eskaintzen du. Halaber, modulu honetako edukiak 7. modulua (*Osasun-kodetzea*) lantzeko oinarria dira.

2) Alderdi metodologikoak

Irakasleak hautatutako lan-metodoa edozein dela ere, komeni da honako orientabide orokor hauek kontuan hartzea:

Lanbide-modulu honen bitartez, dokumentazio klinikoan termino klinikoak eta prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak identifikatzeko eta erazteko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratuko dira.

Unitate didaktikoetan, komeni da unitateari dagozkion plana eta edukiak ikasleei aurkeztea. Esaterako, galdetegi txiki bat betearazi diezaieke irakasleak, gaiari buruz dakitena egiaztatu, eta edukiak horretara egokitu ahal izateko.

Modulu honetan kontzeptu asko lantzen direnez, komeni da horiek guztiak ulertzeko zailtasun txikienetatik handienekora lantzea, eta ikasleen parte-hartzea eragiteko metodoak erabiltzea. Komeni da azalpenetan oinarritutako metodoak ekiditea, eta jarduerak proposatzea, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzeko. Hala, teoria eta praktika uztartu ditzakete, eta ikasitakoa aplikatu ikasgaiari loturiko ariketen ebazpenean.

Edukiak, zenbaitetan, oso orokorrak dira, eta ez dute zehazten zein prozesu ikasi behar diren. Moduluaren irakasleari dagokio edukiak zehazteko ardura, patologien eta proba diagnostiko zein terapeutikoen agerpen-maiztasuna eta konplexutasuna kontuan hartuta beteko duena.

Irakasleak rol desberdinak bete ditzake, egoki denaren arabera. Moduluaren hasieran, irakasleak gidatuko du prozesua, baina, aurrera egin ahala, ikasleek protagonismo handiagoa hartuko dute ikaskuntzan: irakasleek laguntza eta orientabideak emango dizkiete kasuak ebazteko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Termino adierazgarriak eta diagnostiko zein prozedura terapeutikoak erazteko tekniken ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Diagnostiko mediko eta prozedura diagnostiko zein terapeutiko batzuen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Terminoak definitzea.
- ✓ Datu mediko interesgarrien gidoiak osatzea.
- ✓ Terminologia mediko-klinikoa erabiltzea.
- ✓ Diagnostiko medikoak hautatzea dokumentazio klinikoan.
- ✓ Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak hautatzea dokumentazio klinikoan.
- ✓ Diagnostikoen eta prozeduren gaineko terminoak eraztea dokumentazio klinikotik.
- ✓ Diagnostiko eta prozedura onkologikoak identifikatzea.
- ✓ Diagnostiko eta prozedura obstetrikokoak identifikatzea haurdunaldian, erditzean eta erditzeberriaroen.
- ✓ Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak identifikatzea lesioetan eta traumatismoetan.
- ✓ Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak identifikatzea intoxikazioetan.
- ✓ Prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak identifikatzea beste patologia batzuetan.
- ✓ Material eta bitarteko lagungarriak interpretatzea eta kontsultatzea.



4. lanbide-modulua OSASUN-ARTXIBOA ETA -DOKUMENTAZIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa
Kodea:	1518
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	132
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Prozedura sanitario eta asistentzialak (Irakasle teknikoa edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC2072_3: Dokumentuen eta historia klinikoen fitxategiak kudeatzea. UC2073_3: Dokumentu-tratamendua eta informazio-sistema kliniko-asistentziala garatzea eta normalizatzea.
Helburu orokorrak:	4 / 5

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Osasun-zentroen dokumentu-beharren ezaugarriak zehazten ditu, zentro motarekin eta dokumentuen eginkizunekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-zentroetan erabili ohi diren dokumentu motak eta horien eginkizunak deskribatu ditu.
- b) Dokumentuen informazio-fluxuak, kanalak eta zirkuituak deskribatu ditu.
- c) Historia kliniko eta dokumentu propioen eta kidetuen eginkizunak eta motak zehaztu ditu.
- d) Araudi baten peko dokumentuen ezaugarriak azaldu ditu.
- e) Osasun-zentroko dokumentu-katalogoaren ezaugarriak, osaera eta eginkizunak deskribatu ditu.
- f) Aplikatzekoa den araudia egiaztatu du.

2. Osasun-dokumentazioa diseinatu eta osatzen du, dokumentuak normalizatzeko irizpideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentuak normalizatzeko printzipio nagusiak deskribatu ditu.
- b) Dokumentuak diseinatzeko teknikak eta horien aplikazioak deskribatu ditu.
- c) Dokumentuei loturiko kontsumoen eta kostuen hobekuntza esplikatu du.
- d) Ereduzko dokumentuak diseinatu ditu.
- e) Dokumentu bizien gabetasunak aztertu eta zuzendu ditu.
- f) Dokumentuak osasun-araudira, datuen babesera eta zentroko dokumentu-politikara egokitzen direla egiaztatu du.
- g) Paper-euskarriko dokumentuak euskarri digitalera aldatu ditu.
- h) Diseinatutako dokumentuak zentroko dokumentu-katalogoan erregistratu ditu.

3. Dokumentazio klinikoaren kalitatea egiaztatzen du, normalizatzea eta funtzionaltasuna hobetuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentuak ebaluatzeko metodoak deskribatu ditu, ezaugarriak, abantailak eta eragozpenak azalduta.
- b) Egindako ikerlanak balioetsi ditu: inkestak, gogobetetze-azterlanak eta ateratako ondorioak.
- c) Dokumentu baten alderdi formalen egokitasuna egiaztatu du.
- d) Dokumentazioaren betetze-maila aztertu du.
- e) Osasun-zentroetako dokumentazio-batzordeen eginkizunak deskribatu ditu.
- f) Dokumentuaren ebaluazio formalerako protokoloak egin ditu.
- g) Protokoloak aplikatu ditu, dagokien ebaluazioa eta hobetzeko aukerak zehaztuta.

4. Historia klinikoak kudeatzen ditu dokumentu-ikuspegitik, berariazko edukia eta erantsitako beste dokumentu batzuekiko lotura egiaztatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Historia klinikoen dokumentuen, edukien, eginkizunen eta erabiltzaileen ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Historia kliniko motak aztertu ditu.
- c) Historia klinikoak egituratu ditu, edukien eta bestelako eskakizunen arabera.
- d) Historiak osasun-dokumentazioa normalizatzeko prozesura eta lege-eskakizunetara egokitzen diren egiaztatu du.
- e) Dokumentu lagungarriak aztertu ditu, historia klinikoari lotuak.
- f) Historia klinikoen zirkulazio-fluxuak azaldu ditu.
- g) Historia klinikoaren eremu administratiboko atalak bete ditu.
- h) Historia kliniko elektronikoak kudeatu ditu, berariazko aplikazioen bitartez.

5. Osasun-dokumentazioaren artxihoak kudeatzen ditu, informazioaren tratamendua hobetuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioaren tratamendua eta baliabideen erabilera hobetzeko artxibo-eredua hautatu du.
- b) Artxihoaren banaketaren proiektua egin du, hobetzeko.



- c) Historia klinikoak eta erantsitako dokumentuak artxibatu ditu, irizpide mota desberdinen arabera.
- d) Artxiboaren egoera kontrolatzeko eta ebaluatzeko metodoa programatu du.
- e) Unitateek eska ditzaketen historia klinikoak eta bestelako dokumentuak topatzeko, mailegatzeko eta itzultzeko prozesuen plangintza egin du.
- f) Indarrean dagoen osasuneko oinarrizko araudia aplikatu du.
- g) Horretara bideratutako tresna informatikoak erabili ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. OSASUN-ZENTROEN DOKUMENTU-BEHARREN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Administrazio- eta arreta-dokumentu motak identifikatzea. - Administrazio- eta arreta-dokumentu mota desberdinak erabiltzea. - Askotariko dokumentuak sailkatzea. - Osasun-dokumentazioari buruzko araudia aplikatzea. - Osasun-dokumentazioari buruzko araudia kontsultatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio orokorra. Motak. Atalak. - Osasun-zentroetako informazio-zirkuituak. - Osasun-dokumentazio administratiboa eta arretari buruzkoa. Ezaugarriak. Elementuak. Erabilerak. - Arauzko erregulazioa duten dokumentuak. Alta-txosten klinikoak, baimen informatua eta aurretiazko jarraibideak dituzten dokumentuak. Beste dokumentu batzuk. - Ofizio judizialak. Justizia-administrazioarekiko harremana. - Osasun-dokumentazioari aplikatzekoa den indarreko araudia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Segurtasun-araudia betetzea. - Datuen konfidentziasunari eustea. - Legedia ezagutzeko interesa. - Dokumentu bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak zorrotz zehaztea. - Indarrean dagoen araudia errespetatzea. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Dokumentazioa normalizatzeko interesa. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean.

2. DOKUMENTU KLINIKO-ASISTENTZIALAK DISEINATZEA ETA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuen edukiak aztertzea. - Historia klinikoan erabili daitezkeen dokumentuak hautatzea. - Dokumentuak diseinatzeko eta egiteko teknikak aplikatzea. - Dokumentu biziak aztertzea eta gabetasunak zuzentzea. - Diseinatzeko eta tratamendu grafikorako aplikazio informatikoak erabiltzea. - Kontsumoak eta kostuak kalkulatzeko. - Dokumentuak zentroko dokumentu-katalogoan erregistratzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak egiteko eta diseinatzeko teknikak. Dokumentu baten osagaiak. Dokumentu klinikoak diseinatzeko lerroak eta gidak. Akats eta disfuntzio ohikoenak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak normalizatzea. - Diseinatzeko eta tratamendu grafikorako aplikazio informatikoak. - Dokumentazioari loturiko kontsumoak eta kostuak. - Lehen mailako arretan eta arreta espezializatuan erabilitako erregistroa eta dokumentuak. - Dokumentu-araudia. Datuak babestea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasuna protokoloak eta erabilera-argibideak betetzean. - Segurtasun-araudia betetzea. - Datuen konfidentziasunari eustea. - Legedia eta aurrerapen teknologikoak ezagutzeko interesa. - Lankidetzaren lankideekin. - Dokumentu bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak zorrotz zehaztea. - Indarrean dagoen araudia errespetatzea. - Historia klinikoaren gaineko erregelamendua arretaz betetzea. - Eraginkortasuna materialen erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Dokumentazioa normalizatzeko interesa. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean.

3. DOKUMENTAZIO KLINIKOAREN KALITATEA EGIAZTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-dokumentazioaren kalitatea kudeatzeko teknikak aplikatzea. - Kalitatea kontrolatzeko azterlanak diseinatzea. - Inkestak egiteko metodologia aplikatzea. - Historia klinikoaren kalitate-kontrola. - Dokumentazioaren betetze-maila aztertzea. - Dokumentuen kalitatea ebaluatzeko protokoloak egitea eta aplikatzea. - Inkesten, gogobetetze-azterlanen eta ateratako ondorioen balorazioa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kalitatea kontrolatzeko eta ebaluatzeko programak. - Gogobetetze-inkestak. Elaboratzeko metodologia - Kalitatea kontrolatzeko protokoloak diseinatzeko metodologia. - Dokumentuen kalitatea kontrolatzeko metodoak. - Osasun-dokumentazioari aplikatutako ikuskaritza. Motak. - Osasun-zentroetako dokumentazio-batzordeak. Eginkizunak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez erregistratzea datuak. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Datuen konfidentziasunari eustea. - Lankidetzaren lankideekin. - Jarduketa bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak zorrotz zehaztea. - Dokumentazioaren kalitatea ebaluatzeko eta sustatzeko eginkizunetan tematzea. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Kasuko erabiltzaileen ezaugarrietara egokitzearen interesa. - Indarrean dagoen araudia errespetatzea. - Eraginkortasuna materialen erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Argitasuna eta ordena sortutako informazioa erabiltzean.



4. HISTORIA KLINIKOAK KUDEATZEA, DOKUMENTUEN IKUSPEGITIK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Historia kliniko motak eta horien osagaiak identifikatzea. - Jatorrira zuzendutako historia kliniko bateko dokumentuen egitura eta eduki-blokeak aztertzea. - Historia klinikoko administrazio-atalak betetzea. - Historia klinikoa kudeatzeko teknikak aplikatzea. - Historia klinikoa erabiltzeko araudia interpretatzea. - Historia klinikoa erabiltzeko erregelamendua aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Historia klinikoetako dokumentuen ezaugarriak. Edukiak. Atalak. Eginkizunak. Historia klinikoaren erabiltzaileak. - Historia klinikoaren lege- eta arau-betekizunak. - Historia klinikoaren ezaugarriak. Historia motak (ohikoa eta elektronikoa). - Historia klinikoko dokumentuak normalizatzearen alderdi bereziak. - Historia klinikoa erabiltzeko eta betetzeko erregelamendua. - Jatorrira zuzendutako historia kliniko bateko dokumentuen egitura eta eduki-blokeak. - Dokumentuak, paperezkoak ez diren euskarrietan. - Dokumentu espezifikoak. Alta-txostena. - Ospitaleko dokumentu-katalogoa. Edukia. Eginkizunak. - Historia kliniko elektronikoa/historia digitala.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez erregistratzea datuak. - Zorroztasuna protokoloak eta erabilera-argibideak betetzean. - Segurtasun-araudia betetzea. - Datuen konfidentziasunari eustea. - Aurrerapen teknologikoak ezagutzeko interesa. - Lankidetzeta lankideekin. - Dokumentu bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak zorrotz zehaztea. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Kasuko erabiltzaileen ezaugarrietara egokitzeko interesa. - Indarrean dagoen araudia errespetatzea. - Historia klinikoaren gaineko erregelamendua arretaz betetzea. - Eraginkortasuna materialen erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean.

5. OSASUN-DOKUMENTAZIOAREN ARTXIBOA KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Historia klinikoak artxibatzeke teknikak aplikatzea, irizpide desberdinen arabera. - Historia klinikoak askotariko artxibo-sistemetan aurkitzeko teknikak aplikatzea. - Historia klinikoak desartxibatzeke teknikak aplikatzea. - Historia-klinikoen artxiboko sarreren eta irteeren erregistroa betetzea. - Txostenak egitea. - Eskuliburuak eta araudi zein legedi aplikagarria kontsultatzea. - Indarreko lege-araudia aplikatzea artxiboan - Artxiboaren kalitate-kontrolak egitea eta kalitate-adierazleak erabiltzea.

<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ospitaleko artxibo klinikoak, sarrera eta kontzeptua. Artxibo motak. Instalazioak. Dokumentazio-teknikariaren eginkizunak. Beste profesional batzuekiko harremana. - Historia klinikoen artxibo nagusiaren eginkizunak. - Antolaketa- eta artxibo-sistemak. Artxibatze eta desartxibatze teknika. - Artxiboa eta teknologia berriak. - Historia klinikoen artxibo nagusiaren jarduera-adierazleak eta kalitate-kontrola. - Artxiboa, irakaskuntzaren eta ikerketa biomedikoaren laguntza-unitatea. - Osasunaren arloko indarreko legedia aplikagarria (Osasunaren 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa; 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen Autonomiari eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubide eta Betebeharrena; 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesarena; eta 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Osan-lanbideak Ordenatzekoa). - Indarreko legedia autonomikoa (8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena; 175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetzako pazienteen eskubideen eta betebeharren gainekoa; eta 38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta dokumentazio klinikoari buruz pazienteek eta osasuneko profesionalak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa).
<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez erregistratzea datuak. - Zehaztasuna protokoloak betetzean. - Artxiboko segurtasun-araudia betetzea. - Datuen konfidentzialtasunari eustea. - Legedia eta artxibaketari loturiko aurrerapen teknologikoak ezagutzeko interesa. - Lankidetzak lankideekin. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa. - Kasuko erabiltzaileen ezaugarrietara egokitzeko interesa. - Indarrean dagoen araudia errespetatzea. - Historia klinikoaren gaineko erregelamendua arretaz betetzea. - Eraginkortasuna materialen erabileran. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Argitasuna eta ordena informazioa erabiltzean.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziak

Modulua hasteko, 5. blokea landuko da: *Osasun-dokumentazioaren fitxategia kudeatzea*. Osasunaren arloan aplikagarri den araudiari buruzkoa da eta moduluko gainerako edukia ikasteko oinarria ematen du.

Ondoren, 1. blokean, *Osasun-zentroetako dokumentu-beharren ezaugarriak zehaztea*, deskribatutako dokumentu eta zirkuitu motak landuko dira. Ondoren, historia klinikoko



dokumentuak aztertuko dira, hala nola historia kliniko motak, paper-euskarrian zein euskarri elektronikoa (4. blokea). Dokumentuak diseinatzeko eta egiteko teknikak eta arauak ere aztertuko dira (2. blokea), aurreko blokean ikasitako dokumentuak diseinatzeko erabili behar direnak.

Azkenik, 3. blokea ikasiko da: *Dokumentazio klinikoaren kalitatea egiaztatzea*. Dokumentuen kalitatea kontrolatzeko metodoak aztertuko dira, besteak beste, auditoretzak.

Aurreko atalean deskribatutako edukietako batzuk (gogobetetze-inkestak kasu) beste modulu batzuetan ere landuko dira. Horrenbestez, ezinbestekoa da irakasle-taldea koordinatzea eta modulu bakoitzean landuko diren alderdiak eta horien sakontasun-maila adostea, alferrik ez errepikatzeke.

2) Alderdi metodologikoak

Irakasleak hautatutako lan-metodoa edozein dela ere, komeni da honako gomendio hauek kontuan hartzea:

Unitate didaktikoa aurkeztea beti da komenigarria, ikasleek unitatea ezagutu dezaten. Galdetegi bat betearaztea, iruzkinen bat egitea edo eztabaida bat proposatu dakieke, gaiari buruz dakitena egiaztatu, eta edukiak egokitu ahal izateko.

Unitate didaktiko bakoitzean hiru eduki mota aztertuko dira. Kontzeptu-edukiak prozedurazkoen beharren arabera irakatsiko dira; alegia, ez lehenago ez geroago, eta irakasleak erabakiko du unean-unean komeni dena, informazio motari erreparatuta (esaterako, alta-txostenaren ezaugarriak azaldu beharko zaizkie txostena bete duten modua ebaluatu aurretik).

Kontzeptu-eduki gehiagoko unitate didaktikoren bat ezartzen bada, 1. blokea kasu, historia klinikoa osatzen duten dokumentuen deskribapenari buruzkoa, horren edukiak ulertzeko zailtasun gutxienekotik handienekora ordenatzea komeni da, eta ikaslearen inplikazioa sustatzeko metodoak erabiltzea; esaterako, dokumentazioa biltzea eta ospitaletan izandako esperientziaren bat azaltzea, dokumentu-eredu errealak aztertzea eta balioestea eta abar. Horretarako, azalpenetan oinarritutako metodoen gehiegizko erabilera saihestu behar da, pasibotasuna ekidin eta parte-hartzea sustatzeko.

Protokoloak eta arau-eskuliburuak maiz erabili beharreko bitartekoak dira, kontuan hartu beharrekoak irakaskuntza-metodologian, lana zuzentzeko erabiliko dira-eta. Hainbat ospitaleren eskuliburu errealak erabiliko dira, ezaugarri jakin batzuk dituen osasun-zentrorra egokitutako eskuliburua osatu ahal izateko. Hala, ikasleek lanbide-profila garatu ahal izateko beharrezkoa den autonomia eskuratuko dute.

Lanbide-modulu honek barne hartzen du osasun-dokumentuen kudeaketa-lanak egiteko beharrezkoa den prestakuntza, historia klinikoak eta horiek artxibatzekeo premiak barne. Horiek ikasteko, egin beharreko jardueren simulazioak egingo dira ikasgelan. Zenbait lan-egoera proposatu daitezke: historia klinikoko dokumentuak diseinatzea, egitea eta betetzea, osasun-zentro batzuen eredu errealak aztertuta; historiak kudeatzea ospitaleko fitxategian (artxibatzea, artxibotik kentzea, garbitzea, pasibora transferitzea eta abar), ikasleak kurtsoz kurtso egindako lan pertsonalekin elikatuko den historia klinikoaren datu-

basea eta fitxategi txiki bat erabiliz; betetako dokumentuen kalitatea eta pazienteen gogobetetzea ebaluatzea, ikasleek ebaluatuko dituzten alta-txostenen eta ospitale-inkesten bitartez eta abar.

Osasun-zentro batera bisitaldia antolatu daiteke, artxibo handi eta konplexu bat duen ospitale batera hain zuzen, ikasketa-zentroan zaila baita horrelako artxibo bat simulatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Dokumentu klinikoaren ezaugarriak.
- ✓ Dokumentuen eginkizunen, atalen eta osagaien deskribapena.
- ✓ Dokumentuak sailkatzea.
- ✓ Terminologia klinikoa erabiltzea.
- ✓ Dokumentu klinikoak, eskuliburuak eta testuak interpretatzea.
- ✓ Dokumentuak diseinatzea, zentroen premien arabera.
- ✓ Dokumentu normalizatu desberdinak betetzea.
- ✓ Dokumentuak normalizatzaren azterketa.
- ✓ Historia klinikoaren ezaugarriak, eginkizunak eta osagaiak zehaztea.
- ✓ Historia klinikoaren erabilera-eskuliburua egiteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Zentroko dokumentu-fluxua kontrolatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Historia klinikoak kudeatzeko eta informatikoki erregistratzeko teknikak aplikatzea eta artxibatze-teknikak erabiltzea.
- ✓ Dokumentuen kalitatea egiaztatze teknikak aplikatzea.
- ✓ Artxiboaren mantentze-lanak eta kudeaketa.
- ✓ Indarrean dagoen legeria eta araudia bilatzea.
- ✓ Araudia interpretatzea eta aplikatzea.



5. lanbide-modulua

INFORMAZIO- ETA SAILKAPEN-SISTEMAK OSASUN-ARLOAN

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan
Kodea:	1519
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	165
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC2075_3: Osasun-dokumentaziotik erauzitako datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea.
Helburu orokorrak:	6 / 13 / 14

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Osasuneko informazio-sistema bat sortzeko prozesuan behar diren osagaien ezaugarriak zehazten ditu eta osasun-jardueren gako faktoreekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Osasun-informazioaren prozesua eta motak deskribatu ditu.
- Osasuneko informazio-sistema baten osagaiak zehaztu ditu.
- Osasun-jardueren gako-osagaiak aztertu ditu.
- Osasuneko informazio-sistema baten erabilgarritasuna azaldu du.
- Osasuneko informazioan estandarrak erabiltzearen premia balioetsi du.
- Datuen, informazioaren eta ezagutzaren areko lotura deskribatu du.

2. Gaixotasunen nazioarteko sailkapen-sistema motak baliatzen ditu, hala nola terminologia motak, bakoitzaren aplikazio-esparrua zehaztuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Kodetzearen premia eta erabilgarritasuna azaldu du.
- Egungo gaixotasun-sailkapenen sistemak zehaztu dituzten aurrekari historikoak aipatu ditu.

- c) Osasunaren Mundu Erakundeak erabiltzen dituen osasuneko sailkapen eta terminologia motak deskribatu ditu.
- d) Sailkapenaren eta terminologiaren arteko desberdintasunak adierazi ditu.
- e) Gaixotasunak sailkatzeko sistema moten arteko desberdintasunak zehaztu ditu.
- f) Lehen mailako arretaren nazioarteko sailkapenaren eta gaixotasun onkologikoen nazioarteko sailkapenaren berezitasunak adierazi ditu.

3. Gaixotasunen nazioarteko sailkapena osatzen duten zatiak eraginkortasunez erabiltzen ditu, dagozkion erabilera-irizpideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasunen nazioarteko sailkapena osatzen duten zatiak zehaztu ditu.
- b) Aurkibide alfabetikoetan erabilitako termino nagusiak, funtsezko aldatzaileak eta funtsezkoak ez direnak ezarri ditu.
- c) Zerrenda tabularrak egituratuta dauden zatiak aipatu ditu.
- d) Sailkapen gehigarriak erabili ditu.
- e) Gaixotasunen nazioarteko sailkapenean erabiltzen diren kodeen egitura adierazi du.
- f) Gaixotasunen nazioarteko sailkapenean erabiltzen diren laburdurak, puntuazioa, sinboloak, jarraibideak, oharrak, aipamen gurutzatuak eta loturiko terminoak identifikatu ditu.

4. Gaixotasunen nazioarteko sailkapeneko kodeak hautatzen ditu, egindako diagnostikoa eta jarraitutako prozedura arreta eman aurretik ondorioztatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kodetze-prozesuak erabilitako dokumentu-iturriak zehaztu ditu.
- b) Gako-hitzak erauzi ditu dokumentuetatik.
- c) Kodeak esleitzeko aurkibide alfabetikoak erabili ditu.
- d) Aurkibide alfabetikoetako eta zerrenda tabularretako jarraibideak, oharrak, aldatzaileak eta bestelakoak erabili ditu.
- e) Aurkibide alfabetikoetan lortutako kodeak egiaztatu ditu zerrenda tabularretan.
- f) Kode egokiak behin betiko esleitu ditu.

5. Datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzeko Estatuan eta autonomia-erkidegoetan ezarritako araudiak aplikatzen ditu, aplikazio-esparrua ezagututa.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak zehaztu ditu.
- b) Gertakari bakoitzari dagokion araudia hautatu du.
- c) Estatuko Osasun Sistemaren gaixotasunen nazioarteko sailkapenari buruzko argibideak unitate teknikoari eskatzearen egokitasuna defendatu du.
- d) Unitate teknikoaren egitura eta osaera azaldu du, Estatuko Osasun Sistemaren gaixotasunen nazioarteko sailkapenari dagokionez.
- e) Kodetze-eskuliburuaren erabilgarritasuna zehaztu du.
- f) Kodetze-buletinetan bildutako informazioa zehaztu du.
- g) Araudia modu homogineoan aplikatzeko irizpideak aplikatzea balioetsi du.

6. Diagnostikoak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta araudi orokorra aplikatuz.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) «Diagnostiko nagusia» eta «Bestelako diagnostikoak» kontzeptuak zehaztu ditu.
- b) Konbinazio eta kodetze anizkoitzeko kodeak esleitu ditu, araudia betez.
- c) Prozesu akutuak, azpiakutuak eta kronikoak kodetu ditu.
- d) Diagnostiko nagusia izan daitezkeen bi diagnostiko edo gehiago daudela aitortu du.
- e) Etiologia probable bat baino gehiago identifikatu ditu.
- f) Susmatutako diagnostikoak, baztertutakoak eta baztertu gabeak, diagnostiko nagusi gisa ezarri ditu.
- g) Aurretiazko eraginak eta ezohiko aurkikuntzak aintzatetsi ditu.
- h) *Present on admission* motako kodeen esleipena arrazoitu du.

7. Prozedurak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta araudi orokorra aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) «Prozedura nagusia» eta «Bestelako prozedurak» kontzeptuak zehaztu ditu.
- b) Konbinazio eta kodetze anizkoitzeko kodeak esleitu ditu, araudia betez.
- c) Prozedura baten teknika inplizituak arrazoitu ditu.
- d) Teknika endoskopikoak identifikatu ditu eta araudia aplikatu du.
- e) Prozedura diagnostiko motak identifikatu ditu.
- f) Prozedura osagabeak, egin gabeak eta ireki bihurtutako prozedura endoskopikoak identifikatu ditu.

8. Kodetzeko prozesu espezifikoak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Diagnostiko nagusi edo sekundario gisa hautatu ditu zeinuak eta sintomak.
- b) Aurkikuntza ezohikoak identifikatu ditu.
- c) Berariazko araudi egokia hautatu du.
- d) Lesioak eta intoxikazioak zuzen kodetu ditu.
- e) Zainketa medikoen eta kirurgikoen konplikazioei dagozkien kodeak erauzi ditu.
- f) Osasun-egoeran eta osasun-zerbitzuekiko harremanetan eragiten duten faktoreak kontuan hartuta egin du kodeketa.
- g) Lesioen eta intoxikazioen kanpo-arrazoiak jaso ditu kodetze-prozesuan.

c) Oinarrizko edukiak:

1. OSASUNeko INFORMAZIO-SISTEMA BAT SORTZEKO OSAGAIEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuneko informazio-sistemen osagaiak identifikatzea. - Informazio motak identifikatzea. - Datu klinikoak eta ez-klinikoak hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa osasunaren esparruan. Informazioaren ezaugarriak eta informazio-prozesua. Informazio motak. - Osasuneko informazio-sistemak. Egitura. Osagaiak. Datu klinikoak

	<p>eta ez-klinikoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Osasuneko informazio-sistemak lehen mailako arretan eta arreta espezializatuan. - Osasuneko informazio-sistemen erabilera eta erabilgarritasuna. - Osasuneko informazioaren estandarrak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

2. GAIOTASUNAK SAILKATZEKO SISTEMAK ERABILTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sailkapen-sistema motak eta horien osagaiak identifikatzea. - Gaixotasunak sailkatzeako sistemak aplikatzea. - Sailkapen-sistema hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kodeketa. Prozesua. Erabilerak. - Gaixotasunak sailkatzeako sistemen aurrekari historikoak. - Osasunaren Mundu Erakundeak erabiltzen dituen indarreko sailkapenak eta terminologia. Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, bederatzigarren berrikuspena, Aldaketa kliniko (GNS-9-AK); Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, hamargarren berrikuspena (GNS-10); eta beste batzuk. - Indarrean dauden beste sailkapen batzuk, tartean, Lehen Mailako Arretaren Nazioarteko Sailkapena, bigarren edizioa (LMANS-12), eta Onkologiako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena (OGNS).
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

3. GNS-REN OSAGAIEN ERABILERA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Termino nagusiak, funtsezko aldatzaileak eta funtsezkoak ez direnak identifikatzea aurkibide alfabetikoetan. - GNSren atalak identifikatzea. - Sailkapenen erabilera. - Jarraibideak, oharrak eta aipamen gurutzatuak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasunen aurkibide alfabetikoa. - Prozeduren aurkibide alfabetikoa. - Prozeduren zerrenda tabularra. - Kodeen egitura. - Konbentzioak formatuan eta tipografian. - Erabilera-jarraibideak. Laburdurak, puntuazioa eta sinboloak.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.
---------------------	--

4. GNS-REN KODEAK HAUTATZEA. KODETZE-PROZEDURA OROKORRA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arreta-gertakariak indexatzea. - Dokumentu-iturriak hautatzea eta erabiltzea. - Informazio gehigarria bilatzea. - Gako-hitzak identifikatzea. - Gaixotasunen eta prozeduren aurkibide alfabetikoko kodea hautatzea. - Gaixotasunen eta prozeduren zerrenda tabularreko kodea hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arreta-gertakaria indexatzeko sistemak. - Kodelte-prozesuan beharrezkoak diren dokumentu-iturriak. - Diagnostikoa eta prozedurak adierazteko gako-hitzak. - Kodelte-teknika orokorra.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

5. INDARREAN DAGOEN GAIXOTASUNEN NAZIOARTEKO SAILKAPENAREN ARABERA KODETZEKO ARAUDIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudia hautatzea. - Kodelte-eskuliburuak erabiltzea. - Dagokion unitate teknikoari galdera eta kontsulta egokiak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarrean dagoen legeria. Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia. - Ameriketako araudia. Eskuliburuak. - Kodelte-buletinak. - Gaixotasunen nazioarteko sailkapenerako unitate teknikoa dagokion erakunde, zentro edo organismo ofizialerako. Egitura eta konposizioa. Eginkizunak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

6. INDARREAN DAGOEN GAIXOTASUNEN NAZIOARTEKO SAILKAPENAREN ARABERA DIAGNOSTIKOAK KODETZEKO ARAU OROKORRAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuan kasuko diagnostikoa identifikatzea. - Kasuan kasuko diagnostiko nagusia hautatzea. - Kasuan kasuko diagnostikoa kodetzea. - Konbinazio eta kodetze anizkoitzeko kodeen araudia aplikatzea. - Prozesu akutuak, azpiakutuak eta kronikoak kodetzea eta horren gaineko araudia aplikatzea. - Kasu bereziak identifikatzea eta kodetzea: diagnostiko nagusia izan daitezkeen bi diagnostiko edo gehiago dituztenak, etiologia probable bat baino gehiagoak eta diagnostiko nagusizat hartutako susmatutako diagnostiko baztertuak eta baztertu gabeak dituztenak. - Kasuan kasuko POA baldintza identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Diagnostiko motak. Diagnostiko nagusia eta sekundarioa. Diagnostiko anatomopatologikoa. - Diagnostikoen sailkapena. Konbinazio eta kodetze anizkoitzeko kodeak. Prozesu akutuak, azpiakutuak eta kronikoak. - Beste datu kliniko interesgarri batzuk. Aurretiazko kalteak. Aurkikuntza ezohikoak. - Ospitaleratze-diagnostikoko markatzaileak erabiliz kodetzea (<i>Present on admission-POA</i>).
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

7. INDARREAN DAGOEN GAIXOTASUNEN NAZIOARTEKO SAILKAPENAREN ARABERA PROZEDURAK KODETZEKO ARAU OROKORRAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuan kasuko prozedurak identifikatzea. - Prozedura nagusia hautatzea. - Konbinazio eta kodetze anizkoitzeko kodeak esleitzeko araudia aplikatzea. - Biopsiak kodetzea. - Prozedura baten teknika inplizituak ezagutzea. - Teknika endoskopikoak kodetzea. - Kasu bereziak identifikatzea eta kodetzea, tartean, prozedura osagabeak, egin gabeak eta ireki bihurtutako prozedura endoskopikoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prozedura motak. Prozedura diagnostiko eta terapeutiko ez-kirurgikoak eta kirurgikoak. Biopsiak. - Prozeduren sailkapena. Kodetze anizkoitza eta konbinazio-kodeak. - Prozedura adierazgarrienak. Prozedura baten teknika inplizituak. Irekitzea eta ixtea. - Laparoscopia-, torakoscopia- eta artroskopia-prozedurak eta bestelako endoskopioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea.



	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.
--	---

8. INDARREAN DAGOEN GAIXOTASUNEN NAZIOARTEKO SAILKAPENAREN ARABERA DIAGNOSTIKOAK KODETZEKO PROZESUA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oker definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak kodetzeko arauak aplikatzea. - Lesioak eta intoxikazioak kodetzea. - Lesioen eta intoxikazioen kanpo-arrazoiak hautatzea eta kodetzea. - Zainketa medikoen eta kirurgikoen konplikazioak kodetzea. - Osasun-egoeran eta osasun-zerbitzuekiko harremanetan eragiten duten faktoreak kodetzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oker definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak. - Lesioak eta intoxikazioak. Lesioen eta intoxikazioen kanpo-arrazoiak. Arau orokorrak. Nahitaezkotasuna. Kanpo-arrazoien sailkapena. - Lesioak eta zauriak. Buru-garuneko traumatismoak. Erredurak. Intoxikazioak. - Botiken kontrako erreakzioak. - Eragin berantiarrak. - Konplikazioak zainketa medikoan eta kirurgikoan. - Osasun-egoeran eta osasun-zerbitzuekiko harremanetan eragiten duten faktoreen sailkapena. Diagnosi nagusi edo sekundario gisa erabiltzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Protokoloak zorrotz betetzea. - Zehaztasuna hizkuntzaren erabileran. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Osasuneko informazio-sistemekin loturiko edukiekin (1. blokea) eta gaixotasunak sailkatzeko sistemekin (2. blokea) hasiko da modulua, prozesuaren oinarriak ezartzeko eta gainerako edukien helburua zein horiei loturiko lanbide-jardueraren garrantzia ulertzeko lagungarriak direlako.

Ondoren, GNSren osagaiak ikasiko dira (3. blokea), eta kodetze-prozesu orokorra (4. blokea). Kodetzeari buruzko araudietan (5. blokea), gainerako edukiak ikasteko eta etorkizuneko lanbide-jardueran beharko dituen eskuliburuak eta bitartekoak aurkeztuko dira.

Ondoren, diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko arau orokorrak landu daitezke (6. eta 7. blokeak hurrenez hurren), eta, azkenik, beste prozesu batzuk ikasiko dira, kanpo-arrazoiaren ondoriozkoak, botiken aurkako erreakzioak eta pozoidurak kasu (8. blokea), baita lantzeko interesa dagoen beste zeinahi ere.

Gainera, aintzat hartu behar da 3. modulua: *Diagnostikoak egitea eta prozedurak*. Kodetzeko beharrezkoak diren edukiak ikasiko dira, lesioekin eta intoxikazioekin loturikoak kasu. Horrenbestez, hori kontuan hartu beharko dute irakasleek moduluen eta unitate didaktikoen programazioak egiteko garaian.

Eduki batzuk iragankorrak direnez (sailkatzeko edo erregistratzeko sistemak kasu), ezinbestekoa da edukiak etengabe eguneratzea eta indarrean dauden bertsioetara egokitzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulua garatzeko, uneoro uztartu behar dira jarduera praktikokoak eta teorikoak. Hasieran, ariketa errazak proposatu daitezke, ikasleek GNSren formatua ezagutu dezaten eta erabiltzen ikas dezaten, hala paper-euskarrian nola euskarri informatikoan.

Ondoren, araudia sakonago ezagutu ahala, kasu klinikoak landuko dira, dagozkien altaxostenak kodetzeko. Ikasleek autonomia eskuratzea sustatuko da, bereziki informazio edo datu gehiago bilatzeko garaian.

Kodetzea bakarkako lana den arren eta kontzentrazio handia eskatzen badu ere, kasu bakoitzaren amaieran taldean aztertzea komeni da, egon daitezkeen errorearen jatorria aztertzeko eta ezarritako arauak eta prozedurak betetzearen garrantziaz ohartzeko.

Landuko diren kasuak egiazkoak ez diren arren, behar bezalako jarrerarekin landu beharko dira. Jarrera horiei eustea sistematikoki agindu behar da, horien ikaskuntza ziurtatzeko. Konfidentzialtasunari dagokionez, lanari loturiko egoerak aztertu daitezke, konfidentzialtasunaren garrantziaz jabetzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osasuneko informazio-sistemen eta gaixotasunak sailkatzeko sistemen osagaien ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Terminologia espezifikoaren erabiltzea.
- ✓ Diagnostiko nagusiak hautatzea.
- ✓ Diagnostikoak kodetzea.
- ✓ Diagnostikoak kodetzeko araudia aplikatzea.
- ✓ POA baldintza identifikatzea.
- ✓ Prozedura nagusiak hautatzea.
- ✓ Prozedurak kodetzeko araudia aplikatzea.
- ✓ Oker definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak kodetzeko arauak aplikatzea.
- ✓ Lesioak eta intoxikazioak kodetzea.
- ✓ Lesioen eta intoxikazioen kanpo-arrazoiak kodetzea.
- ✓ Zainketa medikoen eta kirurgikoen konplikazioak kodetzea.
- ✓ Osasun-egoeran eta osasun-zerbitzuekiko harremanetan eragiten duten faktoreak kodetzea.
- ✓ Erreferentziazko araudi aplikagarriak hautatzea eta aplikatzea.
- ✓ Erreferentziazko dokumentu-iturriak eta eskuliburuak hautatzea eta erabiltzea.



- ✓ Egindako ariketak aztertzea eta kalitatea balioestea. Erroreak hautematea eta zuzentzea.

6. lanbide-modulua

BULEGOTIKA ETA INFORMAZIOAREN PROZESUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Bulegotika eta informazioaren prozesua
Kodea:	0649
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	165
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Prozedura sanitario eta asistentzialak Administrazio-kudeaketako prozesuak (Irakasle tekniko edo Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0233_2: Informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko bulegotika-aplikazioak erabiltzea. UC0986_3: Dokumentazio eta aurkezpen profesionalak lantzea hainbat formatutan. UC0987_3: Euskarri konbentzionalean eta informatikoan informatzeko eta artxibatze sistemak administratzea.
Helburu orokorrak:	1 / 3 / 4 / 13 / 14 / 16 / 21 / 26

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekipoak, aplikazioak eta sarea funtzionamendu-baldintza egokietan mantentzen ditu, beharrezko hardware eta software osagaiak instalatuta eta eguneratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Informatika-ekipoen funtzionamendu-probak egin ditu.
- Komunikazio-ataken konexioak egiaztatu ditu.
- Sare-sistema baten oinarriko elementuak (hardwarea eta softwarea) identifikatu ditu.
- Sare-sistema baten eragiketen prozedura orokorren ezaugarriak zehaztu ditu.
- Sistema eragile baten oinarriko funtzioak erabili ditu.



- f) Segurtasun-eta konfidentzialtasun-neurriak aplikatu ditu, suebaki- eta antibirus-programa identifikatuta.
- g) Sareko beste erabiltzaile batzuekin partekatu du informazioa.
- h) Erabiltzailearen oinarriko funtzioak exekutatu ditu (konexioa, desconexioa, biltegitratzeko espazioaren optimizazioa, periferikoen erabilera, beste erabiltzaile batzuekiko komunikazioa eta beste sistema edo sareekiko konexioa, besteak beste).

2. Teklatu hedatu batean alfa-zenbakizko testuak idazten ditu, teknika mekanografikoak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lanerako elementuak eta espazioak antolatu ditu.
- b) Gorputz-jarrera zuzena mantendu du.
- c) Hatzek alfa-zenbakizko teklatuaren ilaretan izan beharreko posizio zuzena identifikatu du.
- d) Informatika-terminala abian jartzeko funtzioak zehaztu ditu.
- e) Alfa-zenbakizko teklatuaren ilarak eta zeinuen eta puntuazioen teklak koordinaturik erabili ditu.
- f) Ukimen bidezko idazketaren metodoa erabili du, gero eta zailtasun handiagoko paragrafoetan eta taula sinpleetan.
- g) Ukimen bidezko idazketaren metodoa erabili du ingeleseko testuak idazteko.
- h) Abiadura (200 tekla-sakatze minutuko) eta doitasun (huts-egite bat minutuko) egokiaz mekanografiatu du, informatika-programa baten laguntzarekin.
- i) Testu-dokumentuak aurkezteko arauak aplikatu ditu.
- j) Akats mekanografikoak, ortografikoak eta sintaktikoak aurkitu eta zuzendu ditu.

3. Fitxategi-sistemak kudeatzen ditu, eta, horretarako, beharrezko informazioa bilatu eta hautatzen du bitarteko konbentzionalen eta informatikoen bitartez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazio-beharrak hauteman ditu.
- b) Informazioa lortzeko iturriak identifikatu eta lehenetsi ditu.
- c) Intraneteko eta Interneteko bilatzaileak hautatu ditu, azkartasun-irizpideen arabera eta bilaketa-aukeren arabera.
- d) Web 2.0 tresnak erabili ditu informazioa lortzeko eta sortzeko.
- e) Lortutako emaitzen kopurua murrizteko bilaketa-irizpideak erabili ditu.
- f) Segurtasun, babes, konfidentzialtasun eta informazioaren murrizketako sistemak aplikatu ditu.
- g) Lortutako informazioa bideratu, artxibatu eta/edo erregistratu du, hala badagokio.
- h) Fitxategiak antolatu ditu, ondoren bilaketa errazteko.
- i) Beharrezko informazioa eguneratu du.
- j) Aurreikusitako epeak bete ditu.
- k) Fitxategien kopiak egin ditu.

4. Informazioaren tratamenduan planteatzen diren beharretara egokitutako kalkulu-orriak lantzen ditu, aukera aurreratuak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Diruzaintzako, merkataritza-kalkuluetako eta bestelako administrazio-eragiketarako kudeaketak egiteko, kalkulu-orriaren prestazioak erabili ditu.
- b) Dokumentuak diseinatu eta landu ditu kalkulu-orriarekin.

- c) Kalkulu-orriak erlazionatu eta eguneratu ditu.
- d) Formulak eta funtzioak sortu eta habiaratu ditu.
- e) Gelaxkak, orriak eta liburuak babesteko pasahitzak ezarri ditu.
- f) Informazioa aztertzeko grafikoak lortu ditu.
- g) Makroak erabili ditu dokumentuak eta txantiloak egiteko.
- h) Beste aplikazio batzuekin eta beste formatu batzuetan sortutako kalkulu-orriak inportatu eta esportatu ditu.
- i) Kalkulu-orria datu-base gisa erabili du: inprimakiak, zerrendak sortzea, iragaztea, datuak babestea eta ordenatzea.
- j) Aplikazioak eta periferikoak erabili ditu testuak, zenbakiak, kodeak eta irudiak sartzeko.

5. Testu-dokumentuak lantzen ditu eta, horretarako, testu-prozesadore baten aukera aurreratuak erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Testu-prozesadoreen eta autoedizioko prozesadoreen funtzioak, prestazioak eta prozedurak erabili ditu.
- b) Dokumentu mota bakoitzaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- c) Testu-dokumentuak trebetasun egokiarekin idatzi ditu eta egitura-arauak aplikatu ditu.
- d) Ereduzko administrazio-dokumentuetara egokitutako txantiloak landu ditu, konbinazio-utilitateak barne.
- e) Objektuak, grafikoak, taulak, kalkulu-orriak eta hiperestekak, besteak beste, integratu ditu.
- f) Egindako akatsak hauteman eta zuzendu ditu.
- g) Biltegiratutako informazioa berreskuratu eta erabili du.
- h) Datuen segurtasunari, integritateari eta konfidentzialtasunari buruzko arauak bermatzen dituzten funtzioak eta utilitateak erabili ditu.

6. Administrazio-informazioaren tratamenduan planteatzen diren beharretara egokitutako datu-baseak kudeatzeko sistemak erabiltzen ditu, aukerarik aurreratuenak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datu-baseetako datuak antolatu eta sailkatu ditu, informazioa aurkezteko.
- b) Datu-baseetan kontsultak egin ditu irizpide zehatz batzuekin.
- c) Datu-baseetako txostenak egin ditu irizpide zehatz batzuekin.
- d) Formularioak egin ditu irizpide zehatz batzuekin.
- e) Datu-baseetako erregistroak eguneratu, batu eta ezabatu ditu.
- f) Datu-baseak beste informatika-aplikazio batzuekin lotu ditu, hala eskatzen duten jarduerak egiteko.
- g) Datu-baseak babestu ditu, segurtasun-mailak ezarrita.
- h) Antolamenduaren eskakizunetara egokitutako datu-basea landu du.

7. Aplikazioetako informazioa modu integratuan kudeatzen du, baita ikus-entzunezko fitxategiak ere, berriazko programa eta periferikoak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datu-baseak, testuak eta irudiak, besteak beste, modu integratuan kudeatu ditu, eta, horretarako, kalkulu-orrietako datuak inportatu eta esportatu ditu eta aukera horietako guztietako dokumentuak lortu ditu.



- b) Kanpo-iturrietako ikus-entzunezko fitxategiak hautatu ditu, eta horien formatu egokia hautatu du.
- c) Ikus-entzunezko baliabideen bankua sortu eta mantendu du.
- d) Ikus-entzunezko fitxategiak pertsonalizatu ditu, lortu nahi den dokumentuaren helburuaren arabera.
- e) Ikus-entzunezko fitxategien babesaren arloko berariazko legeria errespetatu du.

8. Posta eta agenda elektronikoa kudeatzen du, berariazko aplikazioak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Posta elektronikoko aplikazioa erabili du.
- b) Posta-mezu baten igorlea, hartzailea eta edukia identifikatu du.
- c) Jaso nahi ez den postaz babesteko iragazkiak aplikatu ditu.
- d) Inplikatu guztiei bideratu die informazioa.
- e) Mezua jaso dela egiaztatu du.
- f) Sarrera- eta irteera-azpilak antolatu ditu.
- g) Mezuen irteera edo sarrera erregistratu du.
- h) Posta-mezuak inprimatu, artxibatu edo ezabatu ditu.
- i) Agenda elektronikoa, sailaren antolamendu-metodo gisa, eskaintzen dituen funtzioak eta utilitateak aplikatu ditu.
- j) Informatika-ekipoaren agendak gailu mugikorrekin konektatu eta sinkronizatu ditu.

9. Dokumentuen eta txostenen multimedia-aurkezpenak landu ditu berariazko aplikazioak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Barnean hartu nahi den informazioa aztertu eta hautatu du.
- b) Hainbat objektu txertatu ditu (taulak, grafikoak, kalkulu-orriak, argazkiak, marrazkiak, organigramak, soinu- eta bideo-fitxategiak, eta abar).
- c) Informazioa modu argian eta egituratuan banatu du.
- d) Aurkezpenaren helburuaren arabera animatu dira objektuak.
- e) Ahozko azalpenei laguntzeko aurkezpenak sortu ditu.
- a) Enpresaren dokumentazioaren edo txostenen gaineko aurkezpenak egin ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EKIPO, APLIKAZIO ETA SAREEN OINARRIZKO MANTENTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informatika-sistema baten funtzionamendu-probak egitea. - Komunikazio-ataken konexioak egiaztatzea. - Aplikazioak edo programak eskuratzea eta/edo deskargatzea. - Aplikazioak eguneratzea. - Desinstalatzeko prozedurak egitea. - Segurtasun- eta konfidentziasun-neurriak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hardware elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Plaka nagusia. • Mikroprozesadorea. • RAM, ROM memoriak. • Bideo-pantaila eta txartel grafikoak. • Biltegitratze-unitateak, barnekoak eta kanpokoak. • Inprimagailuak.

	<ul style="list-style-type: none"> • Sareko txartelak, wifi txartelak eta bluetooth. - Software elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Sistema eragileak. • Aplikazioak edo programak. - Sistema eragileak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko funtzioak. • Erabiltzaile bakarreko eta anitzeko sistema eragileak. • Jabetza peko edo software libreko sistema eragileak. • Abio duala, instalatutako zenbait sistema eragilerekin. - Sare lokalak: <ul style="list-style-type: none"> • Osagaiak. • Konfigurazio nagusiak. • Baliabideak partekatzea eta eguneratzea. - Segurtasun-softwarea: <ul style="list-style-type: none"> • Antibirusa. • Suebakia edo firewall.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gure sistemaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna zainduko duten neurriak aplikatzeko beharra baloratzea. - Gure sistema eguneratuta eta funtzionamendu-baldintza egokietan mantentzeko interesa.

2. TEKNIKA MEKANOGRAFIKOAREN ARABERA IDAZTEA TESTUAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Denbora eta espazioa antolatzea lanean. - Hatzak kokatzea. - Terminalaren aurrean gorputzaren jarrera zaintzea: <ul style="list-style-type: none"> • Jarrera-bizioak eta tentsioak saihestea. • Besoak, eskumuturrak eta eskuak egoki kokatzea. - Trebetasun mekanografikoa garatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Letrak modu errepikakorrean idaztea. • Hitz sinpleak idaztea. • Gero eta zailtasun handiagoko hitzak idaztea. • Teklatu gainean simulazio-jokoetan aritzea. • Letra larriak, zenbakiak eta puntuazio-zeinuak erabiltzea. • Testuak abiadura kontrolatua idaztea. • Testuak hizkuntza desberdinetan idaztea: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. • Hatzen posizioari begiratu gabe idaztea. - Balorazio-testa garatzea. - Akats mekanografikoak, ortografikoak eta sintaktikoak zuzentzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informatika-terminal baten osagaiak: <ul style="list-style-type: none"> • <i>Hardwarea</i>. • Sarrerako periferikoak. • <i>Softwarea</i>: <ul style="list-style-type: none"> ○ Testuak prozesatzeko programak. ○ Ahotsa ezagutzea. - Gramatika-arauak eta -teknikak. - Teklatu hedatua. - Mekanografiako informatika-programa baten egitura.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanpostuan prebentzio-neurriak hartzeko interesa: <ul style="list-style-type: none"> • Terminalaren aurrean denboraldi luzeak saihestuz. • Erlaxazio-eraketak aldi behin eginez.



	<ul style="list-style-type: none"> - Akatsak dituen testu baten eragin negatiboa baloratzea. - Informazioaren konfidentziasuna ziurtatzea.
--	--

3. FITXATEGIAK KUDEATZEA ETA INFORMAZIOA BILATZEA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio-beharrak hautematea. - Informazioa lortzeko aukera ematen duten iturriak identifikatzea eta lehenestea. - Intraneten eta Interneten bilatzaileak hautatzea, azkartasun-irizpideen arabera eta bilaketa-aukeren arabera. - Aplikazioak, programak eta utilitateak Web bitartez deskargatzea eta instalatzea. - Segurtasun, babes, konfidentziasun eta informazioaren murrizketako sistemak aplikatzea. - Lortutako informazioa bideratzea, artxibatzea eta/edo erregistratzea, hala badagokio. - Aurreikusitako epeak betetzea. - Informazioaren erabilera sozializatzea.
<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Internet eta nabigatzaileak. - Nabigatzaileen erabilgarritasuna. - Nabigatzaileen alde onak eta txarrak. - Webetik fitxategiak deskargatzeko modalitateak. - FTP fitxategiak transferitzeko protokoloa. - Fitxategiak konprimitzea eta deskonprimitzea. - Software librea konprimitzeko eta deskonprimitzeko aplikazioak. - Informazio-bilatzaileak. - Informazioaren inportazioa/esportazioa. - Artxibatze teknika. - Informatika-fitxategia. Dokumentu-kudeaketa. - Web-ean informazioa trukatzeko teknika eta aplikazioak. - Web 2.0 tresnak: <ul style="list-style-type: none"> • Blogak. • Wikiak. • Bideoak eta irudiak ostatzeko zerbitzuak. • Sare sozialak.
<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Edozein pertsonaren intimitatearen eta integritatearen aurkako jokabideak errefusatzeko. - Edonolako informazioa deskargatzeko garaian jabetza- eta egile-eskubideak errefusatzeko. - Jakintza sozializatzerazuzentzen diren jarreraren garrantzia baloratzea.

4. KALKULU-ORRIAK EGITEA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kalkulu-orriak instalatzea eta kargatzea. - Kalkulu-orria diseinatzea. - Formulak eta funtzioak erabiltzea. - Formatuak eta estiloak aplikatzea. - Taula eta grafiko dinamikoak sortzea. - Txantiloia erabiltzea. - Kalkulu-orriak inportatzea eta esportatzea. - Diruzaintzako, merkataritza-kalkuluetako eta bestelako administrazio-eragiketarako kudeaketak egiteko, kalkulu-orriaren prestazioak
-----------------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> erabiltzea. - Fitxategi-kudeaketa; kalkulu-orria datu-base gisa erabiltzea: inprimakiak, zerrendak sortzea, iragaztea, datuak babestea eta ordenatzea. - Kalkulu-orriko prozesuak automatizatzea: makroak diseinatzea eta sortzea. - Datuak babestea: pasahitzak. - Beste aplikazio batzuekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kalkulu-orriaren egitura eta funtzioak: <ul style="list-style-type: none"> • Ilarak, zutabeak, gelaxkak, lerrunak, orriak eta liburuak. • Tresna-barra. • Formula-barra. - Kalkulu-orria editatzeko prozedurak: <ul style="list-style-type: none"> • Datuak hautatzea. • Datuak editatzea: kopiatzea, mugitzea eta ezabatzea. • Tamaina aldatzea. • Txertatzea eta ezabatzea. • Dokumentuak irekitzea eta gordetzea. - Formulak eta funtzioak: <ul style="list-style-type: none"> • Erreferentzia motak: absolutuak, erlatiboak eta mistoak. - Formatuak: <ul style="list-style-type: none"> • Iturriak. • Ertzak eta itzaldurak. • Datu motak. • Autoformatua. - Estiloak. - Grafikoak. - Taula eta grafiko dinamikoak. - Beste utilitate batzuk: <ul style="list-style-type: none"> • Analisi-erremintak: Solver. - Txantiloiak. - Makroak. - Kalkulu-orriak inprimatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesu zailak iruzkinekin dokumentatzeko interesa. - Argitasuna eta sinplifikazioa formulak definitzeko prozesuan. - Metodologia egokia dokumentazioa artxibatzeke garaian.

5. TESTU-TRATAMENDUKO PROGRAMEN BIDEZ DOKUMENTUAK SORTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Testu-prozesadoreak instalatzea eta kargatzea. - Testua sartzea eta editatzea. - Hainbat formatu mota aplikatzea. - Tabuladoreak eta koskak definitzea. - Elementuen artean formatua kopiatzea. - Autozuzenketako eta berraztertze ortografikoko prozesuak garatzea. - Hizkuntza hautatzea. - Taulak sortzea eta editatzea. - Dokumentua sekzioetan egituratzea. - Testuan marrazkiak, irudiak, eta grafikoak txertatzea. - Matematika-formulak txertatzea. - Estiloak erabiltzea: sortzea, aldatzea, kopiatzea eta ezabatzea. - Dokumentu batean eskema-bistarekin lan egitea. - Indize automatikoak sortzea. - Posta-konbinazioa egitea. - Dokumentuak eta txantiloiak diseinatzea.
-----------------------	--



	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentu nagusiak egitea. - Ereduzko administrazio-dokumentuetara egokitutako txantiloak sortzea. - Tresna-barra pertsonalizatuak sortzea. - Dokumentuak inportatzea eta esportatzea. - Prozesuak automatizatzea: makroak diseinatzea eta sortzea. - Fitxategiak kudeatzea. - Datuak babestea. - Dokumentuak inprimatzea. - Testuak eta irudiak txertatzeko softwarea eta hardwarea erabiltzea. - Karaktere-ezagutze optikoa. - Beste aplikazio batzuekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Testu-prozesadorearen egitura eta funtzioak. - Testu-tratamenduko programaren elementuak. - Formatuak: letra-tipoarena, paragrafoena, dokumentuarena. - Tabuladoreak, koskak. - Taulak. - Egunkari gisako zutabeak. - Marrazkiak, irudiak, grafikoak. - Matematika-formulak. - Estiloak. - Txantiloak eta inprimakiak. - Tresna-barra. - Aukera aurreratuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpen onaren garrantzia baloratzea. - Datuen segurtasunari, integritateari eta konfidentziasunari buruzko arauak betetzearen garrantzia baloratzea.

6. ADMINISTRAZIO-INFORMAZIOA TRATATZEKO, DATU-BASEAK ERABILTzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Datu-baseak instalatzea eta kargatzea. - Datu-baseak diseinatzea. - Datu-baseak erabiltzea. - Taulak sortzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eremu mota definitzea. • Erregistroak sartzea. • Gako nagusia definitzea. - Taulen arteko loturak ezartzea. - Morroiak erabiltzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kontsultak definitzeko. • Formularioak definitzeko. • Txostenak definitzeko. - Informazioa bilatzea, antolatzea eta iragaztea. - Makroak eta moduluak diseinatzea eta sortzea. - Beste aplikazio batzuetako elementuak inportatzea eta esportatzea. - Datuak erregulartasunez trinkotzea. - Datuak babestea: babeskopiak egitea. - Beste aplikazio batzuekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Datu-base baten egitura eta funtzioak. - Datu-base motak: datu-base erlazionalak. - Datu-base erlazionaletako elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Taulak: erregistroak, eremuak, gako nagusia. • Kontsultak. • Inprimakiak.

	<ul style="list-style-type: none"> • Txostenak. - Ikuspegi motak: <ul style="list-style-type: none"> • Diseinu-ikuspegia. • Datu-ikuspegia. - Lotura motak: <ul style="list-style-type: none"> • Erlazioa: $1 \rightarrow 1$ • Erlazioa: $1 \rightarrow \infty$ - Makroak eta programazio-moduluak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Abian jarri aurretik datu-basearen aurretiazko diseinu egokiaren garrantzia baloratzea. - Iraunkortasunaren eta ekologiaren gisako balioen aldeko apustu garbia egitea baliabideak erabiltzeko garaian.

7. FITXATEGIEN KUDEAKETA INTEGRATUA

	<ul style="list-style-type: none"> - Grabatzea, transmititzea, jasotzea eta trinkotzea. - Beste bitarteko edo dokumentu batzuetan txertatzea. - Irudi-tratamendua: <ul style="list-style-type: none"> • Irudiak lortzeko gailuak erabiltzea. • Formatuak, formatuak bihurtzea eta irudien bereizmena. • Hautespenak eta maskarak maneatzea. • Geruzen bidezko lana. • Argazkiak berrukitzeko tresnak maneatzea. • Testuak txertatzea. • Irudia eta kolorea doitzea. • Iragazkiak eta efektuak aplikatzea. • Irudiak inportatzea eta esportatzea. - Bideoak manipulatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Bideoak eskuratzeko: eskuratzeko gailuak, Internet. • Bideoak deskargatzeko osagarriak instalatzea. • Bideo-formatuen bihurtzea. • Eszenak eta trantsizioak hautatzea. • Trantsizio-efektuak aplikatzea. • Eszenak laburtzea. • Hainbat bideotako eszenak tartekatzea. • Tituluak eta audioa sartzea. • Bideoak inportatzea eta esportatzea. - Soinu manipulatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Soinu-fitxategiak lortzea. • Formatuak, eta formatuak bihurtzeko prozesuak. • Soinu-fitxategiak editatzea. • Efektuak aplikatzea. • Fitxategiak konbinatzea. - Ikus-entzunezko baliabideen bankua sortzea eta mantentzea.
prozedurazkoak	
	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait aplikazioz osatutako fitxategiak: kalkulu-orria, datu-baseak, testu-tratamendua, grafikoak eta bestelakoak. - Atzitzeko eta erreproduzitzeko gailuak. - Irudi digitala: <ul style="list-style-type: none"> • Askotariko formatuak. • Bereizmena. • Hautespen motak. • Tresnak. • Irudi-doikuntzak.
kontzeptuzkoak	



	<ul style="list-style-type: none"> • Geruzak. • Kanalak. • Trazadurak. • Iragazkiak eta efektuak. <p>- Ikus- eta/edo soinu-edukia.</p> <p>- Edukien komunikazioaren helburua.</p> <p>- Bideoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Codec-ak eta formatuak. • Eszenak. • Trantsizioak. • Tituluak. • Trantsizio-efektuak. <p>- Soinuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Formatuak. • Efektuak. <p>- Zaharkitzea eta eguneratzea.</p>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Irudietako eta bideoetako copyrigtha errespetatzea. - Creative Commons lizentzia eta antzekoak baloratzea. - Edozein pertsonaren intimitatearen eta integritatearen aurkako jokabideak errefusatzea.

8. POSTA ETA AGENDA ELEKTRONIKOA KUDEATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Posta eta agenda elektronikoko aplikazioak instalatzea. - Konfiguratzea eta personalizatzea. - Mezuak albiste-foroetan (news) konfiguratzea, erabiltzea eta sinkronizatzea. - Helbideen liburuxka erabiltzea: inportatzea, esportatzea, kontaktuak eranstea, banaketa-zerrendak sortzea, zerrenda bulegotikako beste aplikazio batzuen eskura jartzea. - Mezuak kudeatzea: bidaltzea, ezabatzea, gordetzea, babeskopiak, besteak beste. - Artxibo erantsiak konprimitzeko eta deskonprimitzeko prozesua egitea. - Agenda kudeatzea: kontaktuak, hitzorduak, egutegia, oharrak, eginbeharrak, besteak beste. - Posta eta agenda gailu mugikorretan kudeatzea. - Gailu mugikorrek sinkronizatzea. - Posta segurtasunez kudeatzea: iragazkiak, arauak. - Artxiboak kudeatzea eta posta eta agenda elektronikoko aplikazioak segurtasunez erabiltzea. - Erabiltzaileari laguntzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Posta elektronikoaren eta agenda elektronikoaren funtzioa. - Posta-kontu elektroniko motak: <ul style="list-style-type: none"> • Bezero-programa batekin. • Web-posta. - Txantiloiak eta sinadura korporatiboak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mezuak bidaltzeko garaian informazioaren tratamenduaren garrantzia baloratzea. - Arau ortografikoak edo gramatikalak errespetatzen ez dituzten mezuak bidaltzeari uko egitea. - Gailu mugikorrek behar bezala erabiltzea.

9. AURKEZPENAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpenak lantzeko aplikazioa instalatzea eta kargatzea. - Aurkezpen-prozedura: aurkezpenak sortzea. - Diapositibak diseinatzea eta editatzea. - Diapositibak, testuak eta objektuak formateatzea. - Ereduak erabiltzea. - Multimedia-elementuak txertatzea (irudiak, soinua, bideoa, gif animatuak). - Animazio-efektuak aplikatzea. - Trantsizioak aplikatzea. - Aurkezpenak inportatzea eta esportatzea. - Txantiloiak eta morroiak erabiltzea. - Elkarreragina txertatzea. - Aurkezpen bat web-era egokitzea. - Makroak diseinatzea eta sortzea. - Jendearentzako aurkezpena: proiektagailu bati konektatzea eta konfiguratzea. - Narrazioa sinkronizatzea. - Aurkezpena inprimatzea. - Beste aplikazio batzuekin lotzea. - Datuak babestea: babeskopiak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpen baten egitura eta funtzioak. - Aplikazioaren utilitateak. - Diseinu-txantiloiak: <ul style="list-style-type: none"> • Aurre-diseinatuak. • Norberak egindakoak. - Hainbat diseinu: <ul style="list-style-type: none"> • Testuarenak. • Beste objektu batzuenak. - Ikuspegiak: <ul style="list-style-type: none"> • Arrunta. • Diapositiben sailkatzailea. • Aurkezpen-modua. - Animazio-efektuak: <ul style="list-style-type: none"> • Sarrerakoak. • Irteerakoak. • Nabarmentzekoak. - Trantsizioak. - Multimedia-elementuak txertatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Irudiak. • Bideoak. • Gif animatuak. • Soinuak. - Oinarriko konposizio-arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Irudietako eta bideoetako copyrighta errespetatzea. - Creative Commons lizentzia eta antzekoak baloratzea. - Edozein pertsonaren intimitatearen eta integritatearen aurkako jokabideak errefusatzeko. - Aurkezpen bat egiteko garaian, ahozko adierazpena baloratzea.



d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komeni da *Teknika mekanografikoaren arabera idaztea testuak* eta *Ekipo, aplikazio eta sareen oinarrizko mantentzea* blokeak aldi berean lantzea, asteko ordu kopurua bi unitate horien artean modu parekatuan banatuta. Ikasleen errendimenduari begira, kaltegarria izan daiteke batez ere mekanikoa/praktikoa den bloke bati egunean ordubete baino gehiago eskaintzea, *Teknika mekanografikoaren arabera idaztea testuak* blokeari hain zuzen ere.

Gainerako blokeei dagokienez, edukietan agertzen den ordena izan daiteke sekuentzia logikoa, salbuespen bakarrarekin: agian, *Testu-prozesadoreak* blokea *Kalkulu-orriak* blokea baino lehen lantzea komeni da.

2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren unitate didaktiko gehienetan, eta batik bat prozedurazko edukiak direnez gero, jarduera praktikoen eta banakoen bitartez «egiten ikastea» izango da ohiko metodologia.

Eduki kontzeptualagoak dituzten unitate didaktikoetan, interesgarria izango da irakasleen ezinbesteko azalpenak autoebaluzioko ariketekin osatzea. Ariketa horien bitartez, ikaskuntzaren aurrerapenaren lekuko zuzen izango dira ikasleak.

Aurkezpenak lantzea blokearekin, berriz, metodologia aktiboagoa planteatu daiteke. Ikasleek –banaka edo, gehienez ere, binaka– aukera libreko gai baten aurkezpena landu beharko dute. Aurkezpen horretan irakasleak aurretik definitutako zenbait eskakizun bete beharko dituzte, hala nola gutxieneko diapositiba kopurua, nahitaez txertatu beharreko elementuak, efektuen aplikazioa, eta multimedia-objektuak.

Irakasleak zer alderdi ebaluatuko dituen emango du aditzera txantiloiei batean: originaltasuna, arintasuna, testu zuzenak, animazio-efektu egokiak, soinuaren erabilera zuzena, bideoa, eta abar, baita horietako bakoitzari esleituko zaion haztapena ere. Era berean, aurkezpenean ikasleek egin beharreko ahozko azalpena ere baloratuko da.

Irakasleek zein ikasleek aurkezpenetako bakoitza baloratzeko txantiloia bete beharko dute, eta horietan oinarrিতua lortuko da ebaluzio-emaizta.

Ahal izanez gero, interesgarria izango da bertaratze bidezko metodologiak metodologia birtualekin osatzea edo zati batean soilik bertaratzea eskatzen duten metodologiekin osatzea, baita ikaskuntzako plataforma birtualetan kokatzen diren prestakuntza-ikastaroak edo antzekoak baliatzea ere. Horrela, ikasleak autoikaskuntzan gehiago oinarritzen diren beste mota bateko irakatsi eta ikasteko tresnekin ohituko dira.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekipo, aplikazio eta sareen oinarrizko mantentzea:
 - Informatika-sistema baten elementuak identifikatzea.
 - Sistema eragile baten funtsezko komandoak maneiatzea.
 - Aplikazio egokiak eta horien bertsioak hautatzea.
 - Ariketa autoebaluatzaileak egitea.
- ✓ Teknika mekanografikoaren arabera idaztea testuak:
 - Hatzak behar bezala jartzea.
 - Idaztean teklatuari begiratu ezin izatea.
 - Akats tipografikoak zuzentzea.
 - Gero eta abiadura handiagoa lortzea.
- ✓ Fitxategiak kudeatzea eta informazioa bilatzea:
 - Bilaketako irizpide egokiak ezartzea.
 - Bilaketa-iturriak hautatzea.
 - Biltegitratzeko irizpide egokiak ezartzea.
 - Baliabideak kudeatzea.
- ✓ Kalkulu-orriak egitea:
 - Erreferentzia absolutuak, erlatiboak edo mistoak formuletan.
 - Liburuen arteko lotura, formulen bitartez.
- ✓ Testu-prozesadoreen bidez dokumentuak sortzea:
 - Letra-tipoko eragiketak.
 - Paragrafo-tipoko eragiketak.
 - Testua egituratzea: zutabetan, tauletan.
 - Estiloak aplikatzea.
- ✓ Administrazio-informazioa tratatzeko, datu-baseak erabiltzea:
 - Taulen diseinu egokia.
 - Taulen arteko loturak lantzea.
- ✓ Fitxategien kudeaketa integratua:
 - Irudi baten tamaina txikitzea kalitatea galdu gabe.
 - Irudien formatuak bihurtzea.
 - Geruzen bidezko lana.
 - Bideo baten eszenak moztea.
 - Bideo-formatuen bihurtzea.
 - Soinu-fitxategiak bihurtzea.
 - Soinu-fitxategiak editatzea.
- ✓ Posta eta agenda elektronikoa kudeatzea:
 - Posta-kontua behar bezala konfiguratzea.
 - Eransten diren fitxategien bidalketa optimizatzea.
 - Mezuak hartzeko iragazkiak ezartzea.
 - Posta eta agenda gailu mugikorrekin sinkronizatzea.
- ✓ Aurkezpenak lantzea:



- Aurkezpenaren gutxieneko eskakizunak definitzea.
- Horien betetze-maila egiaztatzea.
- Ebaluazio-txantiloia prestatzea.
- Ahozko azalpena egitea.

7. lanbide-modulua OSASUN-KODETZEIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasun-kodetzea
Kodea:	1520
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	180
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC2075_3: Osasun-dokumentaziotik erauzitako datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea.
Helburu orokorrak:	7 / 14 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Infekzio- eta parasito-gaixotasunei loturiko diagnostikoak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Infekzio-prozesuaren bilakaera-faseak identifikatu ditu.
- Infekzio- edo parasito-gaixotasunekin loturiko kodeak esleitu ditu, dagokien sekuentzia aplikatuz.
- Prozedura bat gauzatu ondoren gertatutako infekzio-prozesuak kodetu ditu.
- GIBa kodetzeko kategoria klinikoak identifikatu ditu.
- Diagnostiko nagusia hautatzeko irizpideak ezarri ditu, GIB bidezko infekzioari loturiko gaixotasunak edo harekin loturik ez daudenak kodetzeko.

2. Neoplasiekin loturiko diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Neoplasiak kodetzeko araudi orokorra aplikatu du, kokapen anatomikoa eta portaera zehaztuz.
- b) Ageri diren tumore primario eta sekundarioak identifikatu ditu.
- c) Linfa-ehunaren, ehun hematopoietikoa eta tumore neuroendokrinoen neoplasiei loturiko gertakariak kodetu ditu.
- d) Diagnostiko nagusia hautatzeko berariazko araudia hautatu du, harrera-arrazoiari erreparatuta.
- e) Tratamenduari loturiko konplikazioak jaso ditu kodetze-prozesuan.
- f) Egindako prozedurak zuzen kodetu ditu.

3. Gaixotasun sistemikoei, buruko nahasmenduei eta bestelako patologiei loturiko diagnostikoak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Diabetesa kodetu du, motaren, konplikazioen eta zeinu akutu zein kronikoen arabera, hala nola beste patologia endokrino batzuk.
- b) Buruko nahasmenduak eta saiakuntza autolitikoak kodetu ditu.
- c) Toxikoekiko mendekotasunak kodetu ditu, irentsitako substantziak identifikatuz eta GNSren kodeen arabera.
- d) Genital- eta gernu-aparatuko gaixotasunak kodetu ditu.
- e) Sortzetiko patologiaren eta jaiotza inguruko denboraldiko patologiaren arteko desberdintasunak deskribatu ditu, kodetzeko.
- f) Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetu ditu.

4. Zirkulazio-aparatuko gaixotasunei loturiko diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Balbulopatiak kodetzeko prozesua zehaztu du.
- b) HTAren eta organo-nahasmenduen artean dagoen lotura zehaztu du.
- c) Gutxiegitasun kardiakoa kodetzeko kodea esleitu du, mota eta faktore eragileak identifikatuz.
- d) Diagnostikoak zuzen sekuentziatu ditu kardiopatia iskemikoari loturiko prozesuak kodetzean.
- e) Patologia zerebrobaskularrei loturiko gertakariak kodetu ditu.
- f) Zirkulazio-aparatuari aplikatutako prozedura diagnostiko eta terapeutikoak erregistratu ditu.

5. Arnas aparatuko gaixotasunei loturiko diagnostikoak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berariazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pneumonia motak zehaztu ditu.

- b) Biriketako gaixotasun buxatzaile kroniko mota (BGBK) erregistratu du, berriz larriagotzea eta deskonpentsatzea gertatu den jasoz.
- c) Diagnostikoak zuzen sekuentziatu ditu arnas aparatuari loturiko prozesuak kodetzean.
- d) Arnas gutxiegitasuna zer nolako indarrarekin edo azkartasunarekin agertu den zehaztu du, kodea esleitzeko irizpide gisa.
- e) Arnas euskarriko makinekiko mendekotasun-egoera kodetu du.

6. Digestio-aparatuko gaixotasunei loturiko diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berriazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Odoljario digestibo mota eta horren jatorria zehaztu ditu.
- b) Sabelaldeko barrunbeto hernia zuzen kodetzeko behar den informazioa eskuratu, eta dagokion tratamendua ondorioztatu du.
- c) Hepatitisaren jatorria identifikatu du, entzefalopatia hepatikorik dagoen zehaztuta.
- d) Behazunari eta behazun-hodiari loturiko etiketa diagnostikoa eta tratamendu-etiketa erregistratu ditu.
- e) Digestio-aparatuari aplikatutako prozedura diagnostiko eta terapeutikoak erregistratu ditu.

7. Haurdunaldiari, erditzeari eta erdiberriaroiari loturiko diagnostikoak eta prozedurak kodetzen ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berriazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berezko erditzearen eta erditze distozikoaren arteko desberdintasunak deskribatu ditu.
- b) Diagnostikoak zuzen sekuentziatu ditu haurdunaldiari, erditzeari eta erdiberriaroiari loturiko prozesuak kodetzean.
- c) Haurdunaldiko aldaketa kronologikoak erregistratu ditu, dagokien kodea esleituz.
- d) Erditzearen emaitza kodetu du.
- e) Haurdunaldian, erditzean eta erdiberriaroiaren konplikazioak eragin ditzaketen amaren gaitzak zerrendatu ditu.
- f) Haurdunaldiari, erditzeari eta erdiberriaroiari aplikatutako prozedura diagnostiko eta terapeutikoak erregistratu ditu.

8. Beste prozesu batzuei loturiko diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko prozesuak egiten ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera eta berriazko araudia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kodetu behar den prozesuaren ezaugarri adierazgarriak identifikatu ditu.
- b) Prozesua kodetu du.
- c) Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak erregistratu ditu.
- d) Prozesu hori kodetzeko araudi orokorra aplikatu du.



c) Oinarrizko edukiak:

1. INFEKZIO- ETA PARASITO-GAIXOTASUNEN KODEKETA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Infekzio- eta parasito-gaixotasunak kodetzea. - Prozedura bat gauzatu ondoren gertatutako infekzio-prozesuak kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Infekzioa. Bilakaera eta kontzeptuak. Infekzio- eta parasito-gaixotasunak sailkatzea. Infekzio-gaixotasun interesgarriak (tuberkulosia, giza immunoeskasiaren birusa, eta abar). - Infekzio- eta parasito-gaixotasunak kodetzeko arauak. Arau orokorrak. Kodetzearen berriazko arauak. Bakteriemia, sepsia eta septizemia. GIB bidezko infekzioa kodetzeko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoaren aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

2. NEOPLASIA-DIAGNOSTIKOEN KODEKETA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Kokapen anatomikoa eta neoplasia-portaera identifikatzea. - Tumore primario eta sekundarioak identifikatzea. - Kasuan kasuko diagnostiko nagusia hautatzea. - Neoplasiak kodetzeko araudia aplikatzea. - Neoplasiak kodetzea. - Neoplasiei loturiko konplikazioak kodetzea. - Prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Neoplasiak sailkatzea, portaeraren eta kokapen anatomikoaren arabera. Neoplasien morfologia. - Neoplasiak kodetzeko arau orokorrak. Berriazko arauak. Diagnostiko nagusia hautatzeko arauak. Neoplasiei loturiko konplikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean.

	<ul style="list-style-type: none"> - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.
--	---

3. GAIXOTASUN SISTEMIKOEN, BURUKO NAHASMENDUEN ETA BESTELAKO PATOLOGIEN KODEKETA EGITEA

	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Gaixotasun sistemikoak kodetzea. - Diabetesa eta beste patologia endokrino batzuk kodetzea. - Tiroide patologia eta beste nahasmendu endokrino batzuk kodetzea. - Buruko nahasmenduak eta substantzia psikotropikoen kontsumoari loturiko nahasmenduak kodetzea. - Genital- eta gernu-aparatuko gaixotasunak kodetzea. - Sortzetiko anomaliak kodetzea. - Jaiotza inguruko denboraldian sortutako gaixotasunak kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Gaixotasun sistemikoak kodetzea. - Diabetesa eta beste patologia endokrino batzuk kodetzea. - Tiroide patologia eta beste nahasmendu endokrino batzuk kodetzea. - Buruko nahasmenduak eta substantzia psikotropikoen kontsumoari loturiko nahasmenduak kodetzea. - Genital- eta gernu-aparatuko gaixotasunak kodetzea. - Sortzetiko anomaliak kodetzea. - Jaiotza inguruko denboraldian sortutako gaixotasunak kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasun sistemikoak, gaixotasun endokrinoak, elikaduraren gaixotasunak, gaixotasun metabolikoak eta nahasmendu immutarioak sailkatzea. - Gaixotasun sistemikoak, gaixotasun endokrinoak, elikaduraren gaixotasunak, gaixotasun metabolikoak eta nahasmendu immutarioak kodetzeko arauak. Diabetes mellitusa. Gluzemia-nahasmenduak. - Buruko nahasmenduak sailkatzea. Buruko nahasmenduak kodetzeko arauak. Toxikoekiko mendekotasuna kodetzeko arauak. - Genital- eta gernu-aparatuko gaixotasunak sailkatzea. Kodetze-arauak. - Sortzetiko anomaliak sailkatzea. Kodetze-arauak. - Jaiotza inguruko denboraldian sortutako gaixotasunak sailkatzea. Kodetze-arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

4. ZIRKULAZIO-APARATUAREN KODEKETA EGITEA

	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Balbulopatiak kodetzea.
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Balbulopatiak kodetzea.



	<ul style="list-style-type: none"> - Hipertentsio arteriala (HTA) kodetzea. - Gutxiegitasun kardiakoa kodetzea, mota eta faktore eragileak identifikatuz. - Miokardio infartu akutua (MIA) gertatzean eman beharreko zainketa identifikatzea. - Kardiopatia iskemikoari loturiko prozesuak kodetzea. - Bihotz-biriketako geldialdia (BBG) kodetzea. - Patologia zerebrobaskularra kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak sailkatzea. - Aparatu hori kodetzeko arauak. Bihotz-balbuletako gaixotasuna. HTA eta gaixotasun hipertentsiboa. HTA kodetzea, loturiko patologia sistemikoarekin. - Kardiopatia iskemikoa kodetzeko arauak. Miokardio infartu akutua (MIA). Zainketa ematea. Arterioesklerosi koronarioa. - Bihotz-biriketako geldialdia (BBG) kodetzeko arauak. - Nahasmendu zerebrobaskularrak kodetzeko arauak. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzeko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

5. ARNAS APARATUKO GAIXOTASUNEN KODEKETA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Pneumonia motak kodetzea. - Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) kodetzea. - Arnas gutxiegitasuna kodetzea. - Biriketako hipertentsioa eta <i>cor pulmonale</i> kodetzea. - Biriketako edema akutua kodetzea. - Pleurako isuria kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arnas aparatuko gaixotasunak sailkatzea. - Arnas aparatuko gaixotasunak kodetzeko arauak. Pneumonia. Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK). BGBK kodetzeko berriazko arauak. - Arnas gutxiegitasuna kodetzeko arauak. - Biriketako hipertentsioa eta <i>cor pulmonale</i> kodetzeko arauak. - Biriketako edema akutua kodetzeko arauak. - Pleurako isuria kodetzeko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena. - Lantaldeko pertsonekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko interesa. - Jakintza berriak bereganatzeko interesa. - Ekimena gertakariak eta ezusteko egoerak ebaztean.
--	---

6. DIGESTIO-APARATUKO GAIXOTASUNEN KODEKETA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Urdail-hesteen traktuko ultzerak kodetzea. - Digestio-odoljarioak kodetzea. - Peritonitisa kodetzea. - Sabelaldeko herniak kodetzea. - Ostomie loturiko konplikazioak kodetzea. - Hepatitisa kodetzea. - Gibeledko zirrosia eta hepatopatia kronikoak kodetzea. - Kolezistitisa eta kolelitiasia kodetzea. - Pankreaseko gaixotasunak kodetzea. - Digestioari loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Digestio-aparatuaren gaixotasunak sailkatzea. - Digestio-aparatuaren gaixotasunak, tartean, urdail-hesteetako ultzerak, digestio-odoljarioak, peritonitisa eta sabelaldeko herniak, kodetzeko arauak. - Prozesu hepatikoak. Hepatitisa. Kodetzeko berariazko araudia. Gibeledko zirrosia eta hepatopatia kronikoak kodetzeko arauak. Kolezistitisa eta kolelitiasia kodetzeko arauak. - Prozesu pankreatikoak. Pankreaseko gaixotasunak kodetzeko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

7. HAURDUNALDIKO, ERDITZEKO ETA JAIOTZA INGURUKO DENBORALDIKO KONPLIKAZIOEN KODEKETA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak



	<p>identifikatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Haurdunaldiko, erditzeko eta jaiotza inguruko denboraldiko kode-sekuentzia zehaztea. - Haurdunaldia, erditzea eta jaiotza inguruko denboraldia kodetzea. - Abortua kodetzea. - Haurdunaldiko, erditzeko eta jaiotza inguruko denboraldiko konplikazioak kodetzea. - Loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutikoak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurdunaldiko, erditzeko eta jaiotza inguruko denboraldiko konplikazioak. Sailkapenak. - Haurdunaldiko, erditzeko eta jaiotza inguruko denboraldiko konplikazioak kodetzeko arauak. Lehentasuna haurdunaldiko, erditzeko eta jaiotza inguruko denboraldiko kode-sekuentzian. Laugarren eta bosgarren digituak erabiltzea. - Haurdunaldiko konplikazioak kodetzeko arauak. Haurdunaldiko kronopatiak. - Abortua kodetzeko arauak. - Erditze arrunta kodetzeko arauak. Erditze arruntari loturiko baldintzak. Erditzearen emaitza. - Erditzeko konplikazioak kodetzeko arauak. Erditzeko kronopatiak. - Jaiotza inguruko denboraldiko konplikazioak kodetzeko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Zehaztasuna informazioa maneiatzean. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

8. BESTE PROZESU BATZUEN KODEKETA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabili beharreko dokumentuen datu adierazgarri eta garrantzitsuak identifikatzea. - Kodetu behar diren datuak hautatzea. - Prozesuak eta prozedurak kodetzea. - Akatsak hautemateko eta zuzentzeko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpo-arrazoia. Sailkapena. Kodetzeko arau orokorrak. - Pozoidurak. Sailkapena. Kodetzeko arau orokorrak. - Botiken kontrako erreakzioak. Sailkapena. Kodetzeko arau orokorrak. - Traumatismoak. Sailkapena. Kodetzeko arau orokorrak. - Beste batzuk.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Araudia betetzea. - Kodeketari buruzko eskuliburuak eta gidak zehatz betetzea. - Ordena eta metodoa jarduerak egitean. - Datuen konfidentzialtasuna errespetatzea. - Ekimena arazoan aurrean. - Ezagutzak eguneratzeko interesa. - Informazioa bilatzeko ekimena.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu honetan, nagusiki, ikasi eta aplikatu beharreko teknikak daude. Horrenbestez, *a priori*, ez dago blokeak lantzeko aurrez ezarritako ordenarik.

Unitate didaktikoen sekuentzia erabakitzeke, beste irizpide batzuei erreparatu beharko zaie; esaterako, ikasleen ezaugarriei edo gainerako moduluen irakasleekiko koordinazioari.

2) Alderdi metodologikoak

Modulua garatzeko, uneoro uztartu behar dira jarduera praktikoak eta teorikoak. Azalpen teorikoak, nahikoa adibide emanda, araudia ezagutzera bideratuko dira. Kasu klinikoaren gaineko jarduera praktikoak egingo dira gero, alta-txostenak kodetzeko.

Ikasleek autonomia eskuratzea sustatuko da, bereziki informazio edo datu gehiago bilatzeko garaian.

Kasu praktiko bakoitza amaitu eta taldean aztertzea komeni da, egon daitezkeen erroreen jatorria aztertzeke eta ezarritako arauak eta prozedurak betetzearen garrantziaz ohartzeko.

Landuko diren kasuak egiazkoak ez diren arren, behar bezalako jarrerarekin landu beharko dira. Jarrera horiei eustea sistematikoki agindu behar da, horien ikaskuntza ziurtatzeko. Konfidentziasunari dagokionez, kasu klinikoak aztertu daitezke, konfidentziasunaren garrantziaz jabetzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Gaixotasun eta prozesu diagnostiko nahiz terapeutiko batzuen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Kodetzeko tekniken ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Kodetze-prozesuan erabilitako eskuliburuak eta dokumentuak identifikatzea eta erabiltzea.
- ✓ Kodeketa egiteko behar den informazioa erauzteke ariketak ebatzea.
- ✓ Prozesu patologikoak, konplikazioak eta diagnostikoak kodetzea, hala nagusiak nola sekundarioak.
- ✓ Prozedura terapeutikoak, errehabilitazio-prozedurak eta aintzat hartutako bestelako datuak kodetzea.



8. lanbide-modulua LAGUNTZA PSIKOSOSIALA PAZIENTE-ERABILTZAILERARI

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laguntza psikosoziala paziente-erabiltzaileari
Kodea:	1521
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	80
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	10 / 11 / 17 / 18 / 20

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Pazientearentzako edo bere senideentzako laguntza psikologikoa eskaintzeko oinarriko teknikak aplikatzen ditu, patologiarri zor zaizkion jarrerak eta egoera emozionalak hautemanez.

Ebaluazio-irizpideak:

- Nortasunaren garapenari eragiten dioten faktoreak identifikatu ditu.
- Erabiltzailea haurra, gaztea, heldua, adinekoa, kronikoa, terminala, onkologikoa edo desgaitasunen bat duena den bereizi du, bai eta bere aldaketa psikologikoak ere.
- Gaixotasunera egokitzeko prozesuaren sekuentzia deskribatu du.
- Nortasunaren defentsa-mekanismo nagusiak ezaugarritu ditu.
- Portaera-disfuntzioaren mota nagusiak eta horien zantzuak sailkatu ditu.
- Portaera-disfuntzioa eragiten duten baldintza psikologiko posibleak aztertu ditu.
- Egoera psikologiko bereziak direla-eta gerta daitezkeen portaeraren alterazioak deskribatu ditu.
- Laguntza psikologikorako mekanismoak ezarri eta protokolizatu ditu, tipologia bakoitzarentzat.
- Laguntza-harremana, bere osagaiak eta garatu beharreko trebetasunak aztertu ditu, laguntza psikologikoaren oinarri gisa egiteko.

2. Komunikazio-teknikak aplikatzen ditu pazienteekiko eta senideekiko harreman profesionalan, kasuan kasuko informazio egokia hautatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazioaren kontzeptuak, elementuak, mugak, berau aldatzen duten faktoreak eta motak identifikatu ditu.
- b) Komunikazio ona izateko aukera ematen duten hizkuntza, teknika eta estrategia mota desberdinak aztertu ditu.
- c) Komunikazio ezin hobea izateko trebetasun pertsonalak eta sozialak erabili ditu.
- d) Erabiltzaileari emandako informazioaren ezaugarriak ezarri ditu (berehalakotasuna, zehaztasuna).
- e) Erabiltzaileei informatzeko prozesuan komunikazio-teknikak aplikatu ditu.
- f) Osasun-langilearen eta pazientearen arteko komunikazio profesionalaren oinarritzko printzipioak definitu ditu.
- g) Komunikazio-zailtasunak daudenean, beharrezko kontrol-neurriak aplikatu ditu.

3. Pazienteari eta bere senideei orientabideak eta aholkuak eskaintzen dizkie osasun-zentroko egonaldiari buruz, eragin soziokulturalak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasunaren aurreko gizarte-jokabideak identifikatu ditu.
- b) Gizabanakoaren eta bere ingurunearen gizarte-premiak identifikatu ditu.
- c) Zehaztutako ekintza-planaren arabera, bezeroen arretaosatzen duten faseak deskribatu ditu.
- d) Pazienteari eta senideei emandako aholkularitzaren ezaugarriak deskribatu ditu (argitasuna, zehaztasuna).
- e) Pazienteen, senideen eta erabiltzaileen eskubideak eta betekizunak aztertu ditu, indarreko legediaren arabera.
- f) Gogobetetze-inkestak kudeatu ditu.
- g) Erabiltzaileen beharrei erantzuteko interesa eta kezka azaldu du.
- h) Erabiltzailearekiko harremanean, adetasunak, zintzotasunak, errespetuak, diskrezioak, amultsutasunak eta interesak duten garrantzia baloratu du.

4. Erabiltzaileek aurkeztutako erreklamazioei erantzuten die, eta jarduketa-irizpideak eta -prozedurak ezagutzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erreklamazio eta kexen aurrean azaldu beharreko jarrera, portaera eta interesa tipifikatu ditu, eta erabiltzaileari informazioa ematean estilo asertiboa erabili du.
- b) Bat ez-etortzeak hautemateko eta horien segimendua egiteko prozesua definitu du.
- c) Gatazkak eta erreklamazioak ebazteko teknika egokiak aplikatu ditu.
- d) Indarrean dagoen legeriak nabarmentzen dituen erreklamazioen alderdiak aintzat hartu ditu.
- e) Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eta izapidetzeko prozedura deskribatu du.
- f) Erraz konpon daitezkeen erreklamazioen aurrean erabiltzaileei eskain dakizkiekeen prozedurarako hautabideak aukeratu ditu.
- g) Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkion egoerak identifikatu ditu, erantzun eraginkor bat bizkor jasotzeko.



- h) Erabiltzaileen gorabeherei eta erreklamazioei buruzko informazioaren eta emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko adierazleen arteko lotura azaldu du.

5. Esku hartzeko esparrua ezagutzen du, eta pazientearen arretan dituen eginkizunak zehaztu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun Sistema Nazionalaren asistentzia-mailak eta prestazio motak aztertu ditu.
- b) Osasun-erakundearen egitura organikoak eta funtzionalak identifikatu ditu.
- c) Lanbide arteko taldekideak zehaztu ditu.
- d) Pazientearen arretan profesional bakoitzak dituen eginkizunak identifikatu ditu.
- e) Lanbide arteko taldean parte hartzeko eta taldearekin elkarlanean jarduteko jarraibideak deskribatu ditu.
- f) Talde-lanaren konnotazioak deskribatu ditu.
- g) Adeitasuna, zintzotasuna eta jarrera lagunkoia eta sentikorra erakutsi du.
- h) Auzi etikoak eta legalak eta pribatutasun-politika aztertu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. LAGUNTZA PSIKOLOGIKORAKO OINARRIZKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen ezaugarri psikologikoak identifikatzea. - Pertsonengan zantzuak, emozioak eta alterazio posibleak hautematea. - Aplikatu beharreko laguntza psikologikorako teknika identifikatu du. - Laguntza psikologikorako teknika batzuk aplikatu dizkie pertsona mota batzuei, tartean, pazienteei eta horiekin daudenei. - Laguntza-harremaneko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nortasunaren garapena. Pertsonaren oinarrizko premiak. - Giza garapenaren eboluzio-etapak. Ezaugarriak. - Aldaketa psikologikoak eta egokitzapena gaixotasunean. Prozesuaren sekuentzia eta ezaugarriak hainbat kolektibotan (paziente kronikoak, onkologikoak, geriatrikoak eta abar). - Nortasunaren defentsa-mekanismoak. - Portaeraren disfunczioak eta nahasmenduak. Arrazoiak eta motak. Antsietatea. Estresa. Larritasuna. Agresibitatea. - Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonak. - Laguntza-harremana. Faseak. Elementuak. - Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Elementuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna pazienteekiko eta horien senideekiko edo alboan dituztenekiko tratuan. - Bizimodu eta pentsamolde desberdineko pertsonakiko begirunea. - Pazienteen premiak ulertzeko eta asebetetzeko interesa eta ardura. - Diskrezioa datuak erabiltzean. - Aserbitibitatea ideiak adieraztean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean. - Norberaren itxura eta higiena zaintzeko interesa. - Lana arduraz egitea. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.

2. KOMUNIKAZIO-TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio- eta aholku-teknikak aplikatzea. - Informazioa prestatzea eta antolatzea. - Kasuan kasuko komunikazio-teknikak aplikatzea. - Zailtasun bereziak dituzten pertsonekin (hipoakusia, demenzia eta abar) komunikazio-teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa. Elementuak. Komunikazio-teknikak. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa. Ordezko mintzairak. - Komunikazioa errazten eta eragozten duten faktoreak. Komunikazio-interferentziak. Trebetasun pertsonalak eta sozialak. Asertibitatea. - Erabiltzaileentzako informazio-teknikak. Ezaugarriak (argitasuna, zehaztasuna, ordena eta abar). - Osasun-profesionalaren eta pazientearen arteko komunikazioa. Ezaugarriak. Komunikazioa errazten eta zailtzen duten elementuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna pazienteekiko eta horien senideekiko edo alboan dituztenekiko tratuan. - Bizimodu eta pentsamolde desberdineko pertsonetikiko begirunea. - Pazienteen premiak ulertzeko eta asebetetzeko interesa eta ardura. - Iraunkortasuna sekretu profesionala mantentzen. - Asertibitatea ideiak adieraztean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean. - Norberaren itxura eta higieena zaintzeko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.

3. ORIENTABIDE ETA AHOALKULARITZA PSIKOSOSIALA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Orientabide- eta aholku-teknikak aplikatzea. - Pazienteei eta senideei edo alboan dituztenei orientabidea eta bitartekaritza eskaintzeko estrategiak erabiltzea. - Gogobetetze-inkestak eta informazioa eskuratzeko beste metodo batzuk egitea eta kudeatzea. - Pazienteei dituzten eskubideak eta betekizunak jakinarazteko teknikak aplikatzea. - Informazioa, tartean, legedia eta bestelako gaiak, bilatzeko eta kontsultatzeko bitartekoak erabiltzea. - Indarrean dauden araudiak eta legeriak interpretatzea eta aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antropologia eta soziologiaren elementuak. Herritarrek gaixotasunari eta desgaitasunari buruz daukaten iritzia. Pazienteen eta horien senideen oinarrizko premiak. - Orientabide- eta aholku-teknikak. Pazientearen arreta. Pertsona motak. - Pazienteen eskubideak eta betekizunak. Indarreko legeria eta araudia. - Informazioa lortzeko metodoak. Gogobetetze-inkestak. - Pazientearen arretako prestakuntza- eta orientabide-plana.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna pazienteekiko eta horien senideekiko edo alboan dituztenekiko tratuan. - Bizimodu eta pentsamolde desberdineko pertsonenekiko begirunea. - Pertsona bakoitzaren baldintza eta egoeretara egokitzeko interesa. - Diskrezioa datuak erabiltzean. - Aseritibitatea ideiak adieraztean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean. - Norberaren itxura eta higieua zaintzeko interesa. - Erantzukizuna bere funtzioak betetzean. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.
---------------------	--

4. ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak aplikatzea. - Kexei, erreklamazioei eta iradokizunei buruzko protokoloak interpretatzea. - Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea eta izapidetzea. - Zerbitzu-hobekuntzak izapidetzea. - Informazioa, tartean, legedia eta bestelako gaiak, bilatzeko eta kontsultatzeko bitartekoak erabiltzea. - Taldean lan egiteko eta gatazkek ebazteko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eta izapidetzeko teknikak. Ekintza-protokoloak. - Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak. Jarrera eta portaera pertsonala. - Informazio-sistemak. - Erabiltzaileek kalitateari buruz duten iritzia eta horien gogobetetze-maila ezagutzeko sistemak. Inkestak. Adierazleak. - Eskainitako zerbitzua hobetzeko bitartekoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna pazienteekiko eta horien senideekiko edo alboan dituztenekiko tratuan. - Pazienteen premiak ulertzeko eta asebetetzeko interesa eta ardura. - Diskrezioa datuak erabiltzean. - Indarrean dagoen legedia betetzeko interesa. - Aseritibitatea ideiak adieraztean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean. - Lana arduraz egitea. - Lana ordenatuta eta zehaztasunez egitea. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

5. ESKU HARTZEKO ESPARRUA EZAGUTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun- eta gizarte-egiturak identifikatzea. - Profesionalen eginkizunak eta ardurak identifikatzea. - Taldean lan egiteko eta gatazkek ebazteko teknikak aplikatzea. - Informazioa, tartean, legedia eta bestelako gaiak, bilatzeko eta kontsultatzeko bitartekoak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-erakundeen egitura organikoak eta funtzionalak. Laguntza-maila. Prestazioak. Erakunde motak. Pazientearen arreta-zerbitzuak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide arteko taldeak eta gizarte-eragileak. Eginkizunak eta ardurak. - Osasun-dokumentazioko eta -administrazioko goi-mailako teknikariaren eginkizuna pazientearen arretarako diziplinarteko taldean. Gaitasunak eta jarrerak. - Lanbide arteko komunikazioa. Taldean lan egiteko eta gatazkak ebazteko teknikak. - Erantzukizun deontologikoa. Sekretu profesionala. Kode deontologikoa. Leheria.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Asertibitatea ideiak adieraztean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa helaraztean. - Norberaren itxura eta higieena zaintzeko interesa. - Lana arduraz egitea. - Lana ordenatuta eta zehaztasunez egitea. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Indarrean dagoen legedia betetzeko interesa. - Lanbidearekin zerikusia daukan informazioa lortzeko interesa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluaren hasieran, esku-hartzearen esparruari, osasun-erakundeei, lanbide-profilari, lantaldeari eta abarri buruzko edukiak landuko dira (5. blokea), baliagarriak direlako ikasleek eduki horiek ikasteko arrazoiak eta etorkizun profesionalarekin duten lotura uler ditzaten.

Ondoren, nortasunari, pertsonen premiei, garapen ebolutiboari eta abarri buruzko edukiak ikasiko dira, hala nola gaixorik dauden pertsonen ezaugarriei buruzkoak, guztiak ere 1. blokean deskribatuta daudenak.

Ondoren, izaera zabaleko komunikazio-teknikak landu daitezke (2. blokea), baliagarriak direlako honakoak ikertzeko: profesionalen eta pazienteen arteko harremana, laguntza psikologikoa, pazienteekiko harremanetarako laguntza (1. blokea) eta kexa, iradokizun eta erreklamazioei erantzuteko metodoak (3. eta 4. blokeak).

Azkenik, lankideekiko harremana aztertuko da, hala nola talde-lanerako teknikak eta jarrerak eta berdinen arteko gatazken ebazpena (5. blokea).

2) Alderdi metodologikoak

Unitate didaktiko bakoitzari hasiera ematean, komeni da denbora-tarte jakin bat eskaintzea unitatea bera aurkezteari, ikasleek unitatearen helburua ezagutzeko eta, era berean, unitatearen inguruan duten ezagutzari eta interesari buruzko informazioa biltzeko. Horretarako, galdetegiren bat erabili daiteke, edota eztabaida labur bat abiarazi edo kasu errazen bat ebaztea proposatu. Edonola ere, horiek guztiek barne hartuko dituzte unitate bakoitzeko alderdi interesgarriak.

Esku-hartzearen esparruari edo nortasunaren azterketari buruzko unitate didaktikoetan, kontzeptu-edukiek pisu handiagoa izan dezakete. Ikaslearen inplikazioa errazteko,



jarduera teorikoagoak diseinatu beharko dira, hitzeko aurkezpenak kasu, eta jarduera parte-hartzaileagoekin tartekatu, kasu jakin batean bete beharreko jarraibideak hautatzeari buruzko ariketekin kasu, edota inguruneko zentroak identifikatzeari buruzkoekin, taldeka informazioa biltzekoekin eta abarrekin.

Ikasgelako jarduerak balio behar dute ikasleak erraz molda daitezzen sektoreko zentroetara. Horrenbestez, funtsezkoa da ingurunera eta tituluari loturiko lanbide-jardueretara egokitzea. Horretarako, kasu hipotetikoetako datuak eta ezaugarriak, gauzatu beharreko prozesuak, dokumentuak edo simulatutako egoerak gaur egungoak eta ikaslearen ingurune hurbilean kokatutakoak izan beharko dira.

Modulu honen gaitasunaren zati handi batek komunikazio- eta harreman-teknikak askotariko testuinguruetan eta pertsonekin (pazienteak, horien senideak eta lagunak) aplikatzearekin duenez zerikusia, irakaskuntza-jarduerak zailtasun handiagoa izango du. Eduki horiek lantzeko, ikasleei kasu hipotetikoak proposatuko zaizkie, beren iritzia ematera eta horren arabera jardutera behartzeko. Horrenbestez, ikasleek hitz egin beharko dute; keinuak egingo dituzte; pertsonengana hurbilduko dira; ezetzak emango dituzte; galderak egingo dituzte; laguntza emango dute eta abar. Horiek guztiak ordenan, argi, era asertiboan eta adeitasunez egingo dituzte. Kasu hipotetiko horiek modu teorikoan landu daitezke (Zer egin behar da egoera honetan? Nola antolatuko zenuke egoera hori? Zer esango zenioke?), baina errepresentazio bidez ere landu daitezke, ondoren, portaera, adierazpidea eta keinuak, indarguneak eta ahulguneak, hobekuntza-proposamenak, gabetasunak eta abar aztertzeko.

Egoera edo kasu horiek askotarikoak izan behar dira (informazioa ematea, kexa bati erantzutea, gatazka bat konpontzea eta abar) eta eragindako pertsonak ere bai (adinean sartutako pertsonak edo gazteak, haserre dauden pertsonak, kirurgiako pazienteak, paziente terminalak eta abar), ikasleek ahalik eta ikuspegi zabalena izan dezaten.

Horri lotuta, presentzia eta itxura pertsonala aztertuko dira, lanbidearen berezko ezaugarri irizita. Era berean, ingurune horretarako egokiak diren estiloak adieraziko dira, arreta eman beharreko pertsonak eta pazienteak kontuan hartuta eta, hori bai, ikaslearen ezaugarriak errespetatuta.

Modulua ikasteko, ikasgelaz gain, komeni da simulazioak egiteko beste areto bat edukitzea, hala nola kontsultak, kexak eta abar izapidetzeko informatika-gela erabiltzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Nortasun-osagaien eta etapa ebolutiboen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Pazientearen ezaugarri psikologikoak eta gaixotasunera egokitze mekanismoak deskribatzea.
- ✓ Besteak beste, komunikazio-, informazio-, orientabide-, eta laguntza-tekniken eta gatazkak ebazteko eta taldean lan egiteko tekniken ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Informazio- eta komunikazio-teknikak aplikatzea.
- ✓ Aholkularitza-teknikak aplikatzea hainbat pertsonakin.
- ✓ Iradokizunen, kexen eta erreklamazioen aurrean jarduteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Talde-lana hobetzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Gatazkak konpontzeko teknikak aplikatzea.

9. lanbide-modulua

DATUAK BALIDATZEA ETA USTIATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Datuak balidatzea eta ustiatzea
Kodea:	1522
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	120
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Prozedura sanitario eta asistentzialak (Irakasle tekniko edo Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC2077_3: Datu klinikoak eta ez-klinikoak ustiatzea informazio kliniko eta asistentzialeko sistemarako, kalitate-kontrolerako eta ikerketarako.
Helburu orokorrak:	8 / 9

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Anlisi estatistikoak egiten ditu aplikazio informatikoen bitartez, prozedurak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Populazio bat aztertzeko lagin adierazgarria lortzeko prozesua zuzen diseinatu du.
- Datuak zuzen multzokatu ditu, maiztasunak interpretatuz eta horien irudikapen grafikoa lortuz.
- Populazio edo lagin baten ezaugarriak deskribatzen dituzten parametro estatistikoak kalkulatu ditu.
- Datu klinikoaren eta ez-klinikoaren tratamendu estatistikorako tresna informatiko bat erabili du.
- Populazioaren edo laginaren ezaugarriei buruzko txosten deskribatzailea egin du, parametro estatistikoak eta loturiko irudikapen grafikoak interpretatuz.

2. Probabilitate-balioak zuzen kalkulatu ditu, banaketa normaleko ausazko aldagai bat emanda, eta emaitzak interpretatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:



- Banaketa eta kurba normalaren ezaugarriak eta horiek probabilitate-kalkuluan zein aplikazio dituzten deskribatu ditu.
- Aldagai baten normaltasuna egiaztatu du.
- Ausazko gertakari baten probabilitatea kalkulatu du, aldagaia aurrez tipifikatuz eta balio horiek jasota dauden taulak erabiliz.
- Balio tipikoak kalkulatzearen eta desbiderapen tipikoaren arteko lotura azaldu du.
- Taula mediko bateko 2σ balioak interpretatu ditu.

3. Osasuneko informazio-sistemaren eraikuntzan parte hartzen du, datuak erregistratuz eta legedi egokia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Osasuneko informazio-sisteman parte hartzearen garrantzia azaldu du.
- Informazio-sistema kliniko-asistentzial baten osagaiak deskribatu ditu.
- Osasun-datuak erregistratzeko berariazko aplikazio bat erabili du.
- Datuak babesteko araudiko funtsezko alderdiak azaldu ditu.
- Datuak erregistratzeko eginkizuna eta osasun-zentroko beste eginkizun batzuk koordinatzeko prozesua azaldu du.
- Osasuneko datuen kalitate-kontrolaren alderdiak eta baldintzak zehaztu ditu.

4. Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren egitura, erabilgarritasunak, egiaztapenak eta ustiapenak erabiltzen ditu, aplikazioak identifikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren ezaugarriak deskribatu ditu, hala ospitalearenak, nola arreta anbulatorio espezializatuarenak.
- Datuen oinarrizko gutxieneko multzoko aldagai klinikoen eta ez-klinikoen arteko desberdintasunak zehaztu ditu.
- Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa bidali aurretik egin beharreko egiaztapenak kontuan hartu ditu.
- Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren erabilerak eta aplikazioak identifikatu ditu, datu-ustiapenak eta -analisiak eginez, tresna informatikoen bitartez.
- Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren informazioa zenbateko maiztasunarekin eta nori bidali behar zaion zehaztu du.

5. Pazienteak sailkatzeko sistemak identifikatu ditu eta horiek osasun-kudeaketan zein aplikazio duten zehaztu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Pazienteak sailkatzeko sistemen jatorria identifikatu du, hala nola oinarriak, premiak eta ezaugarriak.
- Pazienteak sailkatzeko sistema bat egiteko beharrezkoak diren osagaiak zehaztu ditu.
- Paziente-sailkapen motak zehaztu ditu, horien arteko desberdintasunak eta antzekotasunak deskribatuz.
- Berrikusi eta egiaztatu behar diren sailkapen-talde atipikoak identifikatu ditu.
- Pazienteak sailkatzeko sistemen erabilgarritasuna aitortu du, osasun-kudeaketaren esparruan «pisua» kontzeptua txertatuz.

- f) Ospitale-produktuari eta ospitale-ekoizpenaren prozesuei loturiko kontzeptuak deskribatu ditu.
- g) Osasun-produktuaren emaitza neurtu du, osagai guztiak kontuan hartuz.

6. Datuak ustiatzeko eta egiaztatzeko prozesua hobetzeko ekintzak hautatzen ditu, lanpostuari dagozkion eginkizunetan kalitate-irizpideak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesu bateko eginkizunak, erantzukizunak, erregistroak eta harremanak deskribatu ditu.
- b) Prozesu bat neurtzeko adierazle egokiak diseinatu ditu.
- c) Prozesu baten adierazleen emaitzak aztertu ditu.
- d) Prozesua hobetzeko ekintzak proposatu ditu.
- e) Jardunbide kliniko egokiak agerian uzten dituen dokumentazio bibliografikoa aurkitu du, bilaketa-irizpideak aplikatuz eta ebidentzia zientifiko onena hautatuz.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ANALISI ESTATISTIKOAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aztertuko diren populazioak definitzea. Laginketa mota hautatzea. Lagin adierazgarriak erauzteko teknikak aplikatzea. - Aldagaiak eta neurketa-eskalak hautatzea eta zehaztea. - Maiztasun-banaketaren taulak egitea. - Datu kualitatibo eta kuantitatibo bidezko grafikoak egitea. - Populazio edo lagin bateko parametroak edo estatistikoak lortzea. - Datu klinikoen tratamendu estatistikorako informatika-tresnak erabiltzea. - Populazioen edo laginen gaineko txosten deskribatzaileak egitea tabulazioaren, irudikapen grafikoaren eta parametroen edo estatistikoaren interpretazioaren bidez.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Estatistika. Estatistika deskriptiboa. Tabulazioa. Datuen irudikapen grafikoa. Estatistikoak lortzea. Estatistika inferentziala. - Populazioa. Lagina. Laginketa motak. Laginketa-teknikak. - Aldagai estatistikoak. Motak (kualitatiboak eta kuantitatiboak). Neurketa-eskalak. - Datuak multzokatzeko sistemak. Aldagai kualitatiboen edo kuantitatiboen maiztasun-taulak (maiztasun absolutuak, erlatiboak, metatuak, sarrera bikoitzekoak eta maiztasun multzokatuak). - Datu kualitatibo eta kuantitatiboak irudikatzeko sistemak (barra-grafikoak, sektore-diagramak, histogramak, maiztasun-poligonoak, kurba metatua eta abar). - Zentrorako joeraren neurriak. Batezbestekoa. Mediana. Moda. - Posizio-neurriak. Kuartilak. Pertzentilak. Beste batzuk. Kutxa-diagrama. - Aldakortasun- edo barreiadura-neurriak. Batez besteko desbideratzea. Desbideratze tipikoa. Bariantza. Heina. Beste batzuk. - Koerlazioa. Kobariantza. Korrelazio-koefizientea. - Zorroztasun-neurriak. Asimetria.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzean.



	<ul style="list-style-type: none"> - Doitasuna datuak erabiltzean. - Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.
--	--

2. PROBABILITATE-BALIOAK KALKULATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banaketa normalaren ezaugarriak aztertzea. - Gertakarien probabilitatea kalkulatzeko eta interpretatzeko. - Taula mediko bateko 2σ balioak interpretatzeko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aldagai jarraituen banaketak. - Banaketa normala. Kurba normalaren propietateak. Banaketa normal tipifikatua. Balio tipikoak eta desbideratze tipikoa. Ezaugarriak. Erabilerak. - Probabilitatea kalkulatzeko. 2σ limiteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzean. - Doitasuna datuak erabiltzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea.

3. OSASUNeko INFORMAZIO-SISTEMA BAT ERAIKITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio kliniko eta asistentzialeko sistema bat osatzen duten elementuen deskribapena. - Datu kliniko-asistentzialak erregistratzeko eta ustiatzeko berariazko aplikazio informatikoak erabiltzea. - Osasun-datuen kalitate-kontrolak egitea. Lagina hautatzea. Erroreak hautematea. Erroreak sailkatzea. Kalitate-adierazleak osatzea. - Izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legedia aztertzea eta interpretatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuneko informazio-sistemak. Elementuak. Erabilerak. Datu kliniko-asistentzialak erregistratzeko eta ustiatzeko berariazko aplikazioak. Osasun-zentroko beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko prozesua. - Informazioa kudeatzea. Pazienteen aurkibide-fitxategia. Historia klinikoa. Erregistro asistentzialak. Minbiziaren erregistroa. Beste erregistro batzuk. - Informazio-sistemen lege-alderdiak. Sekretu profesionala. Izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legedia.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuneko datu-baseen kalitatea ebaluatzeko eta sustatzeko interesa. - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzean. - Doitasuna datuak erabiltzean. - Erabiltzailearekin lankidetzan jarduteko interesa, bilaketa eta informazioa horren premietara egokitzeko. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea.
--------------	--

4. DATUEN OINARRIZKO GUTXIENEO MULTZOAREN EGITURA, UTILITATEAK ETA BALIDATZEA ERABILTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia-erkidegoetako datuen oinarrizko gutxieneko multzoen analisi konparatiboa. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoen orriak betetzea eta informatikoki erregistratzea. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren kalitatea ebaluatzea. Errore administratiboen eta klinikoaren laginketa eta horiek hautematea. - Kalitate-adierazleak eta emaitza-txostenak osatzea. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoko datuak baliatzea eta ustiatzea, tresna-informatikoak erabiliz. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa bidaltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa. Definizioa. Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren osaera eta ezaugarriak. - Lurraldearteko Kontseiluaren datuen oinarrizko gutxieneko multzoari buruzko batzorde teknikoa. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren oinarrizko betekizunak. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren erabilera eta aplikazioak. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren kalitatea. Kalitatea zehazteko metodologia. - Ustiatzea eta balidatzea. - Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa bidaltzeko teknikak. Maiztasuna. Hartzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzean. - Doitasuna datuak erabiltzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Arauak, protokoloak eta erabilera-argibideak zorrotz betetzea. - Sormena emaitzak aurkeztean.



	<ul style="list-style-type: none"> - Kalitate-kontrolen erabilitako metodologia zorrotz aplikatzea. - Osasuneko datu-baseen kalitatea ebaluatzeko eta sustatzeko interesa.
--	--

5. PAZIENTEAK SAILKATZEKO SISTEMAK IDENTIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pazienteak sailkatzeko sistemen gaineko ikerlan konparatiboa. - Diagnostiko-talde erlazionatuak (DTE) esleitzea. - Diagnostiko-talde erlazionatu atipikoak edo informazio baliogabea dutenak berrikustea eta balidatzea. - Ospitaleko produkzio-prozesua aztertzea. - Pazienteak sailkatzeko sistemak aplikatzea osasun-kudeaketan. - Ospitale-produktua neurtzea. - Pisuak esleitzea DTEei eta arretaren kostua kalkulatzeko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pazienteak sailkatzeko sistemen jatorria. Medicare eta Medicaid. - Pazienteak sailkatzeko sistemak. Sistemak egiteko beharrezkoak diren oinarriak, ezaugarriak eta informazioa. - Pazienteak sailkatzeko sistema-ereduak. DTE (Diagnosis Relation Groups). All Patient Diagnosis Relation Groups (APDRG). Patient Management Categories (PMC). Beste batzuk. - Sailkapenaren egitura, hierarkia eta algoritmoak. Informazio atipikoa edo baliogabea duen APGRDa. - «Case-mix» edo «ospitaleko kasuistika» kontzeptua. DTEen pisua. - Ospitale-produktua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzea. - Doitasuna datuak erabiltzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentziasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztea. - Arauak, protokoloak eta erabilera-argibideak zorrotz betetzea.

6. OSASUN-ARRETAREN KALITATEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Asistentzien, asistentzien kalitatearen eta bestelakoen gaineko osasun-adierazleak kalkulatzeko. - Aginte-taula eratzea. - Protokolo eta gida klinikoak interpretatzea. - Osasuneko datu-basetan jardunbide egoki klinikoaren gaineko bibliografia bilatzea. Ebidentzia zientifikoa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-zerbitzuen kalitatearen historia eta zehaztapena. Kalitatea ebaluatzearen premia. - Erabateko kalitatea kudeatzeko ereduak. EFQM ereduak. ISO arauak.

	<p>Konpetentzien araberako kudeaketa. Beste batzuk.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prozesuen araberako kudeaketa. Jardunbide klinikoaren aldakortasuna. Protokolo eta gida klinikoak. - Prozesu bat neurtzeko osasun-adierazle egokiak. Diseinatzeko teknikak. Adierazleak, indizeak eta aginte-taulak. Kalitatea neurtzea. Hobetzeko neurriak - Pazientearen segurtasuna. - Egiatapena eta ziurtapena. - Ikerketa, arretaren kalitate-berme gisa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeko lanean lankidetzan jarduteko interesa. - Ordena eta doitasuna lan egitean. - Erantzukizuna eta autonomia dagozkion eginkizunak gauzatzean. - Doitasuna datuak erabiltzean. - Erantzuteko gaitasuna ezusteko egoeren aurrean. - Datuen konfidentzialtasunari eta babesari buruzko araudia errespetatzea. - Ezagutzak eguneratzeko eta birgaikuntza profesionalarekiko interesa. - Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia errespetatzea. - Sormena emaitzak aurkeztean. - Lanaren kalitatea hobetzeko ideiak, egitasmoak eta irtenbideak proposatzeko interesa.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen ibilbide didaktikoan bi zati bereiz daitezke; lehena, osasuneko datu-baseak balidatzearena, eta bigarrena, datu-base-horiek ustiatzearena.

Osasuneko datu-baseak balidatzearen zatia 3. blokean, *Osasuneko informazio-sistema bat eraikitzea*, azaldutako osasuneko informazio-sistema aztertuz hasi daiteke, modulu honetan ikasi beharreko osasuneko datu-base gehienen abiapuntu gisa.

Hasteko, 5. moduluan, *Osasun arloko informazio eta sailkapen sistemak*, ikasitako elementuak eta utilitateak erreparatuko dira eta, ondoren, osasun-zentroko beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko prozesuei helduko zaie. Osasun-zentroetako informazioaren kudeaketa aztertuko da, 4. moduluan, *Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa*, ikasitako pazienteen aurkibide-fitxategia eta historia klinikoa gogora ekarriz. Ondoren, informazio-sistemen lege-alderdiak aztertuko dira, baita sekretu profesionala eta izaera pertsonaleko datuen babesari buruz indarrean dagoen legedia, modulu osoan, are heziketa-ziklo osoan ere, aplikatzekoa dena.

Jarraian, 4. blokean, *Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa*, azaldutako datuen oinarrizko gutxieneko multzoa ikasteari ekitea komeni da. Hasteko, datuen oinarrizko gutxieneko multzoa zehaztuko da, eta Euskadiko datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren osaera eta ezaugarriak ikasiko, gainerako autonomia-erkidegoko multzoekin alderatuz. Gero, komeni da datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren orriak betetzeari, informatikoki erregistratzeari, horien hartzaile motei eta bidalketa-epeteei heltzea.



Ospitaleen arloan nagusi den datu-basea (datuen oinarritzko gutxieneko multzoa) aztertuta, beste datu-base batzuk ikasi daitezke modu orokorrean, 3. blokean landutako minbiziaren erregistroari arreta gehiago eskainita.

Jarraian, 5. blokeko edukiak landu daitezke: *Pazienteak sailkatzeko sistemak identifikatzea*. Hasteko, pazienteak sailkatzeko sistemen jatorria, oinarriak, ezaugarriak eta horiek egiteko beharrezkoa den informazioa landuko da. Horren ondoren, komeni da pazienteak sailkatzeko sistema-ereduen azterlan konparatibo bat egin eta aztertzea, – GRDs (Diagnosis Relation Groups), All Patient Diagnosis Relation Groups (APDRG), Patient Management Categories (PMCs)– abantailak eta eragozpenak adieraziz, eta behin sistema mota desberdinak ikasita, gure ingurunean gehien erabilitako sisteman (APDRG) jarriko da arreta.

Ondoren, komeni da 1. eta 2. blokeak ikastea: *Analisi estatistikoak egitea* eta *Probabilitate-balioak kalkulatzeko hurrenez hurren*. Hala, ikasleak kalitate-kontrollean eta osasuneko datuen ustiatetan erabili beharko dituen tresnak menderatuko ditu.

Estatistikan eta laginketan oinarritzko ezagutzak eskuratuta, 3. blokean, *Osasuneko informazio-sistema eraikitzea*, azaldutako osasun-datuen kalitate-kontrola landuko da; ondoren, 4. blokean, *Datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren egitura, utilitateak eta balidatzeak erabiltzea*, aztertutako datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren kalitate-kontrola. Horien bidez hauteman ahal izango dira errore administratiboak eta klinikoak, eta estatistikoki tratatuko dira, eta grafikoki irudikatuko, 1. blokean ikasitako ezagutzen arabera.

Osasuneko datu-baseak ustiatzearen bigarren zatian, datu-baseak erabiltzeko zenbait teknika irakatsiko dira, 4. blokeko edukietatik hasita, datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren ustiaketa, tratamendu estatistikoa eta bitarteko informatikoen bidezko txostenen aurkezpena.

Ondoren, hainbat kontzeptu ikasiko dira: ospitaleko ekoizpen-prozesua, ospitale-produktua eta ospitaleko *case mix*-a edo kasuistika, eta horiek pazienteak sailkatzeko sistemak (ospitale-produktua zenbatestea eta arreta-kostua kalkulatzeko) osasun-kudeaketan aplikatzearekin duten lotura zehaztuta. Sistema horiek 5. blokean zehaztu dira: *Pazienteak sailkatzeko sistemak identifikatzea*. Zerbitzuaren fakturazioari loturiko izapideak jasotzen ditu 1. moduluak, *Pazienteak kudeatzea*. Modulu honetan, berriz, DTEak aplikatzeari loturiko kostuak kalkulatzeko.

Ondoren, 6. blokean azaletik deskribatutako osasun-arretaren kalitateari loturiko gaiak landuko dira, hasteko, osasun-zerbitzuen historia, definizioa eta beharra errepasatuta. Jarraian, erabateko kalitatearen araberrako kudeaketa-ereduak ikasiko dira (EFQM eredua, ISO arauak, etab.), eta horiek osasun-arretan aplikatzea. Hala, prozesukako kudeaketa, jardun klinikoaren aldagarritasuna eta protokolo zein gida klinikoak aztertuko dira. Gero, osasun-erakundearen egiaztapenak eta ziurtatzeak aztertuko dira, hala nola pazientearen segurtasuna.

Oinarri teorikoak finkatuta, kalitate-neurketari helduko zaio: prozesuak gauzatzeko egokiak diren adierazleak diseinatzea, adierazleak kalkulatzeko, emaitzak aztertzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

Azkenik, ospitaleko aginte-etaulak deskribatuko dira, 6. blokekoak. Izan ere, laburpen-unitate gisa erabili daitezke, bi faseetako edukiak barne hartzen dituzenez; datuak erregistratzea edo bilatzea, balidatzea, ustiatzea (osasun-jardueraren adierazleak kalkulatzeko, tratamendu estatistikoa, irudikapen grafikoa) eta aginte-etaulak egiteko

txostena diseinatzea. Arreta-jarduerari buruzko adierazle gehienak 1. moduluan (*Pazienteak kudeatzea*) aztertzen diren arren, komeni da horiek sakon berrikustea laburpen-unitate honi ekin aurretik.

Bigarren mailako modulua denez, ikasleak dagoeneko menderatuko ditu oinarrizko aplikazio informatikoak, testu-prozesatzaileak, kalkulu-orriak eta datu-baseak. Horiek guztiak 6. moduluan (*Bulegotika eta informazioaren prozesua*) landuko dira, modulu honen garapenari lagunduz.

Nolanahi ere, irakasle bakoitzak edukien sekuentzia balioetsi beharko du, ikasleen ezaugarrien eta heziketa-zikloko gainerako moduluen beharren arabera.

2) Alderdi metodologikoak

Irakasleak hautatutako lan-metodoa edozein dela ere, komeni da honako orientabide hauek kontuan hartzea:

Modulua ikasten hastean, hura aurkezten eta informazioa batzen eta ikasleen interesa jasotzen denbora bat emateaz gainera, eduki horiek lanbide-profilarekin duten lotura eta horiek lanbide-etorkizunean duten erabilgarritasuna azal daiteke.

Lanbide-modulu hau nagusiki izaera praktikokoa da, baina unitate didaktikoetako batzuek kontzeptu-eduki gehiago dituzte, datuen babesari eta konfidentziasunari buruzko legediari buruzkoak kasu. Horrenbestez, horiek guztiak konplexutasun txikienez handienekora lantzea komeni da, eta ikasleen parte-hartzea eragiteko metodoak erabiltzea, azalpenak ematen gehiegi luzatzea ekiditeko.

Horretarako, esaterako, ikasleek, banaka, izaera pertsonaleko datuen babesari eta konfidentziasunari buruzko legediaren gaineko informazio-bilaketak egin ditzakete hainbat euskarritan (Internet, aldizkariak, etab.). Ondoren, horiek gainerakoan aurrean aurkeztuko dituzte, irakasleak gainbegiratuta, indarrean dagoen legedirik garrantzitsuena zein den ondorioztatzeko. Hala, ikasle bakoitzak garapen profesionalerako interesgarritzat jotako artikulua edo paragrafoak jasoko dituen dokumentua osatuko du.

Irakasteko eta ikasteko jarduera guztietan, funtsezkoa da ingurunera eta tituluak adierazten dituen lanbide-jardueretara egokitzea. Zehazki, hipotesien datuek eta ezaugarriek, garatu beharreko prozesuek, erabili beharreko dokumentuek, simulatutako egoerek eta abarrek esanguratsuak eta «ezagunak» izan beharko dute ikasleentzat.

Hasteko, datu-base bat balidatzeko eta ustiatzeko ariketa erraz bat proposatu daiteke. Hala, ikasleek datuak balidatzearen eta ustiatzearen oinarriak ezagutuko dituzte.

Estatistikako eta probabilitateko ariketa klasikoak proposatu daitezke, konplexutasun gero eta handiagokoak izango direnak, edukiak azaldu ahala. Komeni da ariketa guztiak osasun-datuak eta euskarri informatikoak erabiliz egitea. Amaierako ariketa bat egin ahal izango da, banaka edo taldeka; esaterako, populazio jakin bateko gluzemia-mailari buruzko azterlan deskribatzailea (laginketa, datu-bilketa, taulak eta grafikoak egitea, parametroak kalkulatzeko, etab.), ateratako ondorioak jasoko dituen txostenarekin, ikasleek eduki guztiak aplikatu behar izan ditzaten.

Modulu osorako jarduera gisa, datu kliniko-asistentzialen datu-base txiki bat diseinatuko da Excel edo Access erabiliz, datu horiek gerora erregistratzeko eta ustiatzeko. Ikasleek asmatutako datuak erregistratuko dituzte, beraiek diseinatutako protokoloak eta araudiak aplikatuta. Ondoren, erregistratutako datuen kalitatea ebaluatu ahal izango da



(lagina hautatzea, erroreak hautematea, erroreak sailkatzea, kalitate-adierazleak osatzea, adierazleak kalkulatzeko, emaitzen txostena, hobekuntza-neurriak, etab.). Gainera, datu-baseko datuak ustiatu ahal izango dira, horiekin kalkulu estatistikoak egiteaz eta emaitzen txostenak aurkezteaz gain.

Jarduera gehiago ere egin daitezke, honako hauek esaterako: bi urte desberdinetako autonomia-erkidegoko osasun-adierazleen azterlan konparatiboa egitea, metodo estatistikoak eta datuen irudikapen grafikoa aplikatuta, Eustaten datuak erabiliz; zenbait autonomia-erkidegoren datuen oinarritzko gutxieneko multzoko aldagaien azterlan konparatiboa egitea, ateratako ondorioen txostenarekin; Euskadiko datuen oinarritzko gutxieneko multzoko orriak betetzea eta informatikoki erregistratzea, irakasleak emango lituzkeen alta-txostenetan oinarrituta; kasu hipotetikoak proposatu eta horiei dagozkien DTEak bilatzea eta esleitzea, eta loturiko arretaren kostua kalkulatzeko.

Taldeka, hainbat euskarritan (liburuak, aldizkariak, Internet, etab.) bilatzea informazioa, jardunbide egoki kliniko frogatzen duen dokumentazio bibliografikoa biltzeko, ebidentzia zientifiko onena bilatzeko eta hautatzeko irizpideak aplikatuta; hainbat ospitaletako zenbait prozesuei buruzko protokolo eta gida klinikoaren bilduma egitea, horien azterlan konparatiboa egin eta gainerako ikaskideei aurkeztu ondoren, eztabaidari bide emateko.

Modulu osoko edukiak barne hartzen dituzten laburpen-arietak proposatu daitezke, datuak erregistratzea edo bilatzea, balidatzea, ustiatzea (osasun-jardueraren adierazleak kalkulatzeko, tratamendu estatistikoak, irudikapen grafikoa) eta ospitaleko aginte-taulak egiteko txostena diseinatzea kasu.

Modulu honetan, funtsezkoa da programa informatikoak erabiltzea. Horrenbestez, komeni da aplikazio informatikoak erabiltzea osasuneko datu-baseen erregistroan, tratamendu estatistikoan eta ustiapenean, pazienteak sailkatzeko sistemetan eta informazio-sistemetan eta kalitate-kontrollean.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Estatista- eta probabilitate-parametroen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Lagin adierazgarriak lortzeko eta datuen taulak zein irudikapen grafikoa egiteko teknikak aplikatzea.
- ✓ Analisi estatistikoak egitea aplikazio informatikoak erabiliz.
- ✓ Probabilitate-balioak kalkulatzeko banaketa normaleko ausazko aldagai bat emanda, eta emaitzak interpretatzea.
- ✓ Osasuneko informazio-sistemen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Datu kliniko-asistentzialak erregistratzeko eta ustiatzeko berriazko aplikazio informatikoak erabiltzea.
- ✓ Osasun-datuen kalitate-kontrolak egitea.
- ✓ Kalitate-adierazleak osatzea.
- ✓ Izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen legedia aztertzea eta interpretatzea.
- ✓ Datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren orriak betetzea eta informatikoki erregistratzea.
- ✓ Datuen oinarritzko gutxieneko multzoaren kalitatea ebaluatzea.
- ✓ Laginketa-teknikak aplikatzea.
- ✓ Errore administratiboak eta klinikoak hautematea.
- ✓ Datuen oinarritzko gutxieneko multzoko datuak balidatzea eta ustiatzea, tresna-informatikoak erabiliz.
- ✓ Pazienteak sailkatzeko sistemen ezaugarriak zehaztea.

- ✓ Pazienteak sailkatzeko sistemen gaineko azterlan konparatiboa.
- ✓ Berrikusi eta balidatu beharreko DTE ezohikoak edo informazio baliogabea dutenak identifikatzea.
- ✓ Ospitaleko produkzio-prozesua deskribatzea.
- ✓ Ospitale-produktua neurtzea.
- ✓ DTEen esleipenari, pisuei eta arreta-kostuaren kalkuluari loturiko ariketak ebatzea.
- ✓ Osasuneko prozesuen adierazleak kalkulatzeko ariketak egitea, emaitzak aztertzea eta hobekuntza-neurriak proposatzea.
- ✓ Bibliografia bilatzea osasuneko datu-baseetan, ebidentzia zientifiko onena hautatu ahal izateko.



10. lanbide-modulua

OSASUN ARLOKO ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasun arloko administrazio-kudeaketa
Kodea:	1523
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	120
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Prozedura sanitario eta asistentzialak (Irakasle tekniko edo Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	12 / 13 / 14 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Giza baliabideen, hornikuntza-kontrolaren eta osasun-sektoreko baliabideak kontratatzearen gaineko administrazio-eginkizun nagusiak kudeatzen ditu, indarrean dagoen legedia aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Osasun-sektoreko enplegatzaile motak, tartean, enpresa pribatuak eta herri-administrazioa, eta horien berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Osasun-zentroetako langileen hautaketa eta kudeaketa arautzen dituen legedia aplikatu du.
- Indarrean dauden lan-kontratazioko modalitateak eta osasun-sektoreko kolektibo bakoitzari aplika dakizkiokeen haren elementuak zehaztu ditu.
- Osasun-zentroen zerbitzu-zorroak aztertu ditu eta dagokien baliabide-premien plangintza egin du.
- Osasun-zentroen zerbitzu-zorroen plangintza egin du, pribatuetan nahiz publikoetan.
- Hornikuntza-programaren kostua kalkulatu du, berau osatzen duten elementuak bereizita.
- Osasun-zentro publikoen erosketen ezaugarriak adierazi ditu.
- Osasuneko herri-administrazioaren ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileak hautatzeko eta kontratatzeko aplikatu behar den araudia aztertu du.

2. Ikerketa-proiektuen eta saiakuntza klinikoen alderdi administratiboak kudeatzen ditu, garapen-prozesuaren plangintza eta segimendua eginez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Saiakuntza kliniko baten ezaugarriak eta faseak deskribatu ditu.
- b) Finantzaketa lortzeko deialdietara proiektuak aurkezteko beharrezkoa den dokumentazioa prestatu du.
- c) Proiektuari loturiko sailen edo zerbitzuen erantzukizunak eta horien arteko loturak identifikatu ditu.
- d) Esperimentu eta saiakuntza klinikoei loturiko betekizun etikoen gaineko dokumentazioa egiaztatu du.
- e) Esperimentu eta saiakuntza klinikoei loturiko araudia identifikatu du.
- f) Proiektuaren justifikazio ekonomikoa egin ahal izateko dokumentuak jaso eta egiaztatu ditu.

3. Osasun-proiektuak garatzeko alderdi administratiboak kudeatzen ditu, garapen-prozesuaren plangintza eta segimendua eginez.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-sektoreari berari dagozkion proiektuen administrazio-kudeaketa egiteko proposamenak egin ditu, horietako bakoitzaren bidez lortu nahi diren helburuak aintzatetsita.
- b) Proiektuaren administrazio-euskarriarekin lotuta gauzatu behar diren zereginak definitu ditu.
- c) Proiektuen faseetako bakoitzaren jarduerak, zereginak eta egiteko edo amaitzeko epeak identifikatu ditu.
- d) Proiektuaren baliabideak eta betekizunak (epeak, kostuak, kalitatea, giza baliabideak) kudeatzeko laguntzak programatu ditu.
- e) Proiektuaren faseetako bakoitza gainbegiratu eta berraztertu du.
- f) Antolamendu-egitura ezarri du, dagozkion rolak eta erantzukizunak esleituta.
- g) Proiektuari dagozkion txostenak osatu eta aurkeztu ditu.

4. Aplikazio informatiko egokien bitartez, testuak, datuak, irudiak eta grafikoak integratuta lantzen ditu osasun-proiektuei loturiko dokumentuak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentuak lantzeko eta aurkezteko beharrezko bulegotika-aplikazioaren mota zehaztu du.
- b) Egin beharreko dokumentu motara egokitutako berariazko txantiloiak sortu ditu.
- c) Lan errepikakorrak automatizatzeko lan egokiak egin ditu.
- d) Dokumentua integratzeko datu egokiak hautatu ditu.
- e) Posta-konbinazioa egin du, beharrezko datuak hautatuta.
- f) Web-orriak erabili ditu grafikoak, diagramak edo marrazkiak lortzeko.
- g) Formatu eta aurkezpen egokia duten dokumentu antolatuak egin ditu.
- h) Denbora eta formaren arloko eskakizunen arabera aurkeztu eta argitaratu du amaierako lana.

5. Osasun-proiektuei loturiko dokumentu-kudeaketako sistema baten bitartez administratzen ditu dokumentuak.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentuen kudeaketa-sistema baten osagaiak zehaztu ditu: dokumentuen datu-baseak, hardwarea, softwarea, sareak, erabiltzaileak eta administratzaileak.
- b) Dokumentu-kudeaketako programen bidez eskaneatu ditu dokumentuak.
- c) Ezarritako parametroei jarraituta biltegitratu, sailkatu eta berreskuratu ditu dokumentuak.
- d) Dokumentuak zaintzeko mekanismoak ezarri ditu.
- e) Proiektuan ari diren kideen artean dokumentu-fluxua ezartzeko arauak diseinatu ditu.
- f) Dokumentuen banaketan, denbora eta formako baldintzatzaileen ezaugarriak adierazi ditu.
- g) Dokumentu partekatuak sortzeko lankidetzeta-mekanismoak diseinatu ditu.
- h) Instantzia publikoen eta pribatuen artean dokumentuak autentifikatzeko estandarrak bete ditu.
- i) Osasun- edo ikerketa-proiektu bat garatu ahal izateko nahitaez bete beharreko araudia aintzatetsi du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. OSASUNeko ADMINISTRAZIO-LANEN KUDEAKETA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza baliabideak kudeatzeko informatika-aplikazioak erabiltzea. - Hornitzaileak kudeatzeko eta haiei jarraipena egiteko aplikazioak erabiltzea. - Hornikuntza-iturriak identifikatzea eta balizko hornitzaileak bilatzea. - Baliabideen erosketa eta kontratazio publikoa kudeatzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-sektorea. Sektoreko langile motak. Lanpostuak. - Enplegatuak hautatzeko eta kudeatzeko sistemak. Kontratazio-sistemak eta -ereduak. Indarrean dagoen araudia. Enplegu-eskaintza publikoak eta pribatuak. - Osasun-zentro publiko edo pribatuen eta lehen mailako arretako edo arreta espezializatuko zentroyen zerbitzu-zorroa. - Osasun-zentroyen baliabide materialak. Hornikuntza-metodoak. Kostuak. Erosketa-batzordeak. Hornikuntza-prozesuaren dokumentazioa. Araudi aplikagarria. - Hornitzaileak kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko informatika-aplikazioak. - Baliabide-kontratazio publikoaren sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak zorrotz betetzea. - Diskrezioa datuak maneiatzean. - Ordena eta gustua dokumentazioa lantzean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa osatzean. - Lanbide-sektoreari loturiko ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

2. IKERKETA-PROIEKTUEN ETA SAIKUNTZA KLINIKOEN ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikerketa motak identifikatzea. - Ikerketa-proiektu eta saiakuntza kliniko errazen plangintza. - Proiektuen dokumentazioa osatzea. - Finantziarioa eskatzeko eta gastuak justifikatzeko dokumentazioa prestatzea. - Saiakuntzak eta proiektuak erregistratzeko dokumentazioa prestatzea. - Dokumentazioa egiaztatzea. - Ikerketa-proiektuak eta saiakuntzak, eginkizunen banaketa eta koordinazio-sistemak antolatzeko proposamenak egitea. - Konpromiso etikoa ikerketa klinikoan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-ikerketak. Ikerketak diseinatzea. Motak. Behaketa-azterketak. Azterketa deskribatzaileak. Azterketa analitikoak. Azterketa esperimentalak. - Saiakuntza klinikoak. Ezaugarriak. Motak. Faseak. Dokumentazio espezifikoa. Saiakuntza kliniko batean sortutako informazioa eta dokumentuak. Saiakuntza klinikoaren erregistroa. - Ikerketa-proiektuen eta saiakuntza klinikoaren finantzaketa. Iturri publikoak eta pribatuak. Deialdietan aurkeztu ohi den dokumentazioa. - Ikerketa-proiektuen parte-hartzaileak koordinatzeko sistemak. Parte-hartze, harreman- eta erantzukizun-maila. Lankidetzak-sareak. Nazioarteko proiektuetan parte hartzea. - Ikerketa esperimentalaren betekizun etikoak. Ikerketa klinikoaren batzorde etikoak. - Ikerketari esperimentalari loturiko araudia. Dokumentazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak zorrotz betetzea. - Diskrezioa datuak maneiatzean. - Ordena eta gustua dokumentazioa lantzean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa osatzean. - Ikerketa esperimentalari loturiko araudia betetzea. - Lanbide-sektoreari loturiko ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa. - Lantaldeko kideekiko begirunea eta adeitasuna.

3. OSASUN-PROIEKTUEN ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-biltegien administrazio-kudeaketako teknikak aplikatzea. - Proiektuen antolaketa, plangintza eta programazioa egitea. Jarduerak, eginkizunak eta epeak zehaztea. Rolak eta erantzukizunak esleitzea. - Proiektu baten segimendua eta kontrola egiteko teknikak aplikatzea. - Proiektuen kudeaketan bulegotika-aplikazioak erabiltzea. - Txostenak eta dokumentuak prestatzea. - Dokumentuen bihurketa digitala eta horiek babestea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektua. «Project management» kontzeptua. Osasun-sektoreko proiektuak. Motak. Faseak.



	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak kudeatzeko bulegotika-aplikazioak. - Bilerak deitzeko teknikak. Formatua. Diseinua. - Txostenak eta dokumentuak. Dokumentuen bihurketa digitala egiteko eta horiek babesteko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak zorrotz betetzea. - Diskrezioa datuak maneiatzean. - Ordena eta gustua dokumentazioa lantzean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa osatzean. - Lanbide-sektoreari loturiko ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

4. OSASUN-PROIEKTUEN DOKUMENTUAK OSATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuan txertatu beharreko datuak eta informazioa hautatzea. - Osasun-proiektuen dokumentuak osatzea. - Dokumentuak prestatzea, aurkezteko eta entregatzeko. - Dokumentuen formatua prestatzea eta egokitzea. - Dokumentuak egiteko bulegotika-tresnak eta tresna informatikoak erabiltzea (eginkizun automatikoak, posta-konbinazioa, txantiloikudeaketa eta abar). - Lanak eta txostenak aurkezteko eta argitaratzeko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasun-proiektuen dokumentuak osatzea. - Proiektuari loturiko komunikazioen plangintza. Tresnak eta teknikak. - Informazioa zabaltzea. - Idatzizko informazioa eta informazio grafikoa lortzeko sistemak. Bibliografiak. Web-orriak. - Dokumentuak amaitzeko betekizunak. Formatuak. Diseinua. - Proiektuak aurkezteko eta argitaratzeko sistemak. Aurkezpen digitalak. Poster zientifikoak. Txostenak. - Errendimenduaren gaineko txostenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Diskrezioa datuak maneiatzean. - Ordena eta gustua dokumentazioa lantzean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa osatzean. - Emaizak egoki aurkezteko interesa. - Lanbide-sektoreari loturiko ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

5. OSASUN-PROIEKTUEN DOKUMENTUAK ADMINISTRATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak eskaneatzea, biltegitratzea, sailkatzea, artxibatzea, berreskuratzea eta suntsitzea. - Dokumentuak helaraztea eta banatzea. - Lan partekaturako metodoak aplikatzea. - Dokumentuen zaintza bermatzeko metodoak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentuak kudeatzeko sistemak (datu-baseak, sareak eta abar). - Proiektuen dokumentu-kudeaketako prozesuak eta kontrola. - Azken dokumentua berraztertzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen emaitzen aurkezpena. Txostenak eta grafikoak. - Webgunea baliabide-iturri eta informazioaren helmuga zein abiapuntu gisa. - Informazioaren transferentzia. - Azken dokumentua aurkeztea eta argitaratzea. - Osasuneko proiektuak edo ikerketa biomedikoa garatzeko indarrean dagoen legedia aplikagarria. Dokumentuen zaintza.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Protokoloak zorrotz betetzea. - Diskrezioa datuak maneiatzean. - Ordena eta gustua dokumentazioa lantzean. - Argitasuna eta zehaztasuna informazioa osatzean. - Lanbide-sektoreari loturiko ezagutzak eguneratzeko interesa. - Elkarlanarekiko eta talde-lanarekiko interesa.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu honetako edukietan bi zati bereiz daitezke: batetik, osasun-sektoreari eta 1.blokean deskribatutako baliabideen kudeaketari buruzkoa, eta bestetik, osasun-proiektuak kudeatzeari loturikoak, gainerako blokeetan deskribatzen direnak.

Lehen zatia, sektorearen ezaugarriren bat aztertuz hasi daiteke, eskaintzen den enplegu mota, sarbide- edo kontratazio-sistemak eta zentro mota bakoitzak eskainitako zerbitzuak kasu. Ondoren, zentro horiek dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko zein premia dituzten aztertu daiteke, hala nola zein baliabide material behar dituzten eta zein hornikuntza-sistemetara jo dezaketen.

Bigarren zatian, hasteko, ikerketen, saiakuntza klinikoan eta osasun-proiektuen ezaugarriak zehaztuko dira (2. eta 3. blokeak) eta, ondoren, proiektuen kudeaketari dagozkion tekniken sekuentzia landuko da; alegia, besteak beste, plangintza, dokumentazioa osatzea, dokumentazioa aurkeztea eta dokumentu-tratamendua (2., 3., 4. eta 5. blokeak). Horretarako, kontuan hartuko da gai batzuk bloke batean baino gehiagotan daudela; hau da, ez da beharrezkoa horiek egitea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau osatzeko eta *Ikaskuntzaren emaitzak* eta *Ebaluazio-irizpideak* ataletan azaldutako gaitasunak eskuratzeko, oso lagungarria da simulazioak egitea eta kasuak aztertzea, egiazkoen antzeko egoeretan lan egin ahal izateko. Horietan, ikasleek jardun profesionaleko ekintzak bete beharko dituzte.

Proposatutako kasuek ezaugarri jakin batzuk izango dituzte (osasun-zentro txikia, jarduera-maila jakin batekoa, hornigaiak erosi behar dituena epe zehatz baterako; ospitale batean egiten ari diren ikerketa-proiektu bat, hainbat zerbitzuek parte hartzen dutena; botika baten eraginkortasunari buruzko saiakuntza klinikoak, zeinetan alderdi administratiboak planifikatu eta gauzatu behar diren eta abar) eta ikasleek hasierako egoera aztertu beharko dute. Fasez fase, informazioa kontsultatu edo eskatu ahal



izango dute, eta beharrezkoak diren dokumentuak eta testuak sortuko dituzte, harik eta egoki iritzitako irtenbidea eman eta kasua ebatzi arte.

Bestalde, zenbaitetan (erosketa-metodoak, proiektuaren alderdiak edota ikerketa motak zehaztean), aztertutako kasua arrakastaz ebatzi ahal izateko beharrezkoak diren edukiak aurrez aztertu beharko dira eta, halaber, beharrezkoa izango da moduluaren irakasleak azalpenak eta apunteak edo testuak eskaintzea, lana errazteko edo denbora aurrezteko.

Interesgarria gerta liteke ikasleek behar duten informazioa normalean egon ohi den euskarrian bilatzea eta kontsultatzea (erakundeen deialdi publikoak, enplegu-eskaintzak, erosketa-baldintzak eta -pleguak, aldizkari ofizialak, proiektu eta saiakuntza klinikoaren argitalpenak, aldizkari zientifikoak eta abar). Hasieran prozesu hau gidatu egin beharko den arren, gidaritarik behar ez izateko autonomia nahikoa eskuratuko dute ikasleek moduluan zehar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osasun-establezimenduen eta horien zerbitzu-zorroren ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Langileak kudeatzeko sistemen eta metodoen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Erosketak kudeatzeko sistemen eta metodoen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Giza baliabideak eta bestelako baliabideak kudeatzeari buruzko lege-araudia hautatzea eta interpretatzea.
- ✓ Giza baliabideak eta bestelako baliabideak kudeatzeari loturiko dokumentazio ofiziala interpretatzea.
- ✓ Osasun-zentroei eta -establezimenduei buruzko prestakuntza eta datuak bilatzea eta hautatzea.
- ✓ Baliabideen erosketa eta kontratazio publikoa kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Ikerketa, saiakuntza kliniko eta osasun-proiektu motak eta horien faseen ezaugarriak zehaztea.
- ✓ Osasun-proiektuak kudeatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Proiektuak planifikatzeko eta antolatzeke teknikak aplikatzea.
- ✓ Pertsonak koordinatzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Komunikazio-teknikak aplikatzea, hainbat sistemaren bidez, informatikoak barne.
- ✓ Osasun-proiektuen dokumentuak osatzea.
- ✓ Proiektuan txertatu beharreko datuak eta informazioa hautatzea.
- ✓ Formatuak prestatzea eta egokitzea.
- ✓ Dokumentuak egiteko bulegotika-tresnak eta tresna informatikoak erabiltzea (eginkizun automatikoak, posta-konbinazioa, txantilo-kudeaketa eta abar).
- ✓ Lanak eta txostenak aurkezteko eta argitaratzeko teknikak aplikatzea.
- ✓ Dokumentuak kudeatzea eta tratatzea.
- ✓ Osasun-proiektuei loturiko multimedia-aplikazioak egitea.
- ✓ Dokumentuak berrikustea eta zuzentzea. Dokumentuak egokitzea.
- ✓ Proiektuak eta ikerketak kudeatzeari buruzko lege-araudia hautatzea eta interpretatzea.

11. lanbide-modulua

OSASUN-DOKUMENTAZIOAREN ETA -ADMINISTRAZIOAREN PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasun-dokumentazioaren eta -administrazioaren proiektua
Kodea:	1524
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) Prozedura sanitario eta asistentzialak (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren funtzioak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.



2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.
- e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Abiaraztearen berezko arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipoak definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Inplementatzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua inplementatzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta litekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.

5. Neurrirako osasun-produktuak fabrikatzeko prozedura legalak, produktuaren merkaturatzea eta salmenta- eta egokitzapen-establezimenduen baimena zehazten ditu, indarreko osasun-araudiarekin bat.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-produktuak fabrikatzeko, inportatzeko, taldekatzeko eta esterilizatzeko instalazioek funtzionatzeko alde aurretik lortu beharreko lizentzia aztertu du.
- b) Neurrirako produktu ortoprotesikoen fabrikatzaile gisa funtzionatzeko lizentzia lortzeko bete beharreko baldintzak eta prozedura deskribatu ditu.
- c) Neurrirako osasun-produktuen merkaturatzearen arduradun gisa erregistroa egiteko prozedura deskribatu du.
- d) Osasun-produktuak saltzeko eta egokitzeko establezimendua izateko baimena lortzeko prozedura legalak deskribatu ditu.
- e) Garatu beharreko jardueraren arabera, instalazio, bitarteko material eta pertsonal egokiak barne hartu ditu.

6. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du, eta proiektua lantzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako kompetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderi.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-ziklo osoan landu diren kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeenak eta kompetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez «Lantokiko prestakuntza» moduluarekin, praktikak egiten direneko enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria da tutoreak gara daitezkeen proiektu teknikoki bideragarri batzuk prest izatea, proposatu behar izanez gero ere.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

Diseinua.

Plangintza egitea.

Gauzatzea eta jarraipena egitea



Amaitzea eta ebaluatzea.

Bukatzeko, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta egingo du, eta, horretarako, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dituzte IKTetan oinarrituta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren kompetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berriaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute arazoak identifikatzera, horiek konpontzeko aukerak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek bakarlaneko uneak sustatzen dituzte, eta lan horiek garrantzi handikoak dira taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta kompetentziak eskuratzeko.

Bestalde, talde-lanaren bidez, ikasleek harreman-kompetentziak garatzen dituzte eta taldeen funtzionamendua ezagutzen dute, lanerako tresna gisa, baita horrek dakarren guztia ere: taldearen antolaketa, rolen eta zereginen banaketa, pertsonen arteko komunikazioa, gatazken konponketa, etab.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berriazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie, hau da, hainbat informatika-aplikazio erabiltzea diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak, eta abar lantzeko. Horretarako bideo-proiektagailuak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte eta, hala, etorkizunean lanerako baliagarri izango dituzten tresnekin trebatzen hasteko aukera izango dute.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzerakoan, garrantzitsutzat jotzen dugu proiektua azken produktu gisa eta egindako lanketa-prozesuaren amaiera gisa ebaluatzea. Horretarako, lantaldearen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso behar da, kide bakoitzak zereginetan eta proiektuan izan duen inplikazioari buruzkoa, oro har, taldean sortutako zailtasunei buruzkoa, ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia pertsonal eta sozialei buruzkoa eta abar.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- Aurkezpena egiteko baliabide lagungarrien erabilera: baliabide informatikoak, modeloak edo maketak, eta abar.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren bizitasuna.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Frogatutako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa eta abar.
- Irakasleek eta ebaluatzaileek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektuaren defentsan. Horrela, bakarkako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren ibilbide profesionalean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.



12. lanbide-modulua INGELES TEKNIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Egoera jakin batzuk ebazteko ahozko mezu zehatzak igorri ditu: hitzordua, produktu bat bidaltzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/aparatu baten oinarrizko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu, eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

- h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- i) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berriazko informazioa atera du eskaintako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu du: posta elektronikoa eta faxa, besteak beste.
- d) Sektoreko web orri bateko oinarriko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berriazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlacionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta konpetentzia profesionalak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, eta herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarteko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

c) Oinarriko edukiak:

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehenetsiak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta



	<p>zalantzaren adierazpena eta bestelakoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoak. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-betean parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta gutun eragingarria.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, web orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen erredua. - Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Beste kultura batzuen alderdi profesionalekiko interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.
--	---

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan, baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehenetsua emango diena.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza, eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoez eta sintaktikoez ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena, garatzea da lortu beharreko helburua. Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, oso baliagarria izango da lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.



Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko litzuke, gero eta autonomoagoak izan daitezten eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezten zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-kompetentzia batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lan-munduan komunikatzeko tresna gisa ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jarria azpimarratuko dira, mezua hartzaillearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak, liburuxkak...), eta web orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitutako hainbat motatako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar dira.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezzen. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Ingurune profesionalarekin lotutako materialak lehentasunez erabiltzea (erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuaren krokisak), eta zenbakiekin, datekin, orduekin eta eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileekin praktikatzeko.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, azalpen zehatzak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharra egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazo berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, eta abar.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan laneko egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.



13

13. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	1525
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	13 / 14 / 15 / 16 / 17 / 18 / 20

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako aukerak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako jarduera profesionalerako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zein diren zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta laneratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak azaldu ditu.
- Titulari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako aukerak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilarri lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lantaldeak identifikatu ditu.
- c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta gaitasuna dauka horiek lan-kontratuetan aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak xedatutako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak azaldu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du, eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuak eta langileak dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak azaldu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurunean lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako eragile guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentziora kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentziora buruzko arauetan xedatutako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentziora dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneeko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihetsezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babesteko teknikak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen sorospenteko oinarriko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. LANERATZEKO ETA BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARAKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrekin eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea. - Laneratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea. - Behar bezala laneratzeko lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2. GATAZKA ETA LANTALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lantaldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta abiapuntuko posizioak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lantaldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreke industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lantaldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa. - Lantalde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazkek ebazteke edo ekiditeke metodoak: bitartekaritza,



	adiskidetzea eta arbitrajea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lantaldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3. LAN-KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN-BALDINTZAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzekoak, soldata-bermeak. - Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: lana kanporatzea, telelana...
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzeko beharra baloratzea. - Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez. - Gizartea hobetzeko eragile gisa, sindikatuaren eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioak. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarriko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarriko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzko oinarriko araua



	<p>aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko eragile gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planari buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO- ETA BABES-NEURRIAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdien aurreikuspena balioestea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen laneratze-ibilbidearen logikan oinarritzen da; hau da:

zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- European lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein supoziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkartza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:



Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko kompetentziak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasieran, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen parte-hartze eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorrazteko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak... erabil daitezke aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzeke.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea eta abar. Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak eta abar. Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, esaterako: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktiko bat aurrera eramatea eta ikasleek benetako enplegu-bilaketa egitea simulatzea: horretarako, normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculum, aurkezpen-gutuna), eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-eskaintzak aukeratuko dituzte.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.

- Sektorean enplegatzeako aukerak identifikatzea.
- Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lantaldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.



14

14. lanbide-modulua ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	1526
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	12 / 13 / 14 / 15 / 17 / 19 / 20

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako trebetasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile oren elementu saihetsezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du; enpresa-idea aukeratzen du, eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu, eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak azaldu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du, eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko funtzioak deskribatu ditu, eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila azaldu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitzen dituen izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziako herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak azaldu ditu.
- d) Zerga-egutegian, zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean txertatu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILLEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak azterzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua eta abar). - Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak azterzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburuaren kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzaitzaren etika baloratzea. - Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzaitzaren bultzatzaile gisa.

2. ENPRESA-IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra azterzea.
	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat azterzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasangarria). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zergen arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantzza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotasunez ebaluatzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO-FUNTZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak, letrak, etab.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarritzko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.



d) Orientabide metodologikoak

Hona hemen modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko gomendioak:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzeko beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, Marketin Plana, giza baliabideak, forma juridikoa, eta abar aztertuko dira.

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenei buruzko sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sektorian alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.

- Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
 - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
 - Diruzaintzako plan bat, emaitzen kontua eta egoera-balantzea aztertzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.



15

15. Lanbide-modulua LANTOKIKO PRESTAKUNTZA a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	1527
Heziketa-zikloa:	Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Osasungintza
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Osasun-prozesuak (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) Prozedura sanitario eta asistentzialak Administrazio-kudeaketako prozesuak (Irakasle teknikoa edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura sektorean dauden ereduak enpresa-antolamenduekin alderatu du.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan xedatutako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
 - Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia, besteak beste) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarriko alderdiak identifikatu ditu.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri ditu abian norbera babesteko ekipoak.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
- f) Esleitutako lanaren erantzukizuna hartu du, eta jasotako aginduak interpretatu eta bete ditu.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta sortutako gorabehera garrantzitsuak jakinarazi ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitze beharra baloratu ditu.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Pazienteak kudeatzeko prozedurak gauzatzen ditu, aplikazio informatikoak erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pazienteak ospitaleratzeko administrazio- eta klinika-izapideak egin ditu harrera-zerbitzuan.
- b) Arreta-prozesuak fakturatzeko erregistroak bete ditu, informazio ekonomiko-finantzarioaren sisteman ezarritako jarraibideen arabera.
- c) Zerbitzuko ospitaleratzeak eta altak kudeatu ditu, osasun-zentroan ezarritako irizpideen arabera.
- d) Administrazio-dokumentu klinikoak izapidetu ditu, dokumentazio klinikoari eta kodetzeari loturiko unitateekin koordinatuta.
- e) Pazienteen anbulatorio-kontsulten eta/edo proba diagnostiko zein terapeutikoen hitzorduak kudeatzeko izapide administratibo eta klinikoak egin ditu, zerbitzu medikoen agendak erabiliz.
- f) Ospitaletik kanpoko proba diagnostiko edo terapeutikoak egiteko eskaerak bideratu ditu, zentroen artean ezarritako protokoloak betetz.
- g) Erabilitako pazienteen datuen konfidentziasunari eutsi dio.

4. Paziente/erabiltzaileei eta senideei arreta ematen die, komunikazio- eta laguntza-teknikak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Antolaketa-sistemari, erabilitako dokumentuei eta paziente/erabiltzaileari emandako arretari buruzko informazioa eman du.
- b) Paziente/erabiltzailearen jarreraren eta egoera emozionalaren arabera komunikazioa ezarri du.
- c) Trebetasun pertsonalak eta gizarte-trebetasunak erabili ditu informazio-prozesuan, komunikazio-zailtasunak gainditzeko.
- d) Egoera berezietako laguntza psikologikoa emateko mekanismoak aplikatu ditu.
- e) Erabiltzaileen beharrei erantzuteko interesa eta kezka azaldu du.
- f) Erabiltzaileek aurkeztutako erreklamazioei eta kexei erantzun zaie, ezarritako jardura-protokoloen arabera.
- g) Jarrera zuzen eta etikoa izan du jardura guztietan.

5. Arreta-gertakarietatik diagnostikoak eta prozedurak ondorioztatzen ditu, indarrean dagoen gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren arabera kodetuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ospitaleko alta-txosteneko eta gainerako dokumentazio klinikoko deskribapena ulertu du.
- b) Arreta-gertakariako datuak identifikatu ditu, balizko diagnostiko gisa.
- c) Diagnostiko nagusia eta diagnostiko sekundario interesgarriak ezarri ditu.
- d) Arreta-gertakarietako prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak ezagutu ditu.
- e) Prozedura nagusia eta prozedura sekundario interesgarriak ezarri ditu.
- f) Askotariko diagnostikoen eta prozeduren osasun-kodetzearen prozesuak egin ditu, indarrean dauden gaixotasunen nazioarteko sailkapena eta kodetze-araudia aplikatuz.
- g) Erabilitako pazienteen datuen konfidentziasunari eutsi dio.

6. Osasuneko datuak balidatu eta ustiatzen ditu, datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren egitura erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datu adierazgarriak lortzeko beharrezkoak diren kalkulu estatistikoak egin ditu.
- b) Emaitzak interpretatu ditu.
- c) Kasuko osasun-zentroko datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren erabilerak eta ustiapenak identifikatu ditu.
- d) Zentroaren bideragarritasuna eta kalitate-maila eta datu-balidatze egokia lotu ditu.
- e) Bere lanari dagozkion eginkizunetan zorrotz jokatu du eta interesa adierazi du.

7. Osasun-zentroko dokumentu- eta administrazio-kudeaketa egiten du, informazio-tratamendua optimizatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasun-zentroan erabilera arruntekoak diren dokumentuak identifikatu ditu.
- b) Erabilitako osasun-dokumentazioari loturiko osasuneko araudia eta datuak babesteari buruzkoa aztertu ditu.
- c) Historia klinikoen dokumentuen, edukien, eginkizunen eta erabiltzaileen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Historia klinikoak kudeatu ditu, zentroan ezarritako protokoloen arabera.

- e) Zentroaren barneko informazio-fluxuak aztertu ditu.
- f) Eguneroko jardueretarako eta bestelakoetarako dokumentu normalizatuak sortu, planifikatu edo bete ditu.
- g) Zentroko giza baliabideak eta baliabide materialen hornikuntza eta kontrola kudeatzeari loturiko jarduerak gauzatu ditu.
- h) Proiektuak, tartean, aurkezpenak, kongresuak eta ikerketa biomedikoak, prestatzeko administrazio- eta dokumentu-euskarria eskaini du.
- i) Egindako eginkizun guztien kalitate-maila egiaztatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura aztertzea
 - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
 - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko arauen arabera jardutea:
 - Tresneria, materialak, produktuak, ekipoak eta garraiobideak manipulatzearren arriskuak identifikatzea.
 - Segurtasun-neurriak aplikatzea.
 - Norbera babesteko ekipoak erabiltzea.
- ✓ Ingurumena babesteko arauen arabera jardutea:
 - Kutsadura-iturriak identifikatzea.
 - Ingurumena babesteko arauak aplikatzea.
- ✓ Pazienteak kudeatzeko prozedurak egitea:
 - Pazienteak ospitaleratzeko administrazio- eta klinika-izapideak egitea harreraz-zerbitzuan.
 - Arreta-prozesua fakturatzeko erregistroak betetzea.
 - Ospitaleratzeak eta altak kudeatzea, zentroaren irizpidearen arabera.
 - Egoeran egoerako dokumentazio kliniko-administratiboa izapidetzea.
 - Anbulatorio-hitzorduak eta proba diagnostikoak zein terapeutikoak kudeatzea.
 - Zerbitzu-agendak erabiltzea.
 - Bideratzeak egiteak, protokoloen arabera.
 - Prozesu horietarako beharrezkoak diren dokumentazioa eta izapide administratiboak egitea.
 - Pazienteen datuen konfidentzialtasunari eusteko arauak eta protokoloak aplikatzea.
- ✓ Pazienteei, erabiltzaileei eta senideei edo lagunei eman beharreko arreta:
 - Zentroaren zerbitzuen gaineko informazio orokorra ematea pertsona mota desberdinei.
 - Egoeran egoerako komunikazio-teknikak aplikatzea, pertsonaren jarrera, egoera eta baldintzak kontuan hartuta.
 - Hainbat egoerari aurre egitea, kexei eta erreklamazioei arreta ematea kasu, komunikazioari loturiko teknikak eta trebetasun pertsonalak zein sozialak erabiliz.
 - Laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea lan-inguruneko ohiko egoeretan.
 - Pazienteen, erabiltzaileen, senideen eta lagunen aurreko osasun-zentroaren komunikazio-protokoloak interpretatzea eta aplikatzea.



- ✓ Arreta-gertakarietatik ondorioztatzea diagnostikoak eta prozedurak:
 - Ospitaleko alta-txostenaren eta bestelako dokumentu klinikoen zatiak identifikatzea eta deskribatzea.
 - Txostenetako informazioa eraztea.
 - Arreta-gertakariaren, diagnostikoaren eta loturiko prozedura diagnostiko eta terapeutiko nagusien eta sekundarioen datuak identifikatzea.
 - Osasuneko jarduerari loturiko diagnostiko eta prozedura mota batzuen osasun-kodetzea.
 - Pazienteen datuen konfidentzialtasunari eusteko arauak eta protokoloak aplikatzea.

- ✓ Datuen oinarrizko gutxieneko multzoaren egituraren bidez balidatzea eta ustiatzea datuak:
 - Datu adierazgarriak lortzeko beharrezkoak diren kalkulu estatistikoak egitea.
 - Datuak eta emaitzak interpretatzea eta ondorioak ateratzea.
 - Zentroko datuen oinarrizko gutxieneko multzoa erabiltzea eta ustiatzea.
 - Datuek zentroaren kalitate-mailarekin duen zerikusia zehaztea.
 - Datuak zehaztasunez eta doitasunez lortzea eta erabiltzea.

- ✓ Osasun-zentroko dokumentazio- eta administrazio-kudeaketa gauzatzea:
 - Zentroan erabilitako dokumentazioa eta horren ezaugarriak, edukiak, funtzioak zein erabiltzaileak identifikatzea.
 - Dokumentu-informazioaren eskakizunak eta ibilbidea identifikatzea.
 - Historia klinikoak kudeatzea, ezarritako protokoloen arabera.
 - Zentroko beste dokumentu batzuk kudeatzea, protokoloen arabera.
 - Dokumentuak prestatzea, planifikatzea eta betetzea, zentroko jarduera arruntak gauzatzeko.
 - Zentroko giza baliabideak kudeatzeko eta baliabide materialak kontrolatzeko teknikak aplikatzea.
 - Administrazio- eta dokumentu-euskarriko teknikak aplikatzea osasun-zentroko proiektuak prestatzeko, aurkezpenak, biltzarretarako dokumentazioa eta ikerketa-proiektuak kasu.
 - Osasunari eta datuen babesari buruzko legedia aztertzea eta aplikatzea.
 - Egindako lanen kalitate-maila egiaztatzea.

4. GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	AZALERA (M ²) / 30 IKASLE	AZALERA (M ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Informatika-gela	100	75
Osasun-dokumentazioko gela	90	60

4.2 Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Ordenagailua. - Kanoia. - Dokumentazioa kudeatzeko eta administrazio-zereginetarako programak. - Bulegotika-ekipoak. - Eskanerra eta CAD-CAM sistemarako beharrezkoa den hardwarea eta softwarea.
Informatika-gela	<ul style="list-style-type: none"> - Sarean instalatutako 30 PC, Internet konexioarekin, ikasleentzat. - PC bat, irakasleentzat. - Eskaner bat. - Inprimagailu bat. - Ikasgelako altzariak. - Proiekzio-kanoia. - Proiekzio-pantaila. - Ikus-entzunezko erreproduzigailua. - Arbel elektronikoa. - Datu-biltegiragailuak, USB memoriak, disko gogor eramangarriak, CDak eta DVDak. - Sistema eragileen lizentziak. - Informatika-aplikazio orokorrak erabiltzeko lizentzia: testu-prozesadorea, kalkulu-orria, datu-basea, aurkezpenak, posta elektronikoa, argazki-ukituko programa, suebakia, antibirusa, konpresoreak eta web orrien edizioa. - Administrazio-kudeaketako aplikazio informatikoak erabiltzeko lizentziak: giza baliabideak, erosketak, kontularitza eta biltegia kudeatzeko pakete integratuak. - Hizkuntza-hiztegi profesionalak.
Osasun-dokumentazioko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Bibliografia egoki erabili ahal izateko lekua dagoen mahai zabalak.



PRESTAKUNTZA-ESPASIOA	EKIPAMENDUA
	<ul style="list-style-type: none"> - Aulkiak. - Proiekzio-kanoia. - Proiekzio-pantaila. - Nazioarteko sailkapen medikoen gaineko argitalpenak. - Hizkuntza-hiztegi profesionalak.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Osasun Dokumentazioa eta Administrazioa heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
1515. Pazienteak kudeatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozedura sanitario eta asistentzialak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1516. Terminologia klinikoa eta patologia.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1517. Diagnostikoak egitea eta prozedurak.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1518. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozedura sanitario eta asistentzialak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1519. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozedura sanitario eta asistentzialak • Administrazio-kudeaketako prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1520. Osasun-kodetzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1521. Laguntza psikosoziala paziente-erabiltzaileari.	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1522. Datuak balidatzea eta ustiatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozedura sanitario eta asistentzialak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1523. Osasun arloko administrazio-kudeaketa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozedura sanitario eta asistentzialak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
1524. Osasun-dokumentazioaren eta -administrazioaren proiektua	• Osasun-prozesuak	• Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	• Prozedura sanitario eta asistentzialak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
E-200. Ingeles teknika	• Ingelesa	• Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1525. Laneko prestakuntza eta orientabidea	• Laneko prestakuntza eta orientabidea	• Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1526. Enpresa eta ekimen sortzailea	• Laneko prestakuntza eta orientabidea	• Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1527. Lantokiko prestakuntza	• Osasun-prozesuak	• Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	• Osasun- eta laguntza-prozedurak • Administrazio-kudeaketako prozesuak.	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

HEZIKETA-ZIKLOETAKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	OSASUN DOKUMENTAZIOKO ETA ADMINISTRAZIOKO HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)
Dokumentazio kliniko definitzea eta tratatzea. Datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea	1517. Diagnostikoak egitea eta prozedurak. 1519. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan. 1520. Osasun-kodetzea.
Artxibo klinikoak antolatzea	1518. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa
Aplikazio informatiko orokorrak. Informatika-aplikazioak eta teklatu-eragiketak.	0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua.
Osasuneko datu-baseak balidatzea eta ustiatzea.	1522. Datuak balidatzea eta ustiatzea.



7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE- ETA EGOKITASUN-LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA-ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE-MODULUAK
UC2076_3: Prozedura administratibo-klinikoak egitea lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko pazienteen kudeaketan.	1515. Pazienteak kudeatzea.
UC2074_3: Termino klinikoak eta prozedura diagnostikoei eta/edo terapeutikoei buruzkoak dokumentu klinikoetatik eraztea.	1517. Diagnostikoak egitea eta prozedurak.
UC2072_3: Dokumentuen eta historia klinikoen fitxategiak kudeatzea. UC2073_3: Dokumentu-tratamendua eta informazio kliniko eta asistentzialeko sistema garatzea eta normalizatzea.	1518. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa.
UC2075_3: Osasun-dokumentaziotik erazitako datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea.	1519. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan. 1520. Osasun-kodetzea.
UC0986_3: Dokumentazio eta aurkezpen profesionalak lantzea hainbat formatutan. UC0987_3: Euskarri konbentzionalen eta informatikoan informatzeko eta artxibatzekeo sistemak administratzea.	0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua.
UC2077_3: Datu klinikoak eta ez-klinikoak ustiatzea informazio kliniko eta asistentzialeko sistemarako, kalitate-kontrolerako eta ikerketarako.	1522. Datuak balidatzea eta ustiatzea.

7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA-ATALAK
1515. Pazienteak kudeatzea.	UC2076_3: Prozedura administratibo-klinikoak egitea lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko pazienteen kudeaketan.
1517. Diagnostikoak egitea eta prozedurak.	UC2074_3: Termino klinikoak eta prozedura diagnostikoei eta/edo terapeutikoei buruzkoak dokumentu klinikoetatik eraztea.
1518. Osasun-artxiboa eta -dokumentazioa.	UC2072_3: Dokumentuen eta historia klinikoen fitxategiak kudeatzea. UC2073_3: Dokumentu-tratamendua eta informazio kliniko eta asistentzialeko sistema

GAINDITUTAKO LANBIDE-MODULUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA-ATALAK
	garatzea eta normalizatzea.
1519. Informazio- eta sailkapen-sistemak osasun-arloan. 1520. Osasun-kodetzea.	UC2075_3: Osasun-dokumentaziotik erauzitako datu klinikoak eta ez-klinikoak kodetzea.
0649. Bulegotika eta informazioaren prozesua.	UC0233_2: Informazioa eta dokumentazioa kudeatzeko bulegotika-aplikazioak erabiltzea UC0986_3: Dokumentazio eta aurkezpen profesionalak lantzea hainbat formatutan. UC0987_3: Euskarri konbentzionalen eta informatikoan informatzeko eta artxibatzekeo sistemak administratzea.
1522. Datuak balidatzea eta ustiatzea.	UC2077_3: Datu klinikoak eta ez-klinikoak ustiatzea informazio kliniko eta asistentzialeko sistemarako, kalitate-kontrolerako eta ikerketarako.



*Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Avda. Lehendakari
Aguirre, 184
48015 –Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus

Fp

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación
Profesional